

# TXOSTENA

BIZIKIDETZA

LANTZEN

Gipuzkoako  
udalerrietan  
**Bizikidetza**  
Lantzen

**10 urteko**  
esperientzien  
sistematizazioa

#### DOKUMENTUA IDAZTEA:

2022ko maiatza.  
Gipuzkoako Foru Aldundia.  
Giza Eskubideetako eta Kultura Demokratikoko Zuzendaritza Nagusia.  
Lege Gordailua: D-123-2023

#### EGILE NAGUSIAK:

**EIDER LANDABEREA.** Deustoko Unibertsitatea  
**FELIX ARRIETA.** Deustoko Unibertsitatea

#### EGILEKIDEAK:

**AITZIBER BLANCO.** Berbari Lekua, S.L  
**MAIDER MARTIARENA.** BAKEOLA (EDE Fundazioa)  
**MAIDER MARAÑA.** Baketik Fundazioa

#### ESKERRAK:

Lan honetan lagundu duten, instituzio eta pertsona guztiei.

DISEINUA ETA MAKETAZIOA

TGA

# ETAk 2011ko urrian indarkeriaren behin betiko amaiera iragarri ondoren, Euskadin itxaropenezko ziklo politiko berri bat ireki zen.

Sufrimenduz, indarkeriaz eta giza eskubideen urraketa larriz betetako hamarkadak izan dira, eta sufrimendu eta oinaze bidegabea eta alferrikakoa utzi dute gure gizartean. Gipuzkoa izan da, zalantzarik gabe, zeinu desberdineko indarkeria adierazpen horiek gehien zigortu duten lurraldea, biktima kopuru handiena izan dituen, eta, seguruenik, bizikidetzak gehien kaltetu eta polarizatu den lurraldea.

Hala ere, azken hamar urteotan, Gipuzkoako gizarteak erresilientziarako sekulako gaitasuna erakutsi du, memoria mingarri horri eta tentsio iturri esanguratsu horiei aurre egiteko, emaitza benetan positiboak lortuta. Bizikidetzak hautsita zegoela zirudienean, kimu berde batzuk azaleratzen hasi ziren, eta eragile askoren, herritarren edo lurraldeko erakundeen lanarekin eta dedikazioarekin, orain loraldia bizi dugula esan dezakegu. Bizikidetzak hori gaztea da oraindik, helduek eta sustraiak finkatzea falta zaio, baina haren hazkundera geldiezina da.

Azken urteotan bizikidetzan eman diren aurrerapen guztiak ez dira modu espontaneoan edo ustekabean gertatu; aitzitik, lan gogorra eta diskretua egin da, denboran jarraitua, profesionalek koordinatuta eta lagunduta. Lan hori, gehienetan, fokuetatik urrun egin da, eta parte hartu dutenen dedikazio eta konpromiso pertsonal handia eta eskuzabala izan da, mireste modukoa. Lerro hauen bidez, eskerrak eman nahi dizkiet guztiei, baita prozesu horietan parte hartu duten udal guztiei ere.

Aldundiak bultzatutako Bizikidetzak Lantzen programaren esparruan, Gipuzkoako bizikidetzarako udal foroan

bitartez, bakea behin betiko eta atzera bueltarik gabe sendotzen, gizarteari bizikidetzarako bidean laguntzen eta Gipuzkoako kultura demokratikoan sakontzen lagundu nahi izan dugu, gizartean giza eskubideen ezagutza eta errespetuaren kultura sustatuz.






Esperientzia hori Gipuzkoan bakarrik garatu da, eta ez da aurretik egindako antzeko beste ezein jardunbidetan inspiratu edo kopiatu. Izan ere, ez dugu munduan antzeko esperientziarik ezagutzen, hain denbora laburrean hain emaitza esanguratsuak eman dituenik.

Arazoi horiengatik guztiengatik, garrantzitsua iruditu zaigu dokumentu honetan Bizikidetzak Lantzen programaren hamar urteko ibilbidea sistematizatzea, gurearen antzeko arazoak edo errealitateak dituzten beste lurralde batzuetarako inspirazio edo eredu izan dadin. Era berean, azken hamar urteotan gure lurraldean egin dugun lan diskretu baina sakona ezagutzen saiatu gara.


Bizikidetzak Lantzen Gipuzkoan bizikidetzarako eta kultura demokratikoranzko ibilbide partekatuaren hasiera baino ez da. Guztion eguneroko lana eta konpromisoa eskatzen duen eta eskatuko duen bidea, baita etorkizunean ere. Gipuzkoa gizarte aurreratu eta errespetuzko gisa finka dadin, indarkeria eta giza eskubideen urraketak jasan dituztenen memoria gorde dezan, dituen arazoak eta eztabaidak modu baketsu eta demokratikoan bideratzen dakien lurraldea izan dadin. Gipuzkoako Aldundiak konprometituta jarraituko du ahalegin horretan, gainerako erakundeekin eta Gipuzkoako herritar guztiekin lankidetzan.

---

# Aurkibidea

	<b>1. SARRERA ETA METODOLOGIA</b>	<b>05</b>
	<b>2. MARKO KONTZEPTUALA</b>	<b>13</b>
	2.1 Kontzeptualizazioa	14
	2.2 Testuinguru zabala: indarkeria politikoa eta giza eskubideen urraketak	19
	2.3 Gipuzkoako Foru Aldundiaren bizikidetza politikaren bilakaera	29
	<b>3. PROGRAMAREN ANALISIA</b>	<b>37</b>
	3.1 Prozesuen kokapena	38
	3.2 Anlisisia	44
	<b>4. IRAKASPENAK ETA ETORKIZUNERAKO ERRONKAK</b>	<b>85</b>
	<b>5. BIBLIOGRAFIA ETA ITURRIAK</b>	<b>93</b>

---



# 1

## Sarrera eta metodologia

Bizikidetza demokratikoa, helburua. Partekatutako memoria baten eraketa, bidea. Eta oinarrian, giza eskubideen errespetua, giza eskubideen urraketa guztien aitortza eta guztien kritika morala, eta biktima guztien minen eta duintasunaren aitortza.



2022ko euskal gizartearen gehiengo zabal batek bat egiten du baieztapen honen koordinada nagusiekin. Baina honaino iristeko ibilbidea ez da erraza izan eta ez du balioko bidezidorrik eskaini. Euskal gizarteak indarkeria politikoak eragin dituen giza eskubideen urraketa ugari eta anitzak bizi izan ditu gertuko iraganean. Zauriak eta minak sakonekoak izan dira eta dira, gorrotoa eta arrangura ere izan dira gure gizartearen ezaugarri eta hausturak guzti honen erakusle.

Zauritutako eta hautsitako gizarteek bizikidetza (ber)eraikitzearen beharra izaten dute uneren batean eta euskal gizartea ez da honetan salbuespen bat. 2011ko urriaren 20an ETAK "jarduera armatua behin betiko amaitzen" zuela iragartzeak eta 2012ko ekainaren 20an Auzitegi Konstituzionalak Sortu alderdi politikoa legeztatzeak eszenatoki diferente bat eta aukera berriak eskaini zituzten bizikidetza demokratiko batek eskatzen dituen prozesu batzuk martxan jartzeko edo prozesu horiek behar dituzten baldintza batzuk errazteko. Honek ez du esan nahi, ordea, aurretik indarkeria politikoaren kontra, bakearen alde, edota biktimen aitortza lortzeko lanik egin ez denik edota ekimenik egon ez denik. Hauek gabe, nekez uler ditzakegu egungo egoera eta arlo honetan eman ditugun aurrera pausu asko. Azken hauen artean, bada guretzat azpimarragarria den bat, hautsitako bizikidetza berregiteko oinarritzat jotzen dugulako: elkarrizketa, eta hau gertatzeko beharrezkoa den "diferentea" denarekiko, urrun edota aurrean egon denarekiko errespetuzko "gerturatzea". Gerturatze hau ez da bat batean eta espontaneoki gertatzen den zerbait. Prozesu bat da, fase desberdinak ditu, baldintza, egoera eta jarrera batzuk behar ditu eta baldintza, egoera eta jarrera horiek sortu eta erraztuko dituzten pertsonak eta profesionalak behar ditu.

Elkarrizketa eta gerturatze prozesu honen lekuko argiak dira egin diren topaketa errestitatiboak baina baita bizikidetza demokratikoa eta bakearen kultura sustatzeko azken urteetan ezagutu ditugun hainbat ekimen ere, hala nola, eskoletan egin eta egiten diren programak, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua sortzeko ekimena, Eusko Jauriaritzak 2006az geroztik bizikidetzaren arloan egin dituen plan desberdinak, edota txosten honetan hizketa gai izango ditugun udal mailan azken hamarkadan egin diren eta egiten ari diren bizikidetza foro eta mahai desberdinak ere.

Baina, esan bezala, hau guztia ez da bat batean lortutako zerbait izan. Egin dezagun une batez denboran atzera, bi hamarkada atzera, gehiago ez: 2003ko urriaren 3a. Egun honetan Julio Medemek zuzenduriko "La pelota vasca: la piel contra la piedra" dokumentalaren estreinaldia gertatu zen. Dokumentalaren oinarrian, 2002ko maiatza eta uztaila bitartean egindako 70 elkarrizketa zeuden. Elkarrizketatuak, bizitza politikoko zein intelektualeko pertsona diferenteak izan ziren, baita ETAREN atentatuak edo mehatxuak jasandako biktimak, ETAKideren bat, edota hauen gurasoren bat ere. Zuzendariaren helburua bikoitza izan zen: indarkeria politikoa gaitzestea eta euskal gatazkaren inguruan elkarrizketa politikoari gonbita egitea. Helburu hau lortzeko, begirada anitzek osatutako fikziozko elkarrizketa bat sortu zuen (egia da, aniztasuna ez zela osoa izan Alderdi Popularreko kideek ez zutelako proiektuan parte hartu nahi izan). Estreinuak harrera ona izan zuen hasiera batean baina berehala polemika gogor batek inguratu zuen dokumentala (ekidistatziaren gainean), zuzendariak lortu

nahi zuen helburua zerbait itxuragabetuz. 2003an hautsak harrotu zituen ideologia diferentetako pertsonak ez espazio berean, ez mahai beraren inguruan, baizik eta aulki berean soilik eta filma batean bilduta ikusteak. Fikziozko elkarrizketa bat. Besterik ez zen izan. Duela hogeitun urte ez geunden, gizarte bezala, gehiagorako prestaturik.

Momentu hartan salbuespenezkoa izan zitekeena, eskandaluzkoa ere batzuetan, egiteko modu baten, metodologia baten oinarri bihurtu da azken urteetan: ahots diferenteek gai konplexu eta mingarrien inguruan elkarrekin hitz egitea (elkarrizketa) eta adostasunak bilatzea. Urtetan elkarri bizkarra emanda bizi izan garenok, espazio komun bat batera eraikitzen hasteko konpromezua hartu dugu. Eta espazio komun honen osaketan, "bestearen", "diferentearen" onarpena ezinbestekoa izan da. Abiapuntua ez da erraza izan, gatazkek sortzen duten aurkariaren deshumanizazioa bizi izan dugulako urteetan eta nork bere "trintxeratik" eraikitako diskurtsoak, jaurtizteko arma mingarriak izan direlako denbora luzean. Honek, funtsezko galdera batera eramaten gaitu: zein pauso eman ditugu edo ematen ari gara deshumanizaziotik humanizaziorako bidean? Zer egin bestea aitortzeko? Nola egin dugu "Pelota Vasca"ren kontakizun isolatu eta fikziozko elkarrizketatik espazio berean, mahai baten bueltan, urteetan aurrez aurre egondako pertsonak biltzeko? Galdera hauen erantzun batzuk, edota erantzunen elementu batzuk, udal mailan egin diren eta egiten ari diren bizikidetza foro eta mahai desberdinen prozesuetan aurki ditzakegu. Nagusiki, lau dira, gure iritzian, Gipuzkoako Foru Aldundiak babesturiko prozesu hauek gai honetan eta egiteko moduetan egin dituzten ekarpen nagusiak:

1. **Bakoitzak esan behar/nahi duena errespetuz entzungo den espazio bat osatzea.** Hitzegiteko, konfiantza eta askatasuna bermatuko dituen espazio bat osatzea eta gustuko ez duguna ere entzuteko errespetuzko baldintza batzuk sortzea. Honetarako, toki mailako espazioak egokiak dira.
2. **Espazio hau ez da espazio bat, bi dira.** Lehenengoa, ordezkari politikoen mahai deitua, udalean ordezkariak politikoa duten alderdien ordezkariak osatzen dute. Bigarrena, herritarren foroak izendatu dena, ibilbide edo konpromezu politiko edo publikoa izan duten pertsonak osatzen dute. Biek dute izaera politikoa baina helburuak diferenteak dira:
  - ◊ **Ordezkarri politikoen mahaiak**, bizikidetzaren inguruan ematen diren eguneroko gatazkek konpontzeko beste modu bat topatzea du helburu. Bizikidetzarekin zer ikusia duten gaiak eguneroko dinamiketatik atera eta elkarrizketa bitarteko harturik kontsentsuak beste modu batera eraikitze xedea du.
  - ◊ **Herritarren foroak**, aldiz, egunerokotik distantzia apur bat jarri eta epe luzeko begirada lantzea du helburu. Zuzenean ordezkariak politikorik ez duten pertsonak errazagoa dute besteen bizipenak eta kontakizunak entzun eta partekatzea; eta elkarrizketa honetatik abiatuz, bizikidetza demokratiko batetarako elementu batzuk adostea.
3. **Aniztasun ideologikoa bermatzen duten espazioak sortzea baina zubigile izan daitezkeen pertsonak identifikatuz.** Posizio dogmatikoetatik haratago, prozesu hauetan ikuspegi irekiarekin parte hartzeko prest egongo diren pertsonak bilatzea ezinbestekoa gertatu da.





4. **Dinamizazioa.** Prozesu eta espazio hauek sortu, garatu eta ixteko ere profesionalen beharra dagoela bistarazi da. Oinarrikoa da espazio hauek dinamizatzailerik edota erraztatzaile bat izatea. Prozesu eta gaietan aditu eta arituak diren pertsonak. Horrelako prozesuetan, emozioen kudeaketa eta gatazkak edota korapiloak askatzea inportantea da eta badaude horretarako dinamika eta lanketa bereziak. Hauek ezagutzen dituzten profesionalak beharrezkoak dira.

Azken urteetan, prozesu hauek izan duten bultzada eta garapen maila ulertzeko ezinbestekoa izan da erakundeen funtzioa eta laguntza. Baina hastapenak, horrelako prozesuetan ohikoa izaten den moduan, oso magmatikoak izan ziren. Donostia 2016ko Bakearen itsasargian jasota geratu zen bezala, ugariak izan ziren 2011 baino lehen bizikidetzaren gainean elkarte eta norbanakoen ekimen, lanketa eta ibilbide desberdinei esker gorpuzten joan ziren saiakerak; anitzak eta jarraikortasun maila diferentea oso izan dutenak, gainera. Udal batzuk ere, 2011 aurretik jarri zituzten martxan bere kabuz antzeko ekimenak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak ere Giza Eskubideen politiken oinarriak ezarri zituen 2003an hasi zen legegaldian Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko departamentua sortuz eta hurrengo legegaldian (2007-2011) Giza Eskubide, Berdintasun eta Lankidetzako Zuzendaritza Orokorra eratuz. 2011tik aurrera, Gipuzkoako Foru Aldundiak bizikidetzaren plan eta programa desberdinak modu sistematikoagoan bultzatu eta babestu ditu eta horien artean kokatzen ditugu udal mailan egin diren bizikidetzaren foro eta mahaiak bultzatzeko eta babesteko programak; txosten honetan hizketa gai eta aztergai ditugun prozesuak, hain zuzen ere.

Txosten honek, azken urteetan “Bizikidetzaren Lantzen: bake, bizikidetzaren eta giza eskubideen udal politikak sustatzeko foru programa”ren babespean landutako ekimen desberdinen elementu nagusiak aztertzea du xede, guztiei koherentzia diskurtsiboa emanez eta, bide batez, Gipuzkoako Foru Aldundiak udalekin eta erraztatzaile lanetan aritu diren Bakeola EDE Fundazioa, Baketik eta Berbari Lekuarekin batera eraikitako elkarbizitza eredu baliokorra jarritz.

Txostena, sarrera honi eta bibliografia eta iturriari eskainitako puntuez gain, **hiru atal nagusitan** egituratzen da:

1. **Marko Kontzeptuala:** atal honetan, bizikidetzaren gaineko kontzeptualizazioaz gain, euskal gizarteak iragan hurbilean indarkeria politikoak eragindako giza eskubideen urraketa anitzak gogorarazi dira eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren bizikidetzaren politikaren bilakaera aurkeztu da.
2. **“Bizikidetzaren Lantzen” programaren analisia:** atal honek, programa kokatzeaz gain, egindako analisia aurkeztea du helburu. Horretarako, metodologiari eta aldagai desberdinen analisiari tarte zabala eskaini zaie, prozesuek dituzten faseak aintzat hartuz, hala nola, hastapenak, talde dinamiken garapena eta itxiera fasea. Atal honetarako, ezinbestekoa izan da Bakeola EDE Fundazioa, Baketik eta Berbari Lekuak udal bakoitzean egindako lana eta hau laburbiltzen duen sistematizazio txostena. Prozesuetan parte hartutako eragileek elkarriketekin osatu da atala.

3. **Irakaspenak eta etorkizuneko erronkak:** izenburu honek dioen moduan, azken atalean prozesu hauek utzitako irakaspen eta etorkizuneko erronka nagusiak identifikatu eta jaso dira.

Metodologiari dagokionez, erabilitako lehen teknika analisi dokumentala izan da. Atal bakoitzak jasotzen dituen gai nagusien gaineko bibliografia kontsultatu da, baita Gipuzkoako Foru Aldundiak argitaraturiko planak, txostenak eta aurrekontuak ere. Honetaz gain, Bakeola EDE Fundazioa, Baketik eta Berbari Lekuak herrietako dinamiken gainean duten ezagutza ezinbestekoa izan da lan honetan. Hiru erakundeek herri bakoitzaren ibilbideak laburbiltzeko egin dituzten fitxak eta prozesu hauen sistematizazioa jasotzen duen txostena material garrantzitsua da lan honen bigarren atalerako.

Bigarren teknika, sakoneko elkarrizketak egin eta aztertzea izan da. Zehazki, sakoneko 25 elkarrizketa egin dira prozesu hauetan zuzenean parte hartu duten politikari, herritar eta biktimei (10 politikariri, 10 herritarrei eta 5 biktimei). Pluraltasuna eta ordezkagarritasuna aintzat hartu dira aukeraketa egiterakoan (Gipuzkoako herri desberdinak tamainan, kokapen geografikoan eta kolore politikoan; alderdi politiko desberdinetako kideak, alkateak eta zinegotziak, gobernuan eta oposizioan egondakoak; emakumeak eta gizonak).



**Taula 1:** Kodifikazio taula


KODEA	GENEROA	ROLA
H1	Emakumea	Herritarra
H2	Emakumea	Herritarra
H3	Emakumea	Herritarra
H4	Emakumea	Herritarra
H5	Emakumea	Herritarra
H6	Emakumea	Herritarra
H7	Gizona	Herritarra
H8	Gizona	Herritarra
H9	Emakumea	Herritarra
H10	Gizona	Herritarra
P1	Gizona	Alkatea
P2	Gizona	Alkatea
P3	Emakumea	Alkatea
P4	Emakumea	Alkatea
P5	Gizona	Zinegotzia
P6	Gizona	Zinegotzia
P7	Gizona	Zinegotzia
P8	Emakumea	Zinegotzia
P9	Emakumea	Zinegotzia
P10	Emakumea	Zinegotzia
B1	Emakumea	Biktima
B2	Gizona	Biktima
B3	Emakumea	Biktima
B4	Gizona	Biktima
B5	Emakumea	Biktima

Iturria: norberak egina

Azken teknika *focus group* edo eztabaida taldearena izan da. Bi eztabaida talde edo focus group egin dira, prozesuan garrantzia izan duten beste pertsona batzuekin. Lehenengo eztabaida taldea aditu eta erraztatzailerekin egin da eta bigarrena, Gipuzkoako Foru Aldundiko arduradun desberdinekin.

Hiru tekniken arteko triangulazioak izan du emaitza gisa aurkezten dugun txostena. Analisi dokumentalak prozesuak kokatzen eta aldagai nagusiak identifikatzen lagundu du. Sakoneko elkarrizketetatik eratorritako testigantzak, analisia testuinguruan jartzeko ezinbestekoak izan dira eta azken txostena osatu eta aberastu dute. Eztabaida taldeek, informazioa kontrastatzeko eta aurretik identifikatutako elementuen gainean informazio osagarria lortzeko balio handikoak izan dira.

## ANALISI DOKUMENTALA



SAKONEKO  
ELKARRIZKETAK

FOCUS  
GROUP



The background of the slide features a blue-tinted photograph of a modern building's interior or exterior. The structure is characterized by a series of parallel, curved glass panels that create a strong sense of depth and perspective. In the foreground, several people are shown in silhouette, engaged in conversation or looking towards the building. The overall atmosphere is professional and contemporary.

## **2. Marko kontzeptuala**





## 2.1 Kontzeptualizazioa

### Adiskidetzea eta Bizikidetzea

Azken hamarkadan asko hausnartu eta idatzi da bizikidetzea eta adiskidetzearen inguruan. Hamarkada batek ematen duen perspektibatik, kontzeptu baten inguruan eman den gogoeta eta eztabaidak, bestera eraman edo ekarri gaituela uler daiteke. XXI. mendearen hasieran, bakegintzaren arloko gizarte mugimenduek eta akademiak berak ere adiskidetzearen kontzeptua zerabilten elkarrizketa prozesuen helburu eta oinarri gisa. Hala izan da denbora luzean. Horren lekuko dira, adibidez eta askoren artean, Elkarrik 2006ean plazaratutako "adiskidetzarako dekalogo" edota, ildo beretik, Juan María Uriartek, Donostiako Gotzain Emerituak, 2011ean argitaraturiko "La reconciliación" liburua ere (Uriarte, 2011). Etxeberriaren hitzetan (2019: 77), adiskidetzea "lehendik zeuden eta hautsi egin ziren gizakien arteko harremanak berreskuratzea" da. Egondako harremanen hausturaren ideia azpimarratzen du autoreak bere analisisan. Hauxe da definizioaren erdigunean dagoena. Haustura honetatik (egon den zerbait, hautsi dena, berreskuratu nahi dena) interpretatu behar da lehen urte hauetan adiskidetzearen kontzeptuak izan duen zentralitatea, erabilera eta autore hauek esleitzen dioten esanahia.

Elkarbizitza edo bizikidetzea kontzeptuak, aldiz, badakar begirada aldaketa bat. Bizikidetzak oraina du oinarrian eta errespetoa kokatzen du bere definizioaren erdigunean. Iraganaren begirada kritikoa uko egin gabe, bizikidetzea egungo elkarrekintza eta harremanetatik abiatzen da, hauek eraikitzeak, "berreskurapenaren" ideia nolabait alboratuz. Gure iritziz, hau izan da, bereziki, azken hamarkadan gertatu den aldaketa kontzeptual nagusia, bai akademian, bai gizarte zibilean, eta baita erakunde mailan ere antzeman daitekeena. Hala erakusten dute, adibidez, Eusko Jaurlaritzak argitaraturiko Bizikidetzea eta Giza Eskubideen Plan desberdinek (*Bakea eta Bizikidetzea*, (2006); *Bizikidetzea demokratikoa eta indarkeriaren deslegitimazioa*, (2010); *Bakea eta Bizikidetzea Plana*, (2013); *Bizikidetzea eta Giza Eskubideen Plana*, (2017); edota *Bizikidetzea, Giza Eskubideen eta Aniztasunaren Plana*, (2021)) eta Gipuzkoako Foru Aldundiarenak diren Bizikidetzea Sustatzen / Lantzen programak ere, beste batzuen artean.

Hala ere, bai maila teorikoan eta bai erakunde mailan egin den bereizketa honek ez du isla zuzena hiritarrengan. Orokorrean, prozesu hauetan parte hartu duten elkarrizketatuen gehiengo zabal batek, bizikidetzea lehenesten du prozesu hauen helburu nagusi bezala. Adostasun handia dago bizikidetzea dela egun lortu behar den erronka baieztatzerakoan. Bizikidetzea, orainarekin eta errespetuarekin identifikatzen dute gehienek.

*Bizikidetzea da bi herritar edo herritar multzo bat errespetuz bizitzea (p6)*

*Bizikidetzea da gainerakoak pertsona berdina balira bezala errespetatzea, nahiz eta denok izan gure arteko desberdintasunak (p1)*

*Elkarbizitza, seguruenik, errespetua izango da. Niretzat elkarbizitza errespetatzea da, bakoitzak geure buruaren barruan gure ezberdintasunak eta ikuspuntuak, ideologiak... errespetatzea. Niretzat hori da bizikidetzea (p8)*

*Bizikidetzea derrigorrezkoa da; toleratzea, errespetatzea, ulertzea (h2)*

*Bizikidetzea elkarbizitza normalizatu bat edukitzea diferentziekin eta errespetuz (h9)*

*Bizikidetzea errespetua da, empatia, aurrean duzunaren lekuan jartzea (h10)*

*Niretzako zer dan bizikidetzea? Nire ustez, errespetua, ez? Berdinen arteko harremana eta, nire ustez, herri gisa ere guztiz funtsezkoa den gauza bat (b4)*

Adiskidetzea, berriz, prozesu pertsonal eta emozionalekin lotzen dute elkarrizketatuek. Elementu hauek konplexutasuna gehitzen diote kontzeptuari, horregatik prozesu hauetan parte hartu duten gehiengo zabal batek adiskidetzea zailagoa dela baieztatzeaz gain, une honetan hau ez dela lehenetsi behar pentsatzen dute.





*Adiskidetasuna da beste kontu bat, beste konpromiso pertsonalago bat eskatzen du. Ni bizikidetzarekin herri honetan me doy con un canto en los dientes (p9)*

*Hori konplikatua da. Bada, agian desberdintasunekin bizitzen ikas-  
tea, hau da, desberdintasunak bateratzea adiskidetzea da. Hau da, egia  
eta besteen sufrimendua aitortzea, gauzei buruz duzun ikuspegiari uko  
egin gabe (p8)*

*Adiskidetzarako badaude beste elementu batzuk psikologikoagoak dire-  
nak... zerbait emozionalagoa da. Nik ez dut adiskide berri gehiago nahi  
(h2)*

*Adiskidetzea zailagoa da, niretzat, elkarrizketa da (h7)*

*Bizikidetzea da indartu behar dena. Adiskidetzea ez zait funtsezkoa irudit-  
zen (h8)*


*Ez dut askorik sinesten adiskidetzeari. Nik ez dut zertan zure laguna izan  
behar, baina beno, pertsona bezala aitortzen zaitut, errespetatu egiten  
zaitut. Adiskideak aukeratu egiten dira eta adiskide gutxi ditugu (h9)*

*Adiskidetzea galera gainditzea da (h10)*

*Adiskidetzea oso osasuntsua da baina bi aldeek nahi izan behar dute...  
Adiskidetzea zailagoa da orokorrean (b1)*

*Adiskidetzea gertuagoko harreman bat eta igual, momentu honetan,  
zailago izango dena... baina gauza batek bestera eramanez (b5)*

Bizikidetzea da, beraz, orain indartsuago agertzen den eta gailentzen ari den kontzeptua eta hiritar askorentzat elkarrizketa prozesuen helburua dena. Adiskidetzeak, kasu hobereanean, epe luzeagorako lana eskatzen du eta, jakin badakigu, gaur egun luzerako plangintza egiteak berak dituen zailtasun guztiak (Innerarity, 2020).



## «Egiteko moduak»

Bizikidetzak, beraz, bi elementu jartzen ditu erdigunean: errespetoa eta elkarrizketa. Batak zein besteak lotura estua dute "bestearekiko" dugun edota izan behar dugun jarrerarekin. Horrela jasotzen da kontzeptu honen inguruko eztabaidatan eta hala jasotzen da, era berean, prozesuak definitzeko erabilietako iturri metodologikoetan. Hauek, errespetoa eta elkarrizketa erdigunean kokatzeaz gain, beste bost elementu nagusi identifikatzen dituzte bizikidetzea prozesuetan oinarritzeko gisa:

1. **Elkarrekintzak.** Autore gehienek, Lederach-en lanak (1998) aintzat hartuz, pertsonen arteko elkarrekintzek, bestearekiko begirada bideratzean eta espazio sinboliko baten eraikitzean duten garrantzia azpimarratzen dute. Berger eta Luckman-ek aspaldi adierazi bezala (1967), errealitatearen izaera sinbolikoa elkarrekintzen bitartez adierazi eta erakusten da modu konkretuan. Pertsona desberdinen arteko ezagutzak eta hau posible egiteko dinamikak prozesu hauetan ezinbestekoak direla bistarazi da.
2. **Elkarrizketa.** Adostasun gehien sortzen duen kontzeptua da hau eta autore guztiek azpimarratzen dute bere zentralitatea eta artikulatzeko beharra. Galtung-ek (1998) formulatutako teorian, elkarrizketa eraikitzeo prozesuak dira oinarri eta gakoa. Bide beretik doa, baita ere, Pacho De Roux jesuita kolonbiarra, Kolonbiako Egiaren Batzordeko burua, egitarako bidea eta gatazken irtenbidea elkarrizketan oinarritzen dela baieztatzen duenean.
3. **Iraganaren begirada kritikoa.** Oraina eta bereziki etorkizuneko bizikidetzea demokratikoa eraikitzeo ezinbestekotzat jotzen da iraganari kritikoki eta autokritikoki begiratzea. Begirada honek, giza eskubideen urraketa oro zerrendatzea eskatzen du; ez "guretzako" mingarriak izan diren urraketak soilik, baizik eta "besteentzat" mingarriak direnak ere (Uriarte, 2011). Begirada kritiko, autokritiko eta etiko honetatik abiatuz, biktima diren guztien protagonismoa eta zentralitatea azpimarratzen da era berean (Saez de la Fuente & Bilbao, 2018).
4. **Espazioa.** Autore gehienek toki mailaren egokitasuna nabarmentzen dute pertsonen arteko harremanak eta elkarrekintzak lantzeko eta garatzeko espazio gisa. Gune hauetan eraikitzen dira konfiantzazko eta errespetuzko harremanak. Hala diote, besteak beste, Alzate eta Mínguezek (Alzate, Fernández, & Merino, 2013; Mínguez-alcaide, 2014) toki mailaren aukerak azpimarratzen dituztenean eta ildo honetatik zerbitzu publiko bat sortzea ere proposatzen dutenean. Hala diote, era berean, Argituz-ek argitaraturiko txostenek ere (Argituz, 2012, 2015). Eta hala dio, modu argi eta zehatz batean ere, Carlos Martín Beristainek, bere lanetan espazio honen aukerak azpimarratzen dituztenean (Martín Beristain & Páez Rovira, 2000).
5. **Oinarritzeko balioak.** Prozesu hauen markoa irudikatzen duten balioak komunak dira. Giza Eskubideen errespetua eta pertsonaren duintasuna, urrun edota aurrean egon direnen aitortza, pluraltasunaren onarpena eta biktima guztien aitortza dira partekatutako balioak.



Txosten honetan hizketa gai ditugun prozesuek egiteko modu hauek izan dituzte oinarrian. Batzuk eta besteek, teknika diferenteak erabilia, printzipio eta balio komun hauetatik edan dute: errespetua, elkarrekintzak, elkarrizketa, iraganaren begirada kritikoa, espazioaren garrantzia eta oinarritzko balioen definizioa.

Egiteko modu hau, era berean, bat dator gobernantza ulertzeko modu zehatz batekin: partekatutako gobernantzarekin, hain zuzen ere, hau da, erakunde publikoen eta beste aktoreen arteko elkarlana aintzat hartzen duen eredu batekin. Gobernantza partekatuak egiteko modu berri bat ekartzen du, lidergo partekatua eta elkarlana ekintza publikoaren erdigunean jartzen dituen modu bat (Barandiaran, 2018). Txosten honetan hizketa gai ditugun bizikidetzako prozesu hauek gobernantza ulertzeko modu honekin ere bat egiten dute. Batetik, lidergo partekatuaren erakusle dira (Gipuzkoako Foru Aldundia eta Udalak maila publikoan eta Bakegintzako elkarte desberdinak, hiritarrak... maila pribatuan). Bestetik, gatazka desberdinen irtenbideak elkarrizketaren bidez eta adostasunetara iritsiz lortzeko bideak, politika ulertzeko eta politikak definitzeko modu berriak edota desberdinak esperimentatzera daramatza bai aktoreak eta baita hauek eragiten duten espazio eta herriak ere. Modu honetara, toki mailan garatutako entzute eta errespetuzko prozesuek, bizikidetzako demokratikoa lantzeko eskola onak direla erakusten ari dira (Font, 2006) eta laborategi bikaina izan daitezke politika publiko berritzaileen inplementaziorako.



Donostiako Herritarren Foroa - Adrian Cores (argazkia)

## 2.2 Testuinguru zabala: indarkeria politikoa eta giza eskubideen urraketak

### Has gaitzen datu batzuekin:

Indarkeria politikoa eta giza eskubideen urraketa larriak izan dira euskal gizartearen iragan hurbilaren ezaugarriak. Azken 50 urteetako Euskadiren argazkiak oinazea eta sufrimendua erakusten dizkigu eta horrek baldintzatu du euskaldunen hainbat belaunaldiren egunez egunekoa.

Zenbakiak, beti hotzak badira ere, errealitate gordin horren dimentsioa ulertzen laguntzen digute. Eman ditzagun batzuk: 1960tik 2011/13ra<sup>1</sup>, Euskadi eta Askatasunak (ETA, bi adarrak barne hartuta: adar politiko militarra eta adar militarra), Komando Autonomo Antikapitalistek (KAA), Askapenerako Direktorio Iraultzaile Iberiarrak (DRIL-Directorio Revolucionario Ibérico de Liberación), Iparretarrak eta Iraultza talde armatuek 837 pertsona hil zituzten eta 2.365 eta 2.600 pertsona artean zauritu zituzten atentatuetan eta bahiketetan; Estatuko Segurtasun Indarrek 94 pertsona hil zituzten eta 746 zauritu; eta erakunde parapolizialek eta eskuin muturrekoek 73 pertsona hil zituzten eta 426 zauritu. Zenbaki hori horietan ez dira sartzen ez gehiago ikertu behar diren gertakariak (201 kasu dira eta 77 pertsona hil dira haietan), ez estortsio ekonomikoa jasan duten milaka pertsonen ondasunen kontrako atentatuak<sup>2</sup>; ezta tortura kasu guztiak ere, kasu batzuetan datuak ez baitira nahikoak edo ez baitaude behar bezala egiaztatuta. Gaur egun, poliziako funtzionario publikoen eskuetan tratu txarrak eta torturak jaso izanaren 4.113 salaketa publiko eta/edo judizial daude jasota. Salatzaileen % 17k behin baino gehiagotan salatu ditu torturak, beraz, guztira, 3.145 pertsonak salatu dituzte torturak. Hogei kasu izan dute Auzitegi Gorenaren kondena epai irmoa, ez gehiagok. Horietatik bederatzita epai Espainiako Polizia Nazionalaren kontrakoak izan dira eta hamaika, Guardia Zibilaren kontrakoak. Guztiak 1979 eta 1992 artekoak. Berrogeita bederatzita funtzionariok izan dute kondenaren bat inkomunikazio erregimenean zeuden hogeita hamaika pertsonaren kontra egindako zerbaitengatik. Giza eskubideen nazioarteko erakundeen iritziz, Espainian tortura erabiltea ohikoa

<sup>1</sup> 1960-2011/13 aldia gure iragan hurbilean giza eskubideen urraketan inguruko txostenek zehazten duten tarte kronologikoa da. Horrek ez du esan nahi, nolana ere, 1960aren aurretik giza eskubideen urraketarik egon ez zenik edo 2013tik aurrera urraketa horiek guztiz desagertu zirenik. Aipatutako txostenak, eta eman ditugun datuak eskuratzeko erreferentzia direnak, hauek dira: "Euskal kasuan gertaturiko giza eskubideen urraketari buruzko oinarritzko txostena (1960-2013)", Manuela Carmenak, Jon Mirena Landak, Ramón Múgica eta Juan María Uriartek egina, Eusko Jaurlaritzako Bakegintza eta Bizikidetzako Idazkaritza Nagusiak eskatuta (Carmena, Landa, Múgica, & Uriarte, 2013); "Informe Foronda: los contextos históricos del terrorismo en el País Vasco y la consideración social de sus víctimas, 1968-2020", Raúl López Romo eta Euskal Herriko Unibertsitateko Valentín de Foronda Gizarte Historiarako Institutuak egina, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak eskatuta (Lopez Romo, 2014) eta "Euskadin 1960 eta 2014 artean gertatutako tortura eta tratu txarrak ikertzeko proiektua", Francisco Etxeberria, Carlos Martín Beristain eta Laura Pegok egina, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Bizikidetzako eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak eskatuta (F. Etxeberria, Martín Beristain, & Pego, 2017).

<sup>2</sup> Enpresa arloko estortsioari buruzko datuetarako, ikus (Saez de la Fuente, 2017).





izan zen 1980ko hamarkadan, eta "noizbehinkakoa baino gehiago" izan zen ondoren ere, beraz, kopuru horiek kasuen benetako dimentsioaren oso azpitik gelditzen dira. Horrela adierazten dute gai honen inguruan egiten ari diren ikerketa eta argitaratzen ari diren txostenek<sup>3</sup>.

Aipatutako kopuruak bi aldi handitan banatzen baditugu, lehenengo aldia Francoren diktaduraren azken hamabost urteak eta demokraziarako trantsizio politikoaren hasiera izanik (1960-1978) eta bigarrena, berriz, Konstituzioa (1978an) eta Gernikako Autonomia Estatutua onartu zirenetik aurrerakoa (1979-2011), ikusi ahal izango dugu lehen etapana 132 pertsona hil zituztela eta 255 pertsona zauritu Euskadi eta Askatasunak (ETA, bi adarrak barne hartuta, politiko militarra eta militarra), Komando Autonomo Antikapitalistek (KAA), Askapenerako Direktorio Iraultzaile Iberiarrak (DRIL), Iparretarrak eta Iraultza taldeek; 1979-2013 aldian, berriz, 705 pertsona hil zituzten eta 2.083 zauritu aipatutako taldeek egindako atentatu, bahiketa eta bestelako ekintzetan. Estatuko Segurtasun Indarrek 56 pertsona hil zituzten eta 465 zauritu 1960 eta 1978 urteen artean; 1979 eta 2013 urteen artean, 38 pertsona hil eta 281 zauritu zituzten kontroletan, manifestazioetan edo poliziaren zaintzapean zeudela. Erakunde parapolizialek eta eskuin muturrekoek 9 pertsona hil zituzten eta 134 zauritu 1960 eta 1978 urteen artean; eta 64 pertsona hil zituzten eta 292 zauritu, 1979 eta 2013 urteen artean.

Zenbaki horiek aurrean izanik, ikus dezakegu ETak eta talde parapolizial eta eskuin muturrekoek egindako giza eskubideen urraketek gora egin zutela 1979-2013 urteen artean, lehenengo kasuan, oso nabarmen. Aitzitik, Estatuko Segurtasun Indarrek egindako giza eskubideen urraketek behera egin zuten bigarren aldian, 1979tik 2011ra, nahiz eta baieztapen hori kontu handiz hartu behar den, dagoeneko esan dugun bezala, torturen inguruko datuak ahulak eta osatu gabeak direlako.



<sup>3</sup> Berriki argitaratu da Nafarroan 1979tik 2015era arte izandako tortura kasuak jasotzen dituen txostena, Kriminologiaren Euskal Institutuak egina (KREI, 2023).

## Datuen testuingurua lau alditan:

### 1960-1978

Francoren diktaduraren azken hamarkada eta demokraziarako trantsizioaren lehen pausoak hartzen ditu barne.

### 1979-1982

"Berunezko urteak" izenez ere ezagutzen da garai hau. Demokrazia erakundetzeko hasierako urteak dira eta, dakigunez, "ustekaberik" ere izan zen, besteak beste, 1981eko otsailaren 23ko estatu kolpearen ahalegina. Demokrazia ez da oraindik askorik garatu eta diktaduraren itzalak luzea izaten jarraitzen du.

### 1983-1994

"Gerra zikinaren" urteak izan ziren. Urte horietan Alderdi Sozialista izan zen Espainiako gobernua, Felipe González buru zela (1982-1996). Euskal Autonomi Erkidegoan, berriz, Euzko Alderdi Jeltzaleak osatu zuen gobernua eta 1985az geroztik, José Antonio Ardanza izan zen lehendakaria (1985-1999).

### 1995-2011

Urte horietan, ETak jarraitu zuen izaten atentatu eta giza eskubideen urraketa gehien arduradun. PPko eta PSE-PSOEko hautetsiak izan ziren, nagusiki, talde armatuaren "helburu".

"Lizarra-Garaziko" akordioaren (1998) eta "Askatasunen aldeko eta terrorismoaren aurkako itunaren" (Terrorismoaren kontrako Hitzarmena, 2000) urteak ere izan ziren hauek.

PPk eta PSOEk 2000. urtean sinatu zuten terrorismoaren kontrako Itunaren ondorio izan zen "Alderdien Legea".

ETak "jarduera armatua etengo" zuela iragartzeak (2011ko urrian) eta Konstituzio Auzitegiak Sortu legeztatzeak (2012ko ekaina) ekimen berriei bidea erraztu zien.





## 1960-1978

Francoren diktaduraren azken hamarkada eta demokraziarako trantsizioaren lehen pausoak hartzen ditu barne. Ekonomiaren esparruan, “desarrollismoaren” urteak izan ziren, baina, politikari dagokionez, diktadurak bere funtsari eutsi zion. Nahikoa da gogoratzea 1956 eta 1975 urteen artean hamaika salbuespen egoera ezarri zirela Espainian; horietatik sei Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarako soilik eta bi, 1968koa eta 1970ekoa, Gipuzkoako lurralderako baino ez. Gipuzkoan 1968an ezarri zen salbuespen egoerak iraun zuen bitartean, 279 errepresaliatu izan ziren guztira: 56 pertsona deserriratu egin zituzten, 107 pertsona Ordena Publikoko Auzitegiak prozesatu zituen, eta gutxienez, 21 kondenatu zituzten gerra kontseiluetan; 79 pertsonak salatu zuten Gipuzkoan torturak edo tratu txarrak jasan zituztela 1968an eta horietatik 47 salbuespen egoera ezarri ondoren atxilotutakoak ziren. Salbuespen egoerak eguneroko bihurtu zituen etxeetako erregistroak, atxiloketa ugariak, deserriratzeak, torturak eta frankismoaren kontra agertzen zen edonoren aurkako errepresioa. Erregimenaren kontrako jarrerak, etapa honetan, krisi sakona bizi izan zuen, baita erbestearen eta herrialdearen arteko tentsio handiak ere. Horrek ekarri zuen alderdi “historikoen” (Espainiako Alderdi Sozialista, Espainiako Alderdi Komunista eta Euzko Alderdi Jeltzalea) berritu eta belaunaldi aldaketa egitea edo erakunde berriak sortzea, horien artean, ETA (1959). Hain zuzen ere, ETAk 1968an egin zuen lehen aldiz hildako bat eragin zuen atentatua<sup>4</sup>. 1973an, ETAk gobernu frankistaren presidentea hil zuen, Luis Carrero Blanco, eta hurrengo urtean, Madrilgo Rolando kafetegiaren kontrako atentatua egin zuen: guztira 13 pertsona hil ziren bertan. Horixe izan zen, gainera, ETA bi adarretan banatzeko “azken bultzada”: ETA(m) eta ETA(pm).

Lehenengo garai honen barruan sartzen da, halaber, Burgosko Prozesua, 1970eko abenduaren 3an ETako hamasei kideren kontra hasi zen gerra kontseilua, hiru pertsona hiltzea leporatuta. Herritarren mobilizazioari eta kontseiluaren erabakiaren kontrako nazioarteko presioari esker, sei auzipeturi ezarritako heriotza zigorrak ez ziren gauzatu eta, horien orde, kartzela zigorrak izan zituzten. Franco hil baino bi hilabete lehenago egin ziren frankismoaren diktadurako azken exekuzioak. 1975eko irailaren 27an fusilatu zituzten FRAPeko hiru kide (Fronte Iraultzaile Antifaxista eta Patriotikoa), José Humberto Baena, José Luis Sánchez Bravo eta Ramón García Sanz, eta ETA(pm)-ko bi kide, Juan Paredes Manot (Txiki) eta Ángel Otaegui. Exekuzioei erantzun tinkoa eman zieten hainbat erakundek eta herritarrek mobilizazio handiak egin zituzten bai Espainian eta bai herrialdetik kanpo.

Diktadorea 1975eko azaroaren 20an hil zen eta bi egun geroago, Juan Carlos I.a Espainiako errege bihurtu zen. Diktadoreak berak izendatu zuen errege izateko bere ondorengo, 1969an. 1976an, Carlos Arias Navarro Gobernuak presidentea kargua utzi zuen, Francoren erregimenaren pean hautatutako gorteen erreforma politikorako proposatu zuen planari ezezkia eman ziotenean. Orduan, Erregeak Adolfo Suárez González izendatu zuen Gobernuak presidentea. Gorteen, Francoren garaioak artean, Erreforma Politikorako Legea onartu zuten 1976ko azaroan, eta urte bereko abenduaren 15ean berretsitu zuten. 1977an egin ziren lehen hauteskunde orokorrak, 40

<sup>4</sup> ETAk José Pardines guardia zibila hil zuen, ohiko kontrol batean. Egun berean, guardia zibilak Txabi Etxebarrieta ETako kidea hil zuen.

urte baino gehiagoko diktaduraren ostean. Urte horretako urrian sartu zen indarrean Amnistiaren Legea eta 1978ko abenduan onartu zen, erreferendum bidez, Espainiako Konstituzioa.

## 1979-1982

“Berunezko urteak” izenez ere ezagutzen da garai hau. Demokrazia erakundetzeko hasierako urteak dira eta, dakigunez, “ustekaberik” ere izan zen, besteak beste, 1981eko otsailaren 23ko estatu kolpearen ahalegina. Demokrazia ez da oraindik askorik garatu eta diktaduraren itzalak luzea izaten jarraitzen du. Unión de Centro Democrático (UCD) alderdiak hartu zuen gobernuaren ardura, lehenengo Adolfo Suárez presidente zela (1977-1981) eta, ondoren, Leopoldo Calvo Sotelo (1981-1981). Euskal autogobernuak lehen urratsak egin zituen: 1979ko urrian, Gernikako Estatutua onartu zen eta 1980ko martxoan, Eusko Legebiltzarreko lehen hauteskundeak izan ziren. Alderdi jeltzaleak hartu zuen gobernu osatzeko ardura eta lehenengo Jaurilaritzako burua Carlos Garaikoetxea lehendakaria izan zen (1980-1984)<sup>5</sup>.

ETaren biktimak, nagusiki, Estatuko Segurtasun Indarretako kideak izan ziren. Baina UDC eta AP (Alianza Popular) alderdietako politikariak ere erail zituzten. Gainera, zenbait enpresaburu bahitu eta erail zituzten. Eskuin muturreko taldeek eta Estatuko Segurtasun Indarrek eragindako biktimak, nagusiki, ETako militanteak ziren, baina zibil batzuk ere izan ziren tartean, esate baterako, Herri Batasunako Donostiako zinegotzi bat.

Demokrazia erakundetzeko lehen urte horietan, ETak babes zabala zuen euskal gizartearen; babes hori, segur aski, ez da bereizi erakundeak oraindik ere sinbolizatzen zuen “frankismoaren kontrako borroka”tik. Babesa argi eta modu esplizituan ikusten zen espazio publikoan. Estatuko Segurtasun Indarrek eragindako biktimek sistematikoki babesa izan zuten euskal espazio publikoan, manifestazioetan, greba orokorretan edo hiletetan. Aitzitik, Estatuko Segurtasun Indarrek ez zuten babes hori jaso, ziur aski, oraindik ere oso hurbil zegoelako “diktaduraren oroimena”. Polizien edo militarren hilketek ez zuten hainbeste pertsona eraman Euskadin mobilizazioetara<sup>6</sup>.

<sup>5</sup> Carlos Garaikoetxea izen zen lehenengo Eusko Jaurilaritzako (1980-1984) eta bigarren legealdia hasierako Jaurilaritzako burua (1984-1987), baina 1985eko martxoaren 2an utzi zion lehendakari izateari.

<sup>6</sup> Raúl López Romo edo Irene Moreno Bibilonik kuantifikatu dute euskal gizarteak indarkeriaren aurrean izan zuen erantzuna urte hauetan. Biek adierazten dute euskal gizarteak indarkeria politikoren aurrean izan zuen erantzuna oso desberdina izan zela. Hala, eskuin muturreko taldeek, talde parapolizialek edo Estatuko Segurtasun Indarrek eragindako atentatuen % 100ek euskal gizartearen mobilizazioak eragin zituen, baina ETAk(m) eragindako atentatuen % 14,28k izan zuten gizartearen erantzuna eta ETA(pm)-k eragindako atentatuen % 20k. Datuok 1980koak dira, baina 1979-1983 etapa osora zabaldu daitezke. Ikus R. López, aipatutako lana, 36-53 orr. eta I. Moreno, “Respuesta social ante la violencia terrorista en el País Vasco: con pies de plomo”, honako lanean: G. Fernández eta M. Jiménez (koord.), 1980: el terrorismo contra la Transición, Tecnos, Madrid, 2020, 255-273 orr.





## 1983-1994

“Gerra zikinaren” urteak izan ziren. Urte horietan Alderdi Sozialista izan zen Espainiako gobernuan, Felipe González buru zela (1982-1996). Euskal Autonomi Erkidegoan, berriz, Euzko Alderdi Jeltzaleak osatu zuen gobernu eta 1985az geroztik, José Antonio Ardanza izan zen lehendakaria (1985-1999).

Eskuin muturreko terrorismoa eta terrorismo parapoliziala sigla berri batzuen pean berregituratu ziren, Askapenerako Talde Antiterroristak (GAL-Grupos Antiterroristas de Liberación). 1983 eta 1987 artean egin zituzten ekintzak. José Antonio Lasa eta José Ignacio Zabala (1983); Santiago Brouard, Herri Batasunako mahai nazionalako kidea (1984); edo Juan Carlos García Goena (1987) dira biktima ezagunenetako batzuk. GALeko arduradunen artean Alderdi Sozialistako buru ezagunak eta Estatuko Segurtasun Indarretako kideak egon ziren. Gogoratzekoa da, halaber, Mikel Zabalzaren tortura kasu ezaguna, Bidasoa ibaian hilik aurkitu zuten, 1985eko abenduan. Eta Madrilgo Alcalá Hoteleko atentatua, 1989ko azaroan, eskuin muturrari egotzi zitzaiona. Atentatu horretan hil zuten Josu Muguruza Herri Batasunako diputatua Espainiako Kongresuan eta larriki zauritu zuten Iñaki Esnaola, hura ere Herri Batasunako diputatua.

Komando Autonomo Antikapitalistek Enrique Casas, Alderdi Sozialistako arduraduna, hil zuten 1984an. ETA izan zen, hala ere, urte haietako atentatu eta giza eskubideen urraketan ekintza gehien egilea. Horietako batzuk baino ez ditugu gogoratuko: Madrilgo República Dominicana plazako bonba autoa (1986), hamabi guardia zibil hil zituena; María Dolores González Catarain, Yoyesen hilketa (Ordizia, 1986); Hiperorreko bonba autoa (Bartzelona), 21 pertsona hil zituena eta 45 zauritu (Bartzelona, 1987); eta Zaragozako Kuartel Etxeko atentatua, 11 pertsona hil eta 88 zauritu utzi zituena. ETAK, gainera, hainbat enpresaburu denbora luzez bahituta eduki zituen, horien artean, Emiliano Revilla (1988, 249 egun) eta Julio Iglesias Zamora (1993, 116 egun).

Jarduera politiko eta tentsio biziko urteak izan ziren: 1989ko urtarriletik apirilera, “Aljerreko elkarrizketa” ezagunak izan ziren, Espainiako Gobernuaren eta ETAREN artean. Ez zuten, ordea, emaitza onik izan. Urte horietan, Frantziarekin terrorismoaren kontrako gaietan zegoen lankidetzak estutu zen eta lankidetzak horri esker, ETAKo arduradun nagusiak atxilotu zituzten Bidarten, 1992an. 1989an hasi zen ETAKo presioen dispersio politika; eta 1988tik aurrera eman zitzaion hasiera terrorismoaren biktimen aldeko legegintza jarduerari. Urte horietan sortu ziren bakearen aldeko elkarteak, gizarte zibila indarkeriaren kontrako mugimenduetan egituratzeko ekimen esanguratsuenaren protagonistak (Gesto por la Paz 1985ean, Denon Artean 1991n, Bakea Orain 1991n, Elkarri 1992an).

Espazio publikoan nagusi ziren, artean, ETAREN eta borroka armatuaren aldeko manifestazioak eta adierazpen publikoak. Egile batzuek “bitarteko” etapatzat hartzen dituzte urte hauek, Trantsizioaren hasierako urteetan espazio publikoan ETAREN aldeko aldarriaren monopolioaren eta hurrengo urteetako kontrako jarrera orokor eta agerikoaren artean baitaude<sup>7</sup>.

<sup>7</sup> R. López. aipatutako lana, 64-75. or.

## 1995-2011

Etapa honetan, lehenengo Alderdi Popularra (PP) izan zen Espainiako Gobernuan eta José María Aznar izan zen presidente (1996-2004). Ondoren, Alderdi Sozialistak hartu zuen Gobernuko ardura, José Luis Rodríguez Zapatero buru zela (2004-2011). Euskal Autonomia Erkidegoan EAJ izan zen gobernuan, José Antonio Ardanza (1995-1999) eta Juan José Ibarretxe (1999-2009) lehendakari izanik. Ondoren, PSE-PSOE izan zen gobernuan, Patxi Lopez lehendakari zela (2009-2012).

Urte horietan, ETAK jarraitu zuen izaten atentatu eta giza eskubideen urraketa gehien arduradun. PPko eta PSE-PSOeko hautetsiak izan ziren, nagusiki, talde armatuaren “helburu”. Biktimen kopurua izugarria da. Horietako batzuk gogoratuko ditugu hemen: Gregorio Ordoñez Donostiako alkateorde eta Alderdi Popularreko legebiltzarkidearen hilketa (1995); Francisco Tomás y Valiente irakasle, magistratu eta Konstituzio Auzitegiko presidentearen hilketa (1996); Fernando Múgica Alderdi Sozialistako buruaren hilketa (1996); Miguel Ángel Blanco Alderdi Popularreko Ermuko udaleko zinegotziaren bahiketa eta hilketa (1997). 1998an beste hainbat politikari hil zituen ETAK: Manuel Zamarrero, Errenteriako Alderdi Popularreko zinegotzia, 1997an hil zuten José Luis Caso zinegotzia udalean ordeztu zuena; José Ignacio Iruretagoyena, Zarauzko Alderdi Popularreko zinegotzia; Alberto Jiménez Becerril eta emaztea, Sevillako Alderdi Popularreko politikaria; eta Tomás Caballero, Iruñeko Udaleko Unión del Pueblo Navarro (UPN) alderdiko zinegotzia. 2000. urtean, ETAK Jesús María Pedrosa hil zuen, Durangoko Alderdi Popularreko zinegotzia; Manuel Indiano, Zumarragako Alderdi Popularreko zinegotzia; José María Carpena, Malagako Alderdi Popularreko zinegotzia; José Luis Casado, Bartzelonako probintziako udalerririk bateko Alderdi Popularreko zinegotzia; eta Francisco Cano, Viladecavalls udalerririk Alderdi Popularreko zinegotzia. Urte horretan bertan, ETAK Fernando Buesa lehendakariorde eta Arabako sozialisten idazkari nagusia eta Jorge Diez bere bizkartzaina hil zituen; Juan María Jauregui Gipuzkoako gobernadore zibil ohia eta Alderdi Sozialistako militantea; Ernest Lluch Osasun ministro ohia eta Alderdi Sozialistako militantea; eta José Luis López de Lacalle kazetaria eta Ermuko Foroaren sortzailea. 2001ean, ETAK Froilán Elespe hil zuen, Lasarte-Oriako alkateorde sozialista; Manuel Ginémez Abad, Alderdi Popularraren Aragoiko presidentea; eta José Javier Múgica, UPNko Leitzako zinegotzia. Hurrengo urtean, 2002an, ETAK Juan Priede hil zuen, Orioko Alderdi Sozialistako zinegotzia; 2003an, Joseba Pagazaurtundua, Andoaingo udaltzainburua; eta 2008an, Isaías Carrasco, Arrasateko Alderdi Sozialistako zinegotzia. Gainera, etapa honetan, ETAK hainbat enpresaburu hil zituen, horien artean, Isidro Usabiaga (1996), José María Korta (2000) eta Inaxio Uria (2008). Bi bahiketa luze ere egin zituen, José María Aldaia enpresaburuarena (1995, 341 egun) eta José Antonio Ortega Lara kartzelako funtzionarioarena (1996, 532 egun).

ETAK bere “helburu” zituenak hautatzeko “aldaketa” estrategiko horren oinarrian Herri Batasunaren Oldartzen ponentzia zegoen. Estrategia berria, “sufrimendua gizarteratzea” izenez ezagutua (nahiz eta Oldartzenen ez den horrela azaltzen) erresistentziaz erasora igarotzean zetzan, esparru guztietan: hezkuntzan, hizkuntzan, kulturean, hedabideetan. Ponentzia hori indarkeriaren erabileraren legitimazioaren adibide onenetako bat da eta denboran ETAREN “Alternatiba Demokratikoa” deitutako proposamenarekin





bat dator (1995). Proposamena 1996ko martxoaren 3ko hauteskunde orokorretan Herri Batasunari telebistan dohainik esleitu zitzaion hauteskunde propagandarako espazioan emateko saiaketak ekarri zuen Herri Batasunako Mahai Nazionala kartzelaztea, banda armatuarekin lankidetzan aritzea leporatuta.

“Lizarra-Garaziko” akordioaren (1998) eta “Askatasunen aldeko eta terrorismoaren aurkako itunaren” (Terrorismoaren kontrako Hitzarmena, 2000) urteak ere izan ziren hauek. Hitzarmen horiekin hautsi zen “demokratak-biolentoak” ardatza, “Ajuria-Eneako Itunetik” (1988) indarrean zegoena, eta “nazionalistak-konstituzionalistak” ardatzak ordezkatu zuen. Horrek ondorioak izan zituen erakundeen gobernagarritasunean. Lizarra-Garaziko Akordioa sinatu ondoren, ETAK su etena iragarri zuen (1998) eta Euskal Autonomia Erkidegoan 1998an izandako hauteskundeen ondoren, Akordioa sinatu zuten alderdiek 755.000 boto eskuratuta, lehendakari bat, Juan José Ibarretxe, Euskal Herritarroekin sinatutako akordioari esker hautatu zuten Erkidegoko buru, lehen aldiz. Aurrerago, ETAK su etena hautsi zuen eta alderdi abertzaleei (EAJri eta EAri) leporatu zien ez zutela nahikoa egin akordioan jasotako helburuak lortzeko. 2000. urtean, talde armatuak Fernando Buesa hil zuenean, lehendakariak Euskal Herritarroekin zuen legealdiko akordioa bertan behera utzi zuen.

PPk eta PSOEk 2000. urtean sinatu zuten terrorismoaren kontrako Itunaren ondorio izan zen “Alderdien Legea”. Lege horren babesean, 2003an legez kanpo utzi zituzten Herri Batasuna, Euskal Herritarrok, Batasuna eta hauteskundeetarako beste hainbat hautagaitza (Amnistiaren Aldeko Gestorak 2001ean utzi zituzten legez kanpo). Aurrerago, Ituna indartu egin zen, New Yorkeko irailaren 11ko atentatuen ondoren (2001), edozein talde terroristaren kontra borroka egiteko. Hala, ETA AEBetako erakunde terroristen zerrendan sartu zen.

Garai hartan itxi zen, “kautelaz”, Euskaldunon Egunkaria, 2003an (urte batzuk lehenago gauza bera egin zuten Egin egunkariarekin ere). Bi egunkariak “aldi baterako” itxi zituzten eta beren ondasun guztiak prebentzioz bahitu zituzten, ustez ETAK kontrolatutako enpresa multzoaren parte izateagatik. Euskaldunon Egunkariaren itxierak, euskara hutsean argitaratzen zen egunkari bakarra izanik, erreakzio ugari ekarri zituen eta mobilizazio erraldoiak egin ziren hainbat tokitan. Hainbat pertsona atxilotu zituzten egunkaria ixteko operazio horretan: Iñaki Uria eta Martxelo Otamendi zuzendaritzako kideak; Joan Mari Torrealdei, Jakin aldizkariko zuzendaria; Peio Zubiria, Argia aldizkariko zuzendariordea; Txema Azurmendi, eta beste hainbat. Atxilotuetako bostek torturatuak izan zirela salatu zuten. Hedabide askok, ordea, zalantzan jarri zituzten salaketa horiek. 2010ean, Espainiako Auzitegi Nazionalak kargu guztietatik absolbitu zituen artean inputatua zeuden bost lagunak. Ondorengo sententzien arabera, bi hedabideen itxierak “bidegabekoak” izan ziren.

Urte horietan, terrorismoaren biktimen elkarrekin ugaritzen joan ziren. Terrorismoaren Biktimen Elkarteari (AVT, 1981), Terrorismoaren Biktimen Euskadiko Batzordea (COVITE, 1998) eta Terrorismoaren Biktimen Fundazioa (2002) gehitu zitzaizkion. 2002an Etxerat sortu zen, ETako presoekin senitartekoen elkartea. Beste plataforma batzuk ere sortu ziren. Horietako bat “Ermuko Foroa” (1998-2017) izan zen; ETAK Miguel Ángel Blanco Er-

muko Alderdi Popularreko zinegotzia hil zuenean sortu zen eta ETako biktima guztiak defendatzeko eta atentatu bakoitza salatzeko konpromisoa hartu zuen; terrorismoa garaitzeko, Euskadin alderdi konstituzionalistek bat egitearen alde azaldu eta gobernuaren edo erakunde publikoen eta ETaren arteko edozein negoziazio edo elkarriketaren kontra azaldu zen. Beste erakunde bat “Basta Ya” izan zen; 1999an sortu zen, Ermuko Foroak, Denon Arteanek eta AVTk babestuta; ETaren terrorismoaren eta euskal nazionalismoaren kontra aritu zen; Espainiako Konstituzioa eta Autonomia Estatutua defendatu nahi zituen, eta Euskadin adierazpen askatasunaren alde egin. Beste erakunde batzuk ere sortu ziren, horien artean, Lokarri (2006-2014), Elkarriren ondorengoa. Lokarrik antolatu zuen Aieteko bake konferentzia, 2011ko urrian, ETak jarduera armatua behin betiko utziko zuela iragarri aurretik.

Urte horietan, euskal gizarteak modu orokorrean, tinkotasunez, etengabe eta oso agerian egin zuen ETaren kontra espazio publikoan. Gizarte horrek berak hartu zuen parte ETaren presoekin dispertsioaren kontrako eta Euskaldunon Egunkaria ixtearen kontrako manifestazio handietan.

2011ko urrian, ñabardurak ñabardura, etapa berri bati eman zitzaion hasiera. Atal honen hasieran esan dugun bezala, horrek ez du esan nahi, inolaz ere, orduz geroztik ez denik giza eskubideen urraketarik egon, baina inflexio puntu bat da indarkeria politikoaren egunerokotasunari lotutako guztian. Zauri eta oinaze sakonak dituen gizarte baten bizikidetzara erakitzeke helburua herrialdeko agenda publikoan sartu zen eta lehentasuna hartu zuen, gainera. ETAK “jarduera armatua etengo” zuela iragartzeak (2011ko urrian) eta Konstituzio Auzitegiak Sortu legeztatzeak (2012ko ekaina) ekimen berriei bidea erraztu zien. Horien artean aipatzekoak dira Eusko Jaurlaritzak 2006az geroztik bizikidetzaren arloan egin dituen planak<sup>8</sup>, bakerako eta bizikidetzara demokratikorako hezkuntza-planak eta programak (Adi-adian hezkuntza-modulua, esaterako)<sup>9</sup>, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua sortzeko ekimena (Gogora, 2014)<sup>10</sup>, giza eskubideen urraketari buruzko txosten desberdinak<sup>11</sup>, edota Gobernu Kontseiluak 2021eko uztailan onartu zuen Euskadiko Memoria Historiko eta Demokratikoari buruzko Legearen proiektua, adibidez.

Testuinguru eta eszenatoki berean kokatzen da Bizikidetzara Sustatzeko Programa ere,

<sup>8</sup> Lehenengo Bake eta Bizikidetzara Sustatzeko Plana 2006koa da. Haren ondotik etorri ziren Bake eta Bizikidetzara Sustatzeko Plana (2013-2016), Bizikidetzara Sustatzeko Plana (2017-2020) eta Bizikidetzara Sustatzeko Plana (2021-2024) (Udaberri, 2024).

<sup>9</sup> Lehenengo Bake eta Bizikidetzara Sustatzeko Plaren ondoren (2006), Bakerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntzako Euskal Plana (2008-2011) etorri zen, gerora Bizikidetzara Sustatzeko Plana demokratiko eta indarkeriaren deslegitimazio gisa birformulatu zena (2010-2011). Esparru horretan, 2005-2009 legealdian, “Bakerako Urratsak” eta “Markatzen gaituzten istorioak” unitate didaktikoak egin ziren, eta biktimen testigantzeekin landu ziren lehen esperientzia pilotuak egin ziren. 2011n, Biktima Hezitzaileen Programa jarri zen martxan. ETaren eta beste zeinu batzuen (BVE, GAL...) biktimen talde bat hautatu eta beren esperientziaren lekukotza DBHko laugarren mailako eta Batxilergoko geletan emateko lana prestatu zen, hezkuntza-helburu batekin. 2017az geroztik, arlo horretako planek biktima hezitzaileen testigantzei buruzko Adi-adian Proiektua bultzatzearen alde egiten dute.

<sup>10</sup> 4/2014 Legea, azaroaren 27koa.

<sup>11</sup> Horren adibide dira “Euskal kasuan gertaturiko giza eskubideen urraketari buruzko oinarriko txostena (1960-2013)”, “Erakunde terroristek 1960 eta 2014 bitartean egindako atentatuen egoera prozesalari buruzko txostena. Euskal Kasua”, “Giza Eskubideen Urraketan Biktimen Balorazio Batzordearen txostena (1960-1978)”, “ETAK mehatxatutako pertsonen jasandako bidegabekeriari buruzko txostena (1990-2011)”, “Ertzainek eta haien familiek jasandako bidegabekeriari buruzko txostena (1990-2011)”, “ETAK enpresa-munduaren aurka egindako estortzioari eta indarkeriari buruzko txostena”, “Pertur kasuari buruzko txostena: gaiaren egoera eguneratua”, “Espetxetik urretzeko politikak presoekin familiatan duen eraginari buruzko txostena”, “Euskal Herriko tortura eta tratatu txarrak ikertzeko proiektua 1960-2014”, “1991-2011 bitartean zinegotziek jasandako jazarpen-indarkeriari buruzko txostena”, edo “ETaren terrorismoaren ondorioz (1960-2011) Estatuko Segurtasun Indarretako kideek jasandako bidegabekeriari buruzko txosten berria”, besteak beste.





Gipuzkoako Foru Aldundiak 2012-2013 ikasturtean abian jarri zuena, lurralde historikoko udalerrietan bakearen eta bizikidetzaren inguruan bultzatzen ari ziren ekimenei laguntzeko eta sendotzeko, eta Bizikidetzaren Lantzen programa, 2015-2016az geroztik, bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloko udal politikak sustatzen dituen Aldundiko programa..



## 2.3

# Gipuzkoako Foru Aldundiaren bizikidetzaren politikaren bilakaera

### Aurrekariak

XXI. mendearen hasierarekin eman zituen lehen pausoak Giza Eskubideen erakundetzeak, eta honen adierazpideak Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik. 2003-2007 lege-gintzaldian, EAJ-EA koalizioa Jose Juan Gonzalez de Txabarri Diputatu Nagusi zelararik sortu zen lehenbizikoz Giza Eskubidetarako, enplegurako eta gizarteratzeko Departamentua, Eusko Alkartasunako Mari Karmen Marin izan zelararik bertako Diputatu. Departamentu honek ez zuen izan bere egitura Giza Eskubideez zuzenean arduratuko zen zuzendaritzarik, baina aholkulari baten bitartez bete zituen funtzio hauek. Legegintzaldi honetan hasi ziren Giza Eskubidetako politiken oinarri nagusiak ezartzen.

Hurrengo legealdian, 2007 - 2011ean eta EAJko Markel Olano Diputatu Nagusi izanik, aurrerapauso garrantzitsua eman zen: Giza Eskubidetako zuzendaritza sortu zen, Iñaki Galdos, Eusko Alkartasunako Kirol eta Kanpo ekintzarako Diputatuaren pean. Zuzendaritzak hartu zuen izena Giza Eskubide, Berdintasun eta Lankidetzako Zuzendaritza Orokorra izan zen eta Juana Mari Astigarraga izendatu zuten orduan zuzendari nagusi. 2009an, Foru Aldundiak Bakea bultzatzeko eta terrorismoaren biktimen oroimena indartzeko plana onartu zuen. Plan honetan azaltzen dira giza eskubide guztiekiko errespetoa eta bizikidetzaren lortzearen helburuak. Aldundiak berak mahainguru eta ekimen ezberdinak antolatu zituen norabide honetan.

### 2012. Hastapeneko fasea

2011ean, Bildu koalizioa Gipuzkoako Foru Aldundiko gobernura iristearekin batera, Giza Eskubideen zuzendaritzak izaera propioa hartu zuen, Giza Eskubideen eta Oroimen Demokratikoko zuzendaritza gisa eta Diputatu Nagusiaren alorrean txertatu zen lehen aldiz. Momentu honetan, Bilduko Martin Garitano Diputatu Nagusi zelararik, Marina Bidasoro izan zen zuzendaritza honen arduradun politikoa.

2012. urtean Giza Eskubideen eta Oroimen Demokratikoaren Zuzendaritza Nagusiak, **Giza Eskubideak, Oroimenaren berreskurapena eta Bizikidetzaren Plana 2012 -2015** delakoa onartu zuen. Plan honetan argi azaltzen dira udal mailako adiskidetzeari bideratuta dauden bi helburu zehatz, zuzendaritzak bere egiten dituenak:

- **Adituen laguntza programak eta aholkua eskaintzea** udalek elkarbizitzako planak edo eta ekimenak garatzeko.
- **Berradiskidetze prozesuen definizioak** eta osagaiak udaletxe eta elkartei ezagutzera emateko proiektuak bultzatu.





Helburu hauei jarraiki, planak modu berezian azpimarratzen du komenigarria litzakeela udalen artean norabide bereko programak bultzatzea, modu horretan emaitza sakonago eta sendoagoak lortzeko aukerak emango lituzkelarik.

Hari horri jarraika, zuzendaritzak dagoeneko gai honetan aditu eta arituak ziren hiru elkarteren laguntza erdietsi zuen: Bakeola EDE Fundazioa, Baketik eta Lokarri. Bakoitzak eredu ezberdina izan arren, eskarmentua zuten dagoeneko prozesuen akonpainamendu eta dinamizazioan. Zuzendaritzak udalekin batera lanean jarri zituen (norabide berean, nahiz eta ez elkarrekin) aurretik aipatutako bi helburu horiek betetze bidean.

Horrela jaio zen 2013an "Bizikidetza sustatzeko programa" udalek bizikidetza eraikitzen garatzen dituzten ekimenak bultzatzeko eta sendotzeko helburuarekin. Programaren helburua, beraz, udalak laguntzea da, bakoitzak bere espazioa dinamizatu dezan. Horretarako, hiru elkarrekin laguntza eskaintzen duelarik: Bakeola EDE Fundazioa, Baketik eta Lokarri.

2014. urtean egindako sistematizazio dokumentuan jasotzen denez (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2014) lehen etapa honetan izandako ikasketa nagusienak hauek izan ziren:

- Prozesuaren hasieran ezinbestekoa da sentsibilitate guztien presentzia bermatzea (ahalik eta espazio anitzena) eta konpromiso batzuk sinatzea. Horien artean, konfidentziasuna, akordioetara iristeko borondatea eta konfiantza tresna gisa erabiltzeko klabea jarriko dira.
- Bertan parte hartuko duten pertsonen perfilak lantzea garrantzitsua da eta era berean, hauei jarraikotasun konpromisoa ere eskatzea. Garrantzitsua da, era berean, helburuak zehaztu eta amaiera posible bat irudikatzea eta baita erritmoak finkatzea ere.
- Azkenik ondoren garrantzia izango duten bi aspektu ere aurreikusten hasten dira: prozesu bakoitzak dinamizatzailerik edo erreferentziazko pertsona bat izatearen beharra eta hiritarrek osatutako espazioak egituratzen hastearena.

Horrela, programa lehen pausoetatik aurrera hartzen joaten da, ondoren definituko duten elementuak ordurako presente zeudelarik.

## 2015 – 2019. Hedapen fasea

2016. urtean Bizikidetza eta Giza Eskubideetako Zuzendaritza Nagusiak, aurretik dagoeneko martxan zegoen "Bizikidetza sustatzeko programa", "Bizikidetza lantzen" (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2017) programan bihurtzen du. Momentu honetan, EAJko Markel Olano Diputatu Nagusi zelarik, Maribel Vaquero zen zuzendaritza honen arduradun politikoa.

Izendapen berriaren pean, programa gorpuztu zen, corpus oso bat ematen zaiolarik. Corpus honek aurreko markotik zetozen elementuak barne hartzen ditu, zehaztasuna emanez eta modu koherente batean ordenatuz. Horrela, programaren helburu nagusia *bakea betiko eta atzera bueltarik gabe sendotzen laguntzea, gizarte bizikidetza bideratzen laguntzea eta Gipuzkoako kultura demokratikoan sakontzen laguntzea dira, lurraldeko gizartean Giza Eskubideen ezagutza eta begirune kultura sustatuz* (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2017: 4).

Aurreko helburuekin alderatuz, bada hemen berrikuntza nabarmen bat: Gipuzkoako kultura demokratikoaren sakontzea. Plan berriak bizikidetza kultura demokratiko osoago baten parte bezala irudikatzen du eta hau eraikitze bidean bizikidetza espazioak sakondu eta eraikitzen laguntzea du helburu. Hau berrikuntza esanguratsua da aurreko fasearekin alderatuz gero.

Helburu hau aurrera eramateko, programak bost printzipio eta sei lehentasunezko sustapen eremu marrazten ditu. Printzipioei dagokienez, Giza eskubideak, biktimak, memoria, normalizazioa eta gizarteratzea azaltzen dira programaren printzipio nagusi gisa. Hau esaten da, funtsean, hauetako bakoitzean:

- **Giza eskubideak:** giza eskubide guztien eta horien oinarria den giza duintasunaren defentsaren konpromisoa. Giza eskubide guztien bortxaketen arbuatzea.
- **Biktimak:** Biktima guztien eskubideekiko konpromisoa.
- **Memoria:** Iraganarekin kritikoa den memoria politiko batekiko konpromisoa.
- **Normalizazioa:** normalizazio sozial eta politikoarekiko lehentasunezko konpromisoa.
- **Gizarteratzea:** presoen legezko eta konstituzioz onartutako gizarteratzearekiko konpromisoa.

Helburu eta printzipio hauek oinarri hartuta, programak sei lehentasunezko arlo zehazten ditu Foru Aldundiaren eta Udalen arteko lankidetzak sustatzeko:

- Udalean ordezkariak duten sentsibilitate ezberdinen arteko elkarrizketa eta akordioa sustatzea.
- Bizikidetza anitzeko mahai, foro eta esperientziak sustatzea.





- Giza eskubideen gizarte hezkuntzan ekimenak sustatzea.
- Udaletatik biktimen laguntza indartzea.
- Udal eremuan memoriaren politika garatzea.
- Gizarteratze prozesuetan laguntzea.

Lehen eta bigarren arloan jasota geratzen dira, nagusiki, ezberdinen arteko mahaiak eta foroak, bai ordezkari politikoak duten pertsonena, baita hau izan gabe ere esperientzia politikoa duten hiritarrena ere. Hemen jasotzen dira aurreko esperientzietatik datozen ibilbideak ere. Hirugarren ildoak hezkuntzarekin eta honen sustapenarekin du harreman nagusia. Laugarrenak, biktimen egoera eta iraganen inguruan azterketak egitearekin, ondoren ekintzak garatu ahal izateko. Bostgarrenak, Jaurlaritzaren Memoriaren maparen garapenarekin bat egitea dakar eta azaroaren 10aren inguruan ere erakunde ekitaldia egitearen inguruko kontsentsua eraiki ahal izatea. Azkenik, seigarrenak, presoek gizarteratze prozesuei babesa emateko bidea eraikitzeke pausoak ematea ahalbidetzen du.

Guzti honetarako, programak bi lan ildo nagusi zehazten ditu: diru laguntza deialdiak eta Foru Aldundiaren inplikazio zuzena. Diru Laguntza deialdietara aurkezteko baldintza ezinbestekoa lehen lan arloa lantzea izango dela dio programak modu zehatzean. Hau da, ezinbestekoa da maila honetako edozein lan ildo garatu nahi duen udal barentzat, lehen baldintza bezala udaleko indar politiko ezberdinen arteko elkarrizketa mahai bat eratzea. Horretarako, lehenago ere lanean ari ziren hiru elkarteekin bidea egiten jarraituko da: Bakeola EDE Fundazioa, Baketik eta Berbari Lekua (Lokarriren tokiko hartuta). Fase hau programaren inguruko hausnarketa partekatu batekin amaituko da (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2019).



## 2019 – 2022. Egonkortze fasea

2019. urtetik aurrera Giza Eskubideetako eta Kultura Demokratikoko Zuzendaritza Nagusiak, "Bizikidetza lantzen" programa sustatzen jarraitzen du, aurretik aipatutako Kultura demokratikoaren markoaren barnean. Momentu honetan, EAJko Markel Olano Diputatu Nagusi izanik, Ion Gandra da zuzendaritza honen arduradun politikoa.

Legegintzaldi honen jarduna, baita udal mahai eta foroei dagokienean ere, COVID 19aren pandemiak baldintzatutako jarduna da. Hau horrela izanik, eta prebentzio neurriak tartean, zaila izan da elkarrizketa gune askorentzako bileren dinamikarekin jarraitzea eta horrek baldintzatu egin du dinamika propioa. Edozein kasutan, egon dira ekimen eta aurkezpen publikoak egin dituzten udalerrriak eta baita bere bidearekin hasia erabaki dutenak ere.

Azken legegintzaldi honetan aurrera jarraitu da aurrekoan ezarritako printzipio, arlo eta ildoekin. Honek egonkortu egin du planaren beraren presentzia eta jarduna eta baita bere egitekoa ere. Horregatik, definizio eta hedatze fasearen ondoren, egonkortzea deritzogu azken honi, dagoeneko estrukturala bihurtu den programa baten aurrean gaudelako. Hala antzeman daiteke azken hamar urteetako aurrekontuei begiratzen badiegu::

**Taula 2:** Bizikidetza lantzen programaren aurrekontua (2012-2022)

Urtea	Zuzendaritza	Aurrekontua
2012		85.000
2013	Giza Eskubideak eta Oroimen Historikoa	110.000
2014		110.000
2015		120.000
2016		180.000
2017	Bizikidetza eta Giza Eskubideak	210.000
2018		210.000
2019		210.000
2020		180.000 / 140.000
2021	Giza Eskubideak eta Kultura Demokratikoa	140.000
2022		140.000

Iturria: norberak egina



Aurrekontuaren eboluzioari erreparatzen badiogu, hiru legegintzaldietan aipatutako faseen izenak interpretatzeko datuak ikusiko ditugu bertan. Lehen urteetan, hastapenekoetan, dirulaguntzak eta kopuruak agertzen eta handitzen joan ziren, programa bera zehazten zihoan bitartean. Ez dugu ahaztu behar urte hauek izan zirela bi faktore garrantzitsu eman ziren urteak: ETaren "iharduera armatuaren amaieraren adierazpena" eta errekupeazio ekonomikoa antzematen hastea. Honek ere azaltzen du aurrekontuaren presentzia. Bigarren momentu batean, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen zuzendaritzapeko momentuari hedapen fasea deitu diogu. Hala ikusten da aurrekontuetan ere, bere momentu gorena izan baitzuten urte hauetan zehar. Azkenik, hirugarren momentuan, egonkortze fasean, aurrekontua gutxitu egiten da, baina programa egonkortu egiten dela ondoriozta dezakegu. Eta bi arrazoi nagusik izan dute inpaktu zuzena egonkortze honetan. Alde batetik, COVID 19ak giza harremanetan jarritako mugak eta zailtasunak. Bestetik, bizikidetzaren gaiak gure gizartean sortzen duen kezka gutxia. DeustoBarometroari erreparatzen badiogu, ikus daiteke nola kezka hau lehentasunetatik desagertzen joan den. Horrela, 2014ean %6 batentzako kezkaren bat suposatzen bazuen, 2021eko abenduan zifra hau ez zen %3ra ere iristen. Bi faktore hauen baturak eragina izan du, zalantzarik gabe, azken fase honen definizioan.

Gauzak horrela, programak erakunde ibilbide koherentea izan duela esan daiteke, sortu zenetik orain arte bere egitekoa helburu zabalago batzuen baitan kokatu duela. Era berean, parte hartu duten eragileek nolakotasunak eta honi eskainitako aurrekontuak ere garrantzia honekiko proportzionalak dirudite.

**2012–2015**

Giza Eskubideak eta  
Oroimen Historikoa

**2016–2019**

Bizikidetzaren eta  
Giza Eskubideak

**2020–2022**

Giza Eskubideak eta  
Kultura Demokratikoa





### 3 Programaren analisia

Prozesuen kokapena  
eta analisia



## 3.1 Prozesuen kokapena

Udalerrri bakoitzean garatutako prozesuak bakarrak dira, errepika ezinak, baina, aldi berean, logika berdinean kokatzen diren lan egiteko modu eta ezaugarriak partekatzen dituzte. Beraz, udalerrri bakoitzaren prozesuak sakonki aztertu ondoren, zenbait ibilbide edo ezaugarri identifikatu dira. Egiteko modu bat adierazten duten ibilbideak dira eta prozesu bakoitzak ibilbide desberdinetan bere isla aurkituko du.

Lanketa hori guztia azken hamarkadan prozesu hauek erraztu dituzten pertsona eta elkarteek egin dituzte sistematizazio honetarako zehazki. Ibilbide horien narratiba, beraz, haien ikuspegitik eginga izan da, eta haien garapen eta ondorioetako askok elikatzen dute hurrengo kapitulua, prozesuetan protagonista izandako parte-hartzaileen elkarrizketekin batera, oinarritzko bi iturri bihurtzen direlarik.

Udal bizikidetza programak martxan jartzeko, ezinbestekoa da hauek aurrera eramateko baldintzak kokatzea. Ondoren, aurrera eramandako programen erradiografia bat ere azalduko da, datu nagusienak aurkeztuz eta oraindik publiko egin ez diren kasuak ere errespetatuz.

### Aurrekariak

Gauza jakina da programak ez direla egun batetik bestera sortzen. Arlo askotan bezala, ulertu beharra dago programa martxan jarri aurretik ere egon zirela hainbat esperientzia gauzatu zituzten herri eta elkarteak ere. Dinamika horiek ulertu eta interpretatu beharra daude egoera hau ondo ulertzeko. Lehenagotik zetozen ekimenak sustatu eta ordenatzeak udaletatik bizikidetza lantzeko honako aukerak sortu zituen: dirulaguntzak, lan ildoak eta topaketa espazioak. Testuinguru honetan udalerrrien egoera ezberdina zen Bizikidetza gaiekiko eta, nagusiki, bi ibilbide identifikatzen dira:

- **Lehenagotik giza eskubideen arloan hainbat ekintza eta jarduera garatzen ari ziren herriak, zentzurik zabalenean:** ekimen horiek udalerrietan gertatzen ziren diskriminazio-egoera desberdinen gainekoak izan zitezkeen (arrisku egoeran



Hondarribiko Herritar Foroa eta mahai politikoa

dauden taldeak, jatorri-aniztasuna eta beste errealitate batzuk), Bizikidetza eta Giza Eskubide arloan diagnostikoak eta planak osatu ziren hainbat herrietan, eta kasu gutxi batzuetan, indarkeria politikoak zituen ondorioei aurre egitearekin zuzenean lotutako zenbait gai jorratzen hasi ziren.

- **Beste errealitate ukaezina izan zen Gipuzkoako Foru Aldundiaren bultzadak eragindako olatua.** Legealdi ezberdinetan Foru Aldunditik programa hau sustatzeko formulak eman ziren (bilerak udalerrietan, mintegiak, aurkezpenak, edo maleta gainean hartuta bisitak egitea, esaterako), proposamenarekin aurrera egiteko herri berriak batuz. Horrela, testuinguru politikoak udal-elkarrizketarako mahaiak eta foroak sortzera bultzatzeko eta animatzeko bultzada positiboa ere ematen duela pentsa daiteke.

Bizikidetza Lantzen programaren jaiotza eta ibilbidea ulertu ahal izateko, ezinbestekoa da, kriterio kronologikoa erabiliz bada ere, fase ezberdinak egon direla ulertu ahal izatea. Alde batetik, hasierako urteetan programarekin lanean hasi ziren herriak kokatu nahiko genituzke, eta bestetik, besteen esperientziak entzun ondoren, iniziatiba honi ekin ziotenak kokatuko lirateke. Hauek dira identifikatzen diren faseak:

- Programaren hastapenean hasi ziren udalerrien kasuan, argi dago aurrez aurre zuten testuinguru sozio-politiko eta gaur egun bizi duguna oso desberdinak zirela. Kasu batzuetan, hilabete batzuk baino ez ziren igaro 2011n ETAk indarkeriaren erabileraren amaiera iragarri zuenetik, eta giza eskubideen urraketan ondorio ezberdinak ez ziren gaur egun bezala aitortzen. Era berean, gai horietan elkarrizketa guneak sortzeko ideia oraindik ez zen, nahitaez, sektore sozial eta politiko guztiengandik bultzatu eta defendatzen.
- Bestalde, hurrengo urteetan programarekin bat egin zuten udalerrriak ere baditugu, indarkeriaren ondorioak gure kaleetatik desagertzen ari zirenean eta udal mailan aurrean genituen erronkak eta oraindik egiteke zeuden gaiak argiago ikusten hasi ziren heinean. Herri hauek aurretik lanean ari zirenen eskarmentua ezagutu eta horretatik ere ikasi ahal izan zuten. Fase honetan lanean hasi ziren udal askok bultzada esanguratsua eman zituzten gai batzuetan eta lidergoa ere hartu zuten hainbat lan lerroetan.
- Udalerrri batzuk ekimenarekin bat egiten ari dira oraindik: badira orain arte programa martxan jartzea komenigarritzat jo ez zuten herriak, edo aurretik adostasunik lortu ez zutenak, eta orain dela gutxi hasi direnak lanean. Noski, badira ere Gipuzkoa mailan inoiz programan parte hartu ez duten herriak. Hasierako urteetan, ohikoa izan zen ekimena alkatetzarena izatea baina geroz eta arruntagoa da deialdia alderdi guztien adostasunetik abiatuta egitea.



## Baldintzak

Programa abian jartzeko baldintzetako bat, alderdi guztien arteko adostasuna lortzea da. Horretarako bide ezberdinak jorratzen dira: bozeramaile batzordean landu, kanpoko erraztatzailerek lagundutako saio bat egin, alderdiekin banakako elkarrizketak egin, e.a. Hauek lanerako borondatea eta baldintzak argitzen eta ezagutzen laguntzen dute.

Mahai eta Foroek ez dute inoiz herriko aniztasun guztia ordezkatzen baina bizikidetza lantzeko beharrezkoa da herriko aniztasun esanguratsu bat elkartzea. Aniztasuna betetzeko bidean, hauek dira kontuan izan beharreko aldagaiak:

- **Adin edota belaunaldi ezberdinak ordezkatua egotea:** ibilbide gehienetan partaideak adinean nagusiak dira eta zailtasunak daude 30 urtetik berako gazteak erakartzeko. Adin bereko pertsonen artean bizipen ezberdinak daude eta modu ezberdinean eragin du indarkeriak. Belaunaldi ezberdinetako kideak egoteak, gai hauek lantzeko begirada eta ikuspegi berriak egotea ahalbidetzen du.
- **Generoaren ikuspegia:** herriko errealitatea islatu nahi bada emakumeak bertan egotea ezinbestekoa da. Oreak hau bilatzea, beraz, ezinbesteko bihurtzen da taldeak osatzeko garaian.
- **Herriaren tamaina:** herri handia edo hiria denean zailagoa da alde aurretik partaideek modu estuan elkar ezagutzea. Aldiz, herri txikietan erraza da elkar ezagutzea eta bizipenak eta harremanak alde aurretik izatea. Azken hau kontutan hartu behar da taldean sortzen diren elkarrizketak gehiegi baldintzatu ez ditzan.
- **Hizkuntza:** espazio hauetan hizkuntzaren erabilera landu beharreko elementua da. Partaideek hizkuntz gaitasun ezberdinak dituzte eta gune hauetan lantzen diren gai askotan emozioak duten tartea kontutan hartuz, hizkuntzak berezko garrantzia hartzen du. Hortaz, prozesua hasten denean gai honi behar duen espazioa ematea eta adostasun batzuetara iristea inportantea da. Kasu batzuetan, hizkuntza bat jakitea edo ulertzea ezinbestekoa da elkarrizketa gunean parte hartzeko.
- **Parte-hartzaileen artean indarkeriaren zuzeneko biktima izan den eta ondorioak bere bizitzan jasan dituen pertsonaren bat egotea:** honek intentsitate handiagoa sortzen du zenbait taldetan eta behar bezala landu behar da. Aldagai honek, kasu askotan, taldekide horren egoera taldean eta publikoki aintzatestea ekarri du. Talde honetan berezko zaintza bat izan behar da egoera hauek kudeatzeko. Izan ere, urteurrenek edota hitz egiten diren gai batzuk bereziki sentiberak eta hunkigarriak izan daitezke biktimentzako eta erabaki batzuk maila pertsonalean sentitu eta mingarriak gerta daitezke. Egoera hauek zaintzearen beharra argia da.

## Ibilbidea

*Bizikidetza Lantzen* programa 2012. urtean martxan jarri zen. Martxan jarri zenetik gaur egun arte (2012 - 2022) programak hiru fase izan dituela esan daiteke, legegintzaldi bakoitzaren garapenarekin bat datozenak.

- **2012 - 2015. Hastapeneko fasea.** Programa martxan jarri eta zabaltzen hasten da. Aurreko prozesuak ere lantzen ari ziren udalak logika honetan lanean hasten dira. 12 udalek parte hartzen dute prozesuan lehen fase honetan.
- **2015 - 2019. Hedapen fasea.** Bigarren fase hau hedapeneko da. Programa sustatu eta gizarteratzen da. Honek udal asko programara batzea dakar. Legegintzaldi honen amaieran 24 udalerrri dira programan parte hartzen dutenak, aurreko kopurua bikoiztuz.
- **2019 - 2022. Egonkortze fasea.** Programaren zentzua egonkortuta, helburua udal bakoitzak bere erabakia hausnarketa lasaiago baten ondorioz hartu dezala da, prozesua beraren garrantzia azpimarratuz. Fase honetan lau udal berri batzen dira programara.

Gaur egun arte, beraz, 28 Udalek parte hartu dute prozesuan. Udal hauetako batzuk jada prozesuari itxiera eman diote eta bere ondorioak publiko egin dituzte. Horietako batzuek lanketarekin aurrera jarraitzen dute bai politikari zein hiritar mailetan. Beste batzuek hausnarketa bateratua aurkeztu eta bere ibilbidea eten dute.

Gauzak horrela, eta esandako guztiaren harira, hiru tipologia zehatz izendatu ditzakegu udalerrri mailan, bakoitzak izandako prozesuaren arabera: mahai politikoa izan duten herriak, herritarren foroak izan dituztenak hala biak izan dituztenak. Era berean, tipologia hauetako bakoitza beste bi aldagaiekin gurutza daiteke: mahaia eta foroa martxan jartzeko sustatzaile nor izan den eta foroa edo mahaia publiko egin den ala ez. Bi taulatan laburtuta osatuko dugu analisia.

Lehen taulan, 28 udalerrriak tipologia hirukoitzaren arabera sailkatuta ikusiko ditugu. Modu honetan, agerian jarriko da zein prozesu izan diren modu nabarmenagoan aurrera eraman direnak.

**Taula 3:** *Bizikidetza Lantzen* programan parte hartu duten udalerrriak, tipologia zehatzaren arabera (2022)

UDALERRI KOPURUA	MAHAI POLITIKOAK	HERRITARREN FOROA	BI MAHAIK
28	15	1	12

Iturria: Norberak egina

Programan parte hartu duten Udalen % 50ak baina apur bat gehiagok (% 54) mahai



politikoa eratu dute soilik. Dinamika hau ohikoena izan da bertatik hasi baitira kasu gehienetan prozesuen eraikitzeak. Udal taldeen arteko elkarrizketa prozesu diskretuak izan dira, kasu gehienetan, programaren erakarpen zeinu nagusia udalantzako. Hala ere, lau kasuetan prozesuak laburrak izan dira eta elkarrizketak ez du esperotako arrakastarik izan, prozesua eten egin delarik.

Hurrengo azpitalde garrantzitsuena bi mahaiak martxan jarri dituzten udalak dira, udal guztien % 43a osatzen dutelarik (12 udal). Udal hauen dinamiketan, orokorrean, mahai politikorekin hasitako prozesuak izan dira eta honen jardunetik sortu dira herritarren foroak. Hala ere, egon badago prozesua herritarren espazioak eraikiz hasi duen udalerriren bat, honen ondoren, eta honen eraginez mahai politikoa eratu delarik segidan. Baina gutxienez izan dira esperientzia hauek.

Azkenik, udalerrietako batek (%3) herritarren foroa bakarrik jarri du martxan, mahai politikorekin eraketarik gabe. Kasu esanguratsua da hau populazio handia duen udalerrria izanik mahai politikoa martxan ez jartzeak eskalabilitatearen inguruko irakaskuntzak ekar ditzakeelako. Aztertzea litzateke kasu zehatz honetan alderdien egiturak izandako eragina, baita testuingurua beraren baldintzapena ere.

Bigarren taulan, aurreko datuak aipatutako beste bi aldagaiekin gurutzatuko ditugu: prozesuak publikoak egin dituzten udalerriak eta ekimenaren jatorria.

**Taula 4:** Bizikidetza Lantzen programan parte hartu duten udalerriak, izaeraren arabera (2022)

	EKIMEN INSTITUZIONALA (26)	HERRI EKIMENA (2)
Publikoa (20)	Mahai Politikoa (9)	Mahai Politikoa
	Herritarren foroa (1)	Herritarren foroa
	Bi mahaiak (8)	Bi mahaiak (2)
Ez Publikoa (8)	Mahai Politikoa (6)	Mahai Politikoa
	Herritarren foroa	Herritarren foroa
	Bi mahaiak (2)	Bi mahaiak

Iturria: norberak egina

Kasu honetan ere, esanguratsuak dira datuak. Udalerrien % 93ak erakundeek ekimenez abiatu ditu prozesuak eta % 7an bakarrik izan dira hauek herri ekimenez ondorioz sortuak. Datu hauek politika publiko indartsuen garrantzia azpimarratzen dute eta erakundeek, toki zein lurralde mailakoek bizikidetza bezalako gai konplexuei eragin diezaien hauspoa ere azaltzen. Bestalde, herritarren ekimenez osatutako foroak murriztasunak ez du zuzenean esan nahi hauek egon ez daudenik, beste modu batetara artikulatu daitezkeela baizik, beste espazio edo norabide batzuetan.

Prozesuen gehiengoa (% 74) orain arte publiko egin da, bai hiritar foroa edo bai mahai politikoa bera ezagutaraziz. Kasu batzuetan biek ere jakinarazi dute beraien lana egiten ari zirela. Prozesuak publiko egiteko moduak oso diferenteak izan dira toki bakoitzean: adostutako komunikatua, prentsurrekoa, dokumentala, publikazioa... Edozein kasutan, denek izan dute komunean ezaugarri bat: ez da aurkezpen soila izan, ekarpen bat egiteko desio bat ere egon da atzean. Prozesuen gehiengoa publiko egin izanak agerian jartzen du gai hauetaz hitz egiteko gizarteak duen heldutasun maila. Era berean eragina ez oso berandu jota egiteko desioa ere agerian jartzen du. Hauek izan dira bere ibilbidea publiko egin duten prozesuak (maila batean zein bestean): Amasa-Billabona, Andoain, Arrasate, Azpeitia, Beasain, Bergara, Deba, Donostia, Elgoibar, Errenteria, Getaria, Hernani, Hondarribia, Lasarte, Legazpi, Sorluze, Tolosa, Orio, Urnieta eta Zarautz.

Bizikidetza Lantzen programak biziraun duen denbora guzti honetan, pertsona askoren joan etorriko parte hartzea izan du. Momentu jakin batean argazkia eginez gero, 257 pertsona topatuko genituzke, momentu berean, herri ezberdinetan, mahaietan elkarrizketak izaten. Edozein kasutan, zenbakia orientatiboa besterik ez da, pertsona gehienak ez baitira momentu berean parte hartzen egon, hauetako batzuk, jada, prozesuari bukaera eman diote, beste batzuk prozesuan jarraitzen dute. Prozesuaren iraupen osoa hartuko bagenu, ziurrenik zenbaki hau bikoiztu egingo litzateke bi espazioak (hiritarrak eta politikariak) kontutan hartuz gero.



Beasaingo Herritar Foroa



## 3.2 Analisia

### 3.2.1. Metodologia

Metodologiaren aldetik, horrelako prozesuek lanketa zehatz batzuk eskatzen dituzte hastapenetan, talde dinamikaren garapenean eta itxieraren fasean.

#### Hastapenetan:

Prozesu hauen hasiera uneetan, metodologikoki bi elementuek dute garrantzia berezia: taldea beraren eraikuntza eta lan marko bat adostea:

- Taldearen osaketak eta elkar ezagutzak garrantzia du eta garrantzia eman behar zaion elementu bat da. Ez da, gainera, prozesuaren hastapenetan soilik kontutan eduki beharreko elementu bat. Taldearen osaketa eta ezagutzarekin lotuta dauden dinamika hauek, prozesuaren baitan ematen diren krisietan ezinbestekoak dira, baita hastapen berrietan ere, hala nola, hauteskunde batzuen ondorioz ordezkari politikoek osatutako mahaiak berritzen denean, edota herritarren foroen kasuan bere parte-hartzea amaitu eta bolondres berriak lanean hasten direnean.
- Barne lanketa honekin hastea ohikoa eta gomendagarria izaki, badira zenbait talde hastapenetatik gai tematikoak proposatu dituztenak, hala nola, memoriarekin lotutako gaien lanketak, udalerriko biktimentzako arreta edo errekonozimenduarekin lotutakoak, ikastetxeetako edo herriko beste erakunde batzuetako elkarbizitzarako hezkuntza-proposamenekin loturikoak edota indarkeria eta Giza Eskubideekin loturiko gai desberdinen lanketak. Baina, orokorrean, giza-harremanak lantzetik hastea komeni da.

*Hasi ginen analisitik... ez zen bidea. Beraz hasi ginen bakoitza gure esperientzia kontatzen... metodologia hori oso egokia da... abiatzea norberaren bizipenetatik (h2)*

Horrelako prozesuak aurrera eramateko, talde barneko giza harremanak lantzea ezinbestekoa da eta lanketa zehatzak egiten dira taldekideen arteko konfiantza giroa, errespetoa, enpatizatze saiakera, iritzi ezberdinak entzun eta esateko gutxieneko lasaitasuna, konfidentzialtasuna mantentzeko prestutasuna eta aurre-iritziak baztertze jarreretan sakonduz. Prozesu osoan zehar landu eta zaindu behar den elementua da. Izan ere, politikaren eremuan, kooperaziorako

eta adostasunetarako baino, lehiarako eta ezberdintasunetan sakontzeko giroa da sustatzen dena baina mahai hauetan, kontsentsua, elkarlana, elkarren aitortza eta konfiantza behar dira eta landu behar dira. Konfiantza hausten denean, elkarrekiko mesfidantzak areagotzen direnean, edo gairen batekin blokeatzean, garrantzitsua izaten da talde kohesioari denbora gehiago eskaintzea. Talde hauek ezin dute aurrera egin gutxieneko giro bat ez bada mantentzen eta honen azpimarra egin dute partehartzaileek:

*Ni naiz pertsona bat, kontsentsuko pertsona naiz, hitz egiteko pertsona naiz, saiatzen naiz ez izaten pertsona bat "de extremos" (p9)*

*Ez naiz inoiz muturreko zeatan egon (h9)*

*Entzuteko jarrera ... nahiko konexio ona lortu dugu ... ondo ulertzen dugu elkar (h10)*

*Guk gure etxen beti izan gea ba hoi, beti bizikidetzaren aldekoak eta gorrotorik ez... Beti sentitu gea erdian...ez baten aldekoa ez besteen aldekoa. Hor aritu gara sufritzen, ze ez gea sentitu identifikatuak ... Biolentziaren kontra beti egon gara, txikitatik, baina ni euskalduna naiz eta espainola ez... gure oinarriak horiek dira... ez dugu erreparorik hori esateko (b1)*

*Giza kalitate handiko taldea izan zen gurea... oso gustora egon nintzen (h8)*

- Printzipio eta lan marko partekatutako bat zehaztea eta adostea ere inportantea da. Udal batzuetan urrats honek berezko garrantzia hartzen du. Bertatik sustatuko diren planteamendu, ekintza eta proposamenak denontzat ezinbesteko printzipioetan oinarritzen direla ziurtatzea bermatzen du honek eta kide batzuentzat horrek, berezko garrantzia du. Ildo beretik, lan plangintza bat izateak ere, gaiak eta lehentasunak alde aurretik adostea ahalbidetu du eta honek partaideek lan prozesuaren ikuspegi orokorra izatea posible egin du, nahiz eta uneren batean, aurreikusitako gabeko gai puntualen bat lantzea proposatzen den.

Orohar, talde gehienetan lan markoa planifikatzeko joera egon da, hau da, programak hurrengo urteetan landuko dituen lan lerroak eta formulak planifikatzeko helburua dago foro eta mahaietan, prozesuaren logika baten baitan. Badira kasu gutxi batzuk zeintzuek bat-bateko gai zehatzen inguruan lan egiteko nahia erakusten duten. Ez dira kontrajarritako bi errealitate. Askotan, aurretik partekatutako eta onartutako plangintza bat badago ere, bat-bateko gai batzuk ere badute lekua eta lantzen dira.

Talde gehienek (guztietan ez esatearren) topaketa edo bileren formulak ezarri eta taldearen dinamikarako oinarrikoak diren printzipioak jasotzen dituen dokumentu bat idaztea lortu dute.





Laburbilduz, lehen hilabeteetan barne lanak berebiziko garrantzia du. Horretarako, eta erraztatzaileen laguntzarekin:

- Lan dinamika ezberdinak eta egokitutakoak prestatzen dira.
- Elkarren ezagutzarako dinamikak egiten dira.
- Elkarrizketarako gaitasunetan eta erabaki adostuak hartzeko gaitasunak lantzen dira.
- Taldeetan egon daitezkeen komunikazio eta bestelako zailtasunak lantzeko prozedurak ezagutarazten dira.
- Helburu partekatuak zehazten dira.
- Oinarriko printzipio eta marko ideologikoa lantzen da.
- Plangintza bat adosten da.



Donostiako Herritarren Foroa - Adrian Cores (argazkia)

## Taldeen dinamikaren garapena:

Talde dinamikaren garapenaren baitan eta erraztatzaileen esperientziatik badira metodologikoki kontutan izan beharreko eta erabilgarriak diren beste elementu (anitzak) batzuk:

- **Bileretako akta pribatuak:** bilera bakoitzeko akta egiteak, bertan hartutako adostasunak jasotzeaz gain, bileran izandako elkarrizketen garapen maila eta gakoak jasotzea ekartzen du. Azken honek bereziki, bileran sortutako sentimendu eta bizipenetatik harago landutakoaz jabetzen laguntzen du, eta norberak izandako pertzepzioak hobeto kokatzen laguntzen du. Gainera, aktak onartu beharrak, hauek irakurtzea dakar, eta honek bilera berrian lanari jarraipena ematen laguntzen du. Foro edota Mahaiaren osaketa aldatzen den kasuetan, aurreko faseetan landutakoaren transmisiorako oso lagungarriak izaten dira akta hauek. Elementu honek bai mahai politikoetan zein herritar foroetan pisu eta baliagarritasun berdina du. Esan beharrik ez da, akta hauek konfidentzialak direla.
- **Zailtasunak kudeatzeko prozedura zehatzak:** elkarrizketa prozesuan zehar gai konplexu, gatazkatsu eta mingarriak lantzen dira eta hauen aurrean ez erosotasun pertsonalak bizi eta sufritu daitezke. Horregatik, metodologikoki ezinbestekoa da pertsonen arteko harremanen zaintzari garrantzia ematea eta hau lehenestea, egoera horiek ere modu lasai, zintzo eta errespetuzko batean kudeatuz. Egoera hauen aurrean, saio bereziak egiten dira eta beharrezkoa bada, partaide ezberdinekin bakarkako/alderdikako elkarrizketak egiten dira. Horrelako ekintzek asko laguntzen dute egoera korapilatsu bat birbideratzen, aurrerapauso bat ematen edota konfiantza berreskuratzen, adibidez.
- **Mahaikideen prestakuntza zehatzak:** foro eta mahai hauetan lantzen diren gaietarako (iraganaren ezagutza, giza eskubideen ezagutza, biktimen aitortzak...) ezagutza eta prestakuntza zehatz batzuk izatea komeni da. Gai hauetan elkarrizketa guneetako kideei prestakuntza eta ikastaroak emateak, hainbat profesional bertan direla, konfiantza eta gaitasunak indartzen laguntzen du, garatuko dituzten urrats eta proposamen desberdinetarako.
- **Malgutasuna eta irudimena:** prozesu bakoitza berezia eta bakarra da eta helburu berdina lortzeko ere ibilbideak ezberdinak dira, landutako gaiak eta garaiak ere anitzak izan direlako, partaideen perfila diferentea izan daitezkeelako eta lehentasunak eta planteamenduak ere desberdinak izan daitezkeelako. Horregatik, prozesu hauetan irudimena, aniztasuna, malgutasuna eta egiteko modu ezberdinak aintzat hartzea ezinbestekoa da.
- **Udal mailan egitea:** honek ere badu bere garrantzia. Horrelako prozesuek behar dituzten konfiantza, ezagutza, edota konpromezuak modu errazago batean lortzen dira espazio edo gune txiki eta ezagunetan. Metodologikoki, modu positiboan baloratzen dira toki mailak eman dezakeen topaketa aukera eta honek sor ditzakeen gerturatze saiakerak ere. Balorazio positibo hau, partehartzaile guztiek azpimarratzen duten zerbitu da.



*Ez da ideia txarra udal mailan hastea (h4)*

*Gutxitik hasi behar da, txikia izan behar da ... auzotartasunetik lan egin behar da (h5)*

*Indargune bat izan da dinamikaren metodologia... Posible da herritar foro bat herrialde mailan sortzea... zailagoa iruditzen zait alderi politikoen artekoa (h7)*

*Zabaldu egin behar da metodologia hau... entzun behar da... erronka ikaragarria da (h8)*

- **Konfidentzialtasuna:** bileretan hitz egindakoa kanpora aterako ez dela jakiteak, elkarrizketa emankorrak eragiteko baldintzak sortzen ditu. Norberak dituen aukerak eta mugak zintzoago adierazteko aukera ematen du. Posizionamenduen atzean diren arrazoiak, kezkak edo beldurrak ezagutu eta ulertzeko aukera ematen du. Guzti honek, elkar ulertzeko eta elkarlanerako baldintzak sortzen ditu. Gainera konfidentzialtasuna bermatzeak partaideen prozesuarekiko konpromisoaren adierazgarri handienetakoa da, erabilpena eta patrimonializazioaren beldurrak usatzen laguntzen duen neurrian. Konfidentzialtasuna oso inportantea da mahai eta foro guztietan.

*Nik etxekoei ere ez diet komentatzen... han esandakoa han gelditzen da (h9)*

- **Diskrezioa:** horrelako prozesuetan, metodologikoki kontutan hartu beharreko elementu garrantzitsua da. Elementu honek (diskrezioak) talderen ibilbide guztian presentzia izango du. Elkarrizketa gune hauek espazio diskretuan aritzeak esan nahi du, ez dela herritarren aurrean, batzorde, foro edo mahai gisa aurkezten. Kasu hauetan, gune horretan adosturiko urratsak eta erabakiak publikoak dira, baina ez da esplizituki adierazten mahai edo foro zehatz baten lanketaren ondorioa direnik. Hauetan diskrezioa kanpoko presioak (gai zehatz baten lanketarekin jaso daitezkeen presioak edota espektatiba jakin batzuk sortarazteak eragin ditzakeen presioak) saihesteko mantentzen da. Badira publiko egiten diren elkarrizketa guneak ere. Hauek bere berezko izaera publikoki adierazi nahi izaten dute eta beraien burua foro edo mahai bezala aurkezten dute.

Diskrezioa haustearen erabakia hasieran edota prozesuan zehar har daiteke. Elkarrizketa esparrua hasieratik edo urte baten bueltan publiko egitea erabaki duten kasuetan, kanpoko presioez haratago, bizikidetzaren sustatzeko erronkari aurre egiteko konpromisoa eta hau gizartearen aurrean adierazteko nahia gailendu direlako gertatzen da. Ezagutzera eman ez diren foro eta mahaiak, kanpoko presioa saihestu dute eta honek lanean aurrera egiten lagundu die baina, zenbaitetan, testuinguru sozial eta politikoen aldaketa zehatzen aurrean kokatzeko zailtasunak eman daitezke (“burbuxaren” ideia).

Laburbilduz, diskrezioaren kudeaketan esperientzia mota desberdinak identifikatu daitezke:

1. Hastapenetan diskrezioari heldu diotenak, espazioaren baliagarritasuna eta urratsak emateko gaitasuna ikusi arte
2. Urte luzeko prozesuaren ondoren oraindik diskretuki lan egiten dutenak, publikoki lortutako adostasunak ezagutzera eman arren
3. Lan isil batean mantentzen direnak zailtasunak ikusten dituztelako testuinguru sozial eta politikoen aldaketan aurrean kokatzeko, edo konplikazioak ematen direlako aurrera egiteko bidea ezartzerakoan, parte-hartzaile guztiak identifikatzeko eta inplikatzeko zailtasunak suerta daitezkeelarik

Modu batera zein bestera, bizikidetzaren foro eta mahaietan parte hartu duten guztiek azpimarratu dute diskrezioaren beharra horrelako prozesuen lanketarako ezinbesteko elementu gisa..

*Bukaera arte sekretua zan (h1)*

*Diskrezioa ... adostasunez izan zen (h5)*

*Lan diskretua egin behar dela iruditzen zait (h7)*

*Isilik hasi ginen eta gero zarata handirik ez genuen atera, baina bueno, ezta ere ezkutatu (h8)*

*Herriak ez zekien hori existitzen zenik (h10)*

*Ez da publikoa... ekitaldiak egiten dira baina ez da esaten mahai bat dagoenik... hor gertatzen dena hor gelditzen da (b1)*

Politikariek, pertsona publikoak diren aldetik, ez dute erreparatu berezirik horrelako prozesu edota mahaietan parte hartzen dutela esateko baina diskrezioaren behararekin bat datozen gaia politikoki erabilia izan ez dadin eta sufrimenduari etekin politikorik ez ateratzeko.

*Nik publikoa egitearen ez dut arazorik eduki, ni gizon publikoa izan naiz eta horregatik erasotua izan naiz (p7)*

*Diskretua izatearena hasieran, oso inportantea izan zen (p2)*

*Mahai hori oso pertsonala da gure esperientzia eta bizipenetan oinarrituta. Ezinbestekoa da diskrezioa mantentzea (p9)*

*Orduan, nik uste, egindako ekitaldi xumeetan, bai badagoela susmo bat zerbaitetan bagabiltzala, baina ez dugu hori kominukatu modu publikoan eta agerian (p4)*

*Etekin politikoa ateratzea gauza honi, nik uste, jenderakin minakin ezin da reditorik atera (p3)*





- **Mahai eta Foroen arteko harremanak:** herri berean bi elkarrizketa gune daudenean, bakoitzak bere bidea darrai modu autonomoan baina paraleloan eta metodologikoki hau kontutan izatea garrantzitsua da. Elkarrizketa gune batek besteari proposamenen bat egin ezker, jarrera irekia eta kolaboratzailea sortzea komeni da prozesuen onurarako. Askotan, herritarren foroak aktiboagoak edota ausartagoak izan direla esan genezake eta hauen akuiluaren indarrez politikarien mahaiaren babesa eta ekintza zehatz batzuk antolatzea lortu da herrian.

Elkarrizketatutako guztiek azpimarratzen dute mahai eta foro desberdinen prozesu eta lanen "autonomia"; eta hori positiboki baloratu dute. Batzuek diote ez dakitela beste mahairik edo fororik ote dagoen. Hau horrela izanda ere, parte-hartzaileek udalaren laguntza eta babesa sentitu dutela diote.

*Gurea oso libre joan da... erabat independente izan ginen eta nik uste dut hori ere garrantzitsua zala (h1)*

*Beti utzi digute erabateko independentzia... apoioa baina beti gure esku, erabat, prozesua (h2)*

*Foro bat indeu herritarrok eta beste bat Udaletxeokak, bi lanketa izan dira ... independente ibili gea (h3)*

*Guk politikoeekin ez daukagu ezer (h4)*

*Independiente sortu ginen, gurea lehenago sortu zen eta gegora talde politikoa... bi taldeak, funtzionamendu aldetik, ezberdinak dira nahiz eta bazegoen komunikazioa (h7)*

*Udal gobernuak oso gogo onez hartu zuen asmo hau eta lagundu zigun langundu zezakeen guztiarekin... Foro politikoarekin ez geneukan harremanik... nahiago genuen bi gauza ezberdin izatea (h8)*

*Oraindik ez dugu eduki... berandu baino lehen egin behar dugu... elkarren berri badugu ... baina momentuz beraiek beraien aldetik eta gu guretik... ez dugu izan harremanik udalarekin, baina ez dugu oztoporik izan (h9)*

Elkarrizketatu batek soilik aipatzen du foroak udalarekin harremanak izateko bizi izan dituen oztopoak.

*Gu hontan ari gera, zuek horretan... ez zaie axola gaia... ez dakit, daude tira bira bat, nik uste enkistatuta dagoena... guk udaletxera bideratu nahi dugu baina ez dugu asmatzen nola... estrategia bat planteatu behar dugu Udalari estutzeko (h6)*

Herritarren Foroetan parte hartu dutenen gehiengoak, hauetan egindako lana eta emaitzak, Politikarien Mahaietan egindakoa baino handiagoa izan dela diote eta elkarrizketatutako politikariek ere hori aitortzen dute.

*Txundituta geratu ziren inurriak bezala pixkanaka lortzen joan ginen lorpen guztiak ikusi zituztenean, haiek ez baitzuten hainbesteko gaitasunik izan (h5)*

*Lau urtean, behin bakarrik elkartu gara mahai politikoa eta herritarren mahaia. Ez galdetu zergatik... aurreratu genuen guztiarekin ezusteko izugarria hartu zuten (h10)*

*Egia da herritarren mahaia beti joan dela alderdien mahaiaren aurretik. Eta herritarren mahaia elkarbizitza mahaiaren isla da; izan ere, azkenean, hor daudenak alderdietako kargudunak izandakoak dira. Orduan, inoiz ulertzen ez nuena zen herritarren mahaia alderdien mahaia baino aurreratuago egon zitekeenik (p1)*

Batek, zenbaitetan, herritarren foroak udalaren egitekoak ordezkatu dituela ere baieztatu du.

“

*Eta herritarren foroak, herrian bizikidetzaren inguruan espazio handi bat okupatu du eta pixkat, agian, modu batean, ordezkatu du Udalak egin beharreko lan hori (p4))*

”

## Prozesuen eta lanketen itxierak:

Prozesu guztiek dituzte amaiera une batzuk. Hauek ondo egitea ere inportantea da eta metodologikoki fase honetan inportanteak diren elementuen artean, bi azaldu nahi ditugu:

- **Helburu argiak eta partekatutak izatea:** espektatibak kudeatzeko ezinbestekoa da hau. Modu natural eta legitimoan elkarrizketa guneeetako partaideek, espektatiba pertsonalak edota euren alderdiaren espektatibak dituzte. Ibilbidearen hasieran edo lanketa zehatz baten aurrean helburuak adostea ezinbestekoa da prozesuak kokatzen laguntzeko eta helburu zehatz horren lorpenerako lan egiteko. Helburuak ahalik eta zehatzenak izateak lagundu egiten du hauen lorpen maila ebaluatzen. Partehartzaile guztientzat, helburuak eta mugak argi izatea metodologiaren erronka nagusienetarikoa izan da.

Nahiz eta foro eta mahai bakoitzak bere helburuak ezartzen dituen, badago noraino irits daitekeenaren inguruko galdera edo zalantza. Zentzu honetan, elkarrizketatutako askok azpimarratzen dute mahaiaren eta foroaren helburua ez dela desadostasunak desagertzea, hauen gainean errespetuz aritzea baizik; eta hor jartzen dute lanketaren gunea: bestearen posizioaren errekonozimenduan.

*Bizikidetza mahaiaren helburua zein da. Helburua ez da politikoki ditugun desadostasunak konpontzea. Hori ez da. Bizikidetza mahai da, eztabaida politikoa horiek erreztuz egiteko gaitasuna izatea (p4)*

*Elaboratu genuen oinarrizko dokumentu bat, planteatu ziren behar batzuk: errespetua, ikuspegi desberdinak, terminologia ezberdinak... bakoitzak bere bizipenetatik... helburua ez zen kontrastea... baizik errespetoz entzutea... ikuspegi kritiko bat ... eta autokritikoa (h7)*

*Norekin egongo naizen ez dakidanean, batez ere beste alde horretakoa bada, nik baztertu dudan alde hori, ezker abertzaletik datorren alde hori, nire lehen pentsamendua gaitzespenekoa izan daiteke... aurreiritziak... eta gehienetan okerra da... ariketa bikaina izan da, oso gogobetegarria, ez zegoen minik (b3).*

Beste batzuk, aurrekoa ukatu gabe, hori nahikoa ez dela diote. Hauek, barruak hustutzea eta "bestea" aitortzeaz gain, bestelako lanketa batzuk egin behar direla diote. Lanketa hauek gertatutakoa ezagutzeko xedea izan behar dutela defendatzen dute, honek lagunduko duelako etorkizuneko bizikidetza oinarri sendoetan eraikitzen. Nola egiten da hau? Hau ere eztabaidaren markoan kokatzen da baina mahai gainean jartzen den unetik, erantzun bat eman behar zaio, gainontzean parte hartzaile hauek ez bait dute helburua betetzat emango.

*Bizikidetza mahaietan bakoitzaren sentipenak, bakoitza hustutzea eta horrelako egiten dira, baina gero, gero da, lana, bakoitzak bere ardura dauka, eta gobernuan dagoena bertan jarri behar du lana, eta oposizioan dagoena gabeziak ateratzea edo azaleratzea, bere lana da.*

*Baino, nik ustet hori, normalidade baten barruan, ona eta guzti dala (p4)*

*Guk galdera honekin egin dugu topo hemen: noiz hasi ginen historia kontatzen, eta hori ere arazo bat izan da. Beraz, niretzat helburua da, esan dezagun, gertatu dena kontatu behar dugula, ondo kontatu behar dugula, eta ondo kontatze horretan denok ados jarri behar dugula, gutxienez gutxieneko batean, gutxieneko komun batean, agian denok utzi behar dugu zerbait bidean, baina zerbaiteira iritsi behar dugu. Beraz, nire ustez, helburua hori izan behar da. Niretzat helburua da gauzak izan ziren bezala kontatzea, eta gauzak izan ziren bezala kontatzeko, ikuspuntu guztiak hartu behar dituzu kontuan, ez zurea bakarrik (p8)*

*Foro horiek ezagutza sustatzen laguntzen dute... oso historia hurbilaren ezagutza... gazteek zer gertatu den uler dezaten ... indarkeria beti salatu behar dela datorren tokitik datorrela ere ... errepikatu ez dadin (b3)*

*Mina mina da. Sufrimendu hori guztia denok partekatzen dugu, eta denok gara bestearen larruan jartzeko gai. Arazoa da horren arrazoia zein den jakin nahi dugunean. Eta hor kostatzen zaigu ados jartzea (p8)*

*Ez det justifikatu nahi baino zerbaitengatik sortu zen ETako kontua... ententitzen det bestek min handia jasan dutela baina guk ebai, eta ostras ... batzuk barkamena eskatu behar dugu eta beste batzuk ezer... jakinda gainez ez dezula inoiz asmatzen, hostia, ez da erreza (h3)*

*Hasieran kostatu zitzaidan asko baino gero pentsatu nuen beharrezkoa zela... aurrera pasatzeko, modu egoista batean baina baita ere gizarte bezala aurrera joateko. Gure testigantzak ematea garrantzitsua da, batez ere gazteentzako (b5)*

*Hau erreka da, hemen daude hauek eta gu hemen, ze inbeitugu danak ondoratu pausuak emanaz? Danak eman behaitugu pausoak emendikan aurrea. Ordun batzuk gehiago egin behar dute. Guk lagunduko diegu zubia jartzen, etorri honea eta hemendik aurrera lan asko egin dezakegu (p7)*

Lanketa hauetan, ondorengo gaiak izan dute presentzia handia:

- ◊ **Gertuko Memoria eta Memoria historikoa:** nahiz marko legalak 2 epe desberdintzen dituen (memoria historikoa 1936-1975 eta gertuko memoria 1960-gaur egun arte), prozesu hauetan mahaietako eta foroetako kideek bi garaietako bizipen eta hausnarketak partekatzen dituzte. Honen ondorioz, zenbaitetan, mahai eta foro hauetatik sortutako ekimenek ez diote "Bizikidetza Lantzen" programako kronologiari erantzuten baina bai gai eta helburuari.
- ◊ **Biktimak:** herri gehienetan giza eskubideen urraketen biktima zuzenak egon dira. Batzuk, mahai eta foro hauetan parte hartu dute. Biktimganganako aitortza eta gerturatzea ere izan dira hauen helburu.



Bakarkako gerturaketa ugari eman dira azken urteetan eta foro eta mahaietara ere gonbidatuak izan dira beraien bizipenak eta lekukotzak zuzenean entzuteko eta ekarpenak jasotzeko. Foroek eta Mahaiak sustatutako ekimenen artean, biktimei eginiko aitortza edota omenaldiak nabarmentzen dira.

- ◊ **Presoak eta birgizarteratzea:** udalek ardura instituzionala dute preso guztien birgizarteratzean. Gai hau ere izan da foro eta mahai hauetan parte hartu duten batzuentzako lanketarako gaia eta helburu bat. Hala ere, eta nahiz eta gaiak geroz eta presentzia handiagoa duen foro eta mahaietan, gaur gaurkoz, gai honetan eta gune hauen eskutik oraindik lehenengo pausuak besterik ez dira eman, oso egoera zehatzen inguruan ekimenak proposatuz.
- ◊ **Indarkeria politikoaz haratago, badira udalerrri baten bizikidetzarekin harremana duten beste hainbat gai.** Hauek ere izan dute presentzia foro eta mahaietan eta partaide batzuek hauen garrantzia azpimarratu dute. Batzuetan mahai eta foro hauen bileretan landu dira eta beste batzuetan beste elkarrizketa gune batzuk sortu dira hauek bereziki lantzeko. Kasu guztietan, arazo edota gai desberdinek herri baten bizikidetzari nola eragiten dioten elkarrekin hausnartzea eta egoera horri erantzun bateratuak bilatzen laguntzea izan da helburua.

- **Prozesuaren iraupenari epea jartzea eta lanketa zehatzei epea jartzea ere ezinbestekoa da:** motel edo geldo aritzearen irudipena da horrelako prozesuetan gehien aipatzen den elementu bat.

*Askotan horrelako bilerak dira, pertsonalki esaten dizut, insufribles eta oso geldoak. Eta oso geldoa egiten da dena. Oso motela da. Baina gero pentsatzen dut, agian beharrezkoa da (p9)*

*Denbora eman diogu testuingurua sortzeari baino horrek luzatu egin du eta nekatu gaitu ... eskatzen du esfortzua (h1)*

*batzuntzako oso superatuta dauden gauza batzuk beste batzuentzako ez daudenak horren superatuta, eta esaldi bat konkretatzeko, ba esaldi hori itxeko, bueno, ba denbora kostaten da eta batzutan ere etsigarria ere bada. Esatea, "jo, oraindikan gaude hitz honekin bueltaka" (p4)*

*Une batzuetan zeure buruari galdetzen diozu: benetan merezi al du? Benetan iruditzen zaizu ez duzula aurrera egiten (p8)*

Horregatik, epeak eta mugak ezartzea ezinbestekoa da. Hauek elkarrizketa guneko partaideek adostu behar dituzte eta, ahal den neurrian, ez dira kanpotik etorri behar. Lanketa hauen prozesu izaerak gai bakoitzari behar duen denbora ematea ekartzen du eta honek, zenbaitetan, "dilazioaren" irudipena ekar lezake. Hau ekiditeko ezinbestekoa da epeak jartzea. Amaitutakoan aurreratutakoa aztertzea ere aurrera egiteko modu bat da, baita gai guztiekiko konpromiso partekatua adierazteko modu bat ere. Denbora tarteak eta mugak ezartzen ez badira, "geldotasunaren" sentsazio hori indartu daiteke.





## 3.2.2

### Aldagaien analisia: hastapenak.

#### Eragileak eta mahai eta foroen osaketa

Egindako herriz-herriko sistematizazioak erakusten digu, orohar, lau izan direla programaren hastapenak bultzatu dituzten eragile nagusiak:

- **Udalak:** hauek izan dira, nagusiki, bizikidetzak mahai eta foroak abian jarri dituzten eragile nagusiak. Bai herri-gobernutik bai alkatetzatik bultzatutako ekimenak izan dira eta alderdi guztien babesa izan dute hasiera-hasieratik.
- **Bakegintzaren arloan lanean diharduten elkarteak:** hauen gomendioz edota proposamenaz ere jarri dira abian bizikidetzak mahaiak eta foroak zenbait udaletan.
- **Gipuzkoako Foru Aldundia:** Aldundiak bakegintzaren edota giza eskubideen gainean sustatutako mintegi eta jardunaldien eraginez edota testuinguru horretan jarri ziren martxan prozesu batzuk; baita herri mailan sustaturiko antzeko beste ekimen parte-hartzaileen testuinguruan ere.
- **Herritarrek:** herritar batzuen interes eta ekimenen eskutik ere abian jarri ziren bizikidetzak mahai eta foro batzuk. Batzuetan alderdien arteko prozesua hasi aurretik eta besteetan paralelok.

Bizikidetzak mahaien eta foroen osaketari erreparatuz gero, bi motatakoak identifikatu ditzakegu:

- **Ordezkaritza politikoen mahaiak**
- **Herritarren foroak**

Azken hauek, udaletik sustatu dira gehienak baina badira bere kabuz sortu direnak ere, hau da, herritar talde batek elkarrizketa gune bat sortzearen ondorio gisa ibilbidea hasi duten foroak.

Aurretik esan bezala, udalerrit batzuetan bi guneak osatu eta aritu dira lanean (ikus 3.1. atala). Kasu hauetan, ibilbidea paraleloki egin dute baina bakoitzak bere plangintza eta prozesua burutu ditu autonomia osoz. Bien arteko komunikazioa badago baina bakoitzak bere bidea egiten du eta printzipioz ez dute elkartzeko espaziorik bilatzen: ez hausnarketarako ez eta ekintza bateraturik sustatzeko ere.

Herritar Foroaren sustapena eta honen osaketaren proposamena ordezkaritza politikoen mahaiaren esku egon ohi da. Orokorrean, politikarien mahaiaren adostasunetara iristeko zailtasunak agertu direnean, ez dute begi onez ikusi herritarren foroak sustatzea. Kasu askotan, bizikidetzak sustatzen hasteko lehen urrats partekatua herritar foro bat osatzea izan da. Kasu hauetan eta bestelako adostasunik posible ez zirenetan, foroak bera abian jartzea izan da adostasun eremu bakarra. Kasu batzuetan behin foroak abian jarrita elkarrizketa mahaiak lanean jarraitzea erabaki du eta beste batzuetan

egitekoa hori bukatu da, ez horrela foroarekiko harremana eta babesa. Zenbaitetan, herritarren foroak akuilu ere bilakatu dira memoria politikak garatzeko orduan eta gai hauetan udalaren erabaki batzuk bultzatzeko.

Ikus dezagun orain bi foro hauen hastapenak nolakoak izan ziren.

#### Ordezkaritza politikoen mahaiak

##### Taldearen osaketa:

Talde baten osaketak ezinbestean eragin dezake taldearen beraren dinamikan eta mahai hauen eraketa ez da salbuespen bat izan. Hainbat elementu izan behar dira kontutan osaketa hauek ulertzeko. Hiru azpimarratuko ditugu:

- **Mahai hauek hauteskunde-logika batetatik eta haietatik eratorritako indarren korrelaziotik adidentzen dira:** mahai bakoitzak erabakitzen du parte hartuko duten pertsonen kopurua eta alderdi guztiek ordezkaritza kopuru berdina izateko aukera ematen da. Badira ere beste zenbait elementu mahai hauen osaketa hauteskunde logikatik eta hauetatik eratorritako indar korrelazioetatik at daudela bistaratzeko. Adibidez: herri batzuetan, ahalik eta adostasun zabalena lortzeko, herritarren dauden baina udal ordezkaritza izateko boto nahikorik lortu ez duten alderdi politikoa mahaira gonbidatzea ere erabaki dute; udal batzuetan mahaiak parteideak zinegotziak izateko premia agertu den bitartean, beste udal batzuek, aldiz, alderdietako ordezkaritza direnen artean topatu dituzte parteideak, hauek zinegotzi izan gabe; eta alkateak parte hartzen badu, beste mahaiak batek bezala egiten du eta ez alkatearen rolean. Alkateak parte ez hartzea erabaki duen kasuetan, bereak egiten ditu mahai hauetan hartutako erabakiak.
- **Udalean alderdi politiko asko edo gutxi egotea:** batzuetan udalean ordezkatuak dauden alderdiak asko izaten dira eta besteetan ordea, udalean dauden alderdiak bi baino ez dira. Errealitate honek baldintzatzen du mahaiak osatzen dituzten pertsona kopurua. Mahai batzuk 4 kidek osa ditzakete eta beste elkarrizketa gune batzuk 10 lagunek osa ditzakete.
- **Zinegotzia herrikoa edo beste herri batekoa izatea:** indarkeriak baldintzatutako testuinguru batean, egoera berezi batzuk ere gertatu dira hainbat herrietan. Adibidez: alderdiek herriko ordezkariekin osatutako zerrendak egitea lortu ez dutenetan, zerrendak herritik kanpo bizi diren pertsonekin osatu dituzte. Horregatik, baliteke, bizikidetzak mahai batzuetan, udalerrit horretakoa ez den politikariak egotea.

Hauek dira partehartzaileek azpimarratu dituzten elementu batzuk:

*Bilera horretan denak berdina gara, denon iritzia berdin balio du (p9)*

*Danak gero herriko ordezkaritza (p4)*





*Alkateak alkate izateari uzten dio bertara sartzen denean eta beste zinegotzi bat gehiago denean, gainerako zinegotziak bezala (p5)*

*Atea ixten da eta barruan gertatzen dena beste istorio bat da, eta egia da beste istorio bat dela, harreman pertsonalak desberdinak dira elkarrizketen barruan, tonuak, barruko bizikidetzak eta kanpokoak desberdinak dira (p5)*

## Lehenengo urratsak:

Mahai politikoetan partehartzeko politikariek aipatu dituzten arazoien artean erantzukizuna izan da gehien errepikatu dena. Honez gain, politikariek beste bi elementu nagusi azpimarratu dituzte: desberdinen arteko elkarrizketaren beharra zauriak sendatzeko eta une batzuetan eroso edota ezinbesteko izan den isiltasuna gainditzearen beharra belaunaldi berriekin dugun konpromezuak eraginda.

*Ados ginan danak elkarrizketa bide bat hasteko (p2)*

*Bazeuden zauri ezberdinak herrian eta herriak beharra ikusten zuen hauek lantzen juteko eta herriatik sortu zan (p3)*

*Hemen ikasi dugu danak isilik egoten. Isilik egote horrek, askotan ekarri du, gai asko ez trasladatzea. Eta horiek ez baldin bdaira trasladatzen, bealaunaldi berriak ez dute jasotzen. Orduan, nik uste det, hori daukagula motxilan, motxilan daukagu gai batzun inguruan ez baldin bada hitz egiten, askoz ere hobe, ba ordun isilik gelditzen gara (p4)*

Mahai hauek martxan jartzeko unean, ezinbestekoa izan zen alderdiek hartutako erabakia. Orokorrean, alderdi guztiek ikusi eta baloratzen dute, toki mailan, parte hartzearen garrantzia eta espektatiba desberdinak izan arren, guztiek ikusten dute "egon beharra".

*Egia esan, ez genuen uste alderdien mahai honek zerbaitetarako balioko zuenik, baina parte hartzen hasi ginen (p1)*

*Alderdi barruan ere eragin izan behar dugu, soka eten gabe, baina soka tiratzea tokatzen da, liderra zera eta. Hortan ere barne lanketa egin dugu, baina hasieratik nuen oso garbi hori tokatzen zitzaidala egitea (p3)*

Ordezkaritza politikoaren mahaien kasuan, hauen osaketa gertatu zen momentuak ere determinatzen du nork eta nola bultzatu zuten prozesua bera. Mahai hauetan parte hartu duten elkarrizketatutako gehienek prozesuaren bultzada kolektiboa azpimarratzen dute hauen hastapenetan eta elkarrekintza pertsonalen lanketak honetan guztian izandako garrantzia ezinbestekoa dela aipatzen dute.

*Prozesua martxan jartzeko erabakia kolektiboa izan zen (p2)*

Aipaturiko "bultzada kolektiboaz" gain, badira herri askotako mahaiak abian jartzen

lagundu zuten bi elementu zehatzago ere: inguruko herrietan horrelako prozesuak ematen ari zirela ezagutzeak, batetik, eta Aldundia berak bizikidetzaren inguruan sortutako programen bitartez xede honetarako dirulaguntzak ematen zituela jakiteak, bestetik. Kasu hauetan ere azpimarratzen da kontsentsuaren garrantzia, baina beste faktore batzuek pisu zehatza izan zuten honen inplementazioan..

*Alderdi guztien adostasuna izan zen, baina Aldunditik zetorren eta alkatetzatik sortu zen proiektu baten proposamena izan zen (p1)*

Badira ardua politikoetara mahaiak abian jarri baino beranduago iritsitako pertsonak ere. Hauek ez zuten zuzenean prozesua martxan jartzeko erabakia hartu baina beraien esku egon zen prozesuak jarraitzeko erabakia. Kasu hauetan ere, guztien arteko akordioa ezinbestekoa izan zela azpimarratzen da, baita mahaiarekin aurrera jarraitzeko borondate irmoa ere..

*Jaso nuen mahai politiko bat martxan eta herritarren mahia ere martxan, eta bai mahai politikoa erabakita ba bai memoriaren lanketa hori egin beharra zegoela eta eztabaida hori pil-pilean zeola jaso nuen nik mahaiak (p3).*

Bestalde, mahai hauetan parte hartu duten politikari guztiek azpimarratu dute alderdiek askatasun osoa eman dietela bizikidetzak sustatzeko dinamika hauetan lan egiteko.

*Alderdiak erabat libre sentitzen naiz bizikidetzak lantzeko, eta ez didate inoiz esan nondik joan beharko genukeen (p5)*

*Alderdiak errespetu osoz tratatu gaitu beti. Gure herrian behintzat, nahiko libre utzi gaitu (p9)*

*Alderdiak ez dit inoiz planteamendua zalantzan jarri eta ez didate esan zer egin behar nuen bizikidetzaren arloan. Inola ere ez (p1)*

*Ez zen mugarik egon, ez, ondo ikusi zen. Horrelako espazioak ongi ikusi ziren, seguraski beldur gehiago bai, baina herri mailakoak ziren (p2)*

Mahaietan landutakoa alderdiei ezagutarazten zaiela ere esan dute eta bakar batek, muga batzuk badaudela ere aipatu du, hauek esplizitu egin ez arren.

*Daukagu askatasun osoa eta gero traslado egiten dugu (p4)*

*Nik uste dut, herrietan jendea baldin badaukazu, herrietako jendearengan konfiantza izateko ere badela, ezta? Baina bai, jakina, nik mugak ditudan bezala, guztiok daukagu mugak, alderdikoak izan edo dena delakoak izan (p8)*





## Herritarren foroak

Esan bezala, programaren baitan herritar foroak ere eratu dira herri askotan. Programak baldintza gisa ezartzen ez badu ere, sustatu egiten da hauen eraketa eta herri askok ulertu dute herritarren foro batek izan dezakeen garrantzia. Herritarren foroek ordezkari politikoek osatutakoen antzeko lan-oinarri komunak eta logikak dituzte, baina hauen garapenak beste bide batzuk dituela esan dezakegu.

### Taldearen osaketa:

Herritarren foroak lau modutara eratu dira:

- Eremu politikoarekin lotura izan dute herritar foro askok sorreran: udal-ordezkaritza zuten alderdiek deitu baitzituzten parte-hartzaileak, nahiz eta gero era autonomo batean lan egin duten eta bere burua bakarrik ordezkatzan dutela argi duten. Formula honen helburua izan da, oro har, horrela osatu diren herritarren taldeek sentsibilitate desberdinetako pertsonak osatzea.
- Prozesua abian zegoen udalerrri batzuetan, deialdi publiko irekiak egin dira gai hauetan lan egin nahi duen pertsona oro gonbidatuz.
- Herritarren ekimenez ere sortu dira elkarrizketa gune batzuk.
- Eta bestelako deialdiaren baten testuinguruan ere sortu dira espazio batzuk.

Sistematizazio lanak bistaritzen digu, herritarren foro gehienak udalak sustatuta jarri zirela abian. Elkarrizketatutako herritar gehienek, udaletik dei bat edota gutun bat jaso zutela diote.

*Udaletxeren eskutik (h2)*

*Udaletxetik karta bat etorri zen esanez bizikidetza foro bat egingo zela (h3)*

*Udal gobernutik deitu zidaten (h8)*

*Udaletxetik (h10)*

Batzuk, udalerrian antolatutako bakegintzaren arloko ekimen desberdinetan parte hartzearen ondorioz izan zuten foroaren berri eta elkarte hauen gomendioz edo proposamenaz erabaki zuten parte hartzea.

*Bakeari eta bizikidetzari buruzko jardunaldi batzuetan parte hartu nuen ... mezu elektronikoa bat jaso genuen gonbidapen batekin ... talde bat osatzeko eta bertan parte hartzeko, foro sozial bat, bizikidetza berrezartzeko ... eta esan nuen, hori ezin dut galdu (h5)*

*Hasi ziran topaketak egiten horren inguruan, nik parte hartu nuen eta han ireki zan aukera horrelako foro batean hasteko (h6)*

*Bazegoen Elkarriko talde bat... Elkarriko ibilbidea bukatu zenean, guk ere planteatu genuen bueno ba, jarraituko dugu ... eta erabaki genuen mahai hortan egon ez zen jende bat ere egotea... eta hor abiatu genuen bizikidetza foroa (h7)*

Bakar batek, biktima batek, hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzak deitu zuela dio.

*Hasieran Eusko Jaurlaritzako saila jarri zen nerekin kontaktuan (b5)*

### Lehenengo urratsak:

Garrantzitsua deritzogu azpimarratzea, herritarren foroetan parte hartu dutenen gehiengoak ibilbide edo konpromezu publiko/politiko bat izan duela aurretik: bai alderdi politikoren bateko militante izanez, bai gizarteko auzi desberdinen inguruan sortutako elkarreetan parte hartuz, baita erantzukizun publikoa izanez ere, kasu batzuetan. Konpromezu eta ibilbide hauen parte bezala ikusten dute foro hauetan parte hartu izana.

*Kargu publikoetan eta ardura publikotan egon naiz. Politika beti interesatu zait (h2)*

*Ni ibili naiz Elkarri eta Lokarrin eta interesa eduki det bizikidetzarekiko gai honetan, (h6)*

*Konpromiso politikoa izan dut, militantzia bat... aurrera bideko mezu positibo bat emateko (h7)*

*Beti arduratu izandu naiz egoera politikoaz (h3)*

Ibilbide hau izan ez duten gutxiak ere, konpromezua eta "aktibismoa" aipatu dute foroetan parte hartzeko motibazio nagusi gisa. Honela, ardura, erantzukizuna, konpromezua, jakinmina, zerbait berria bilatzeko aukera, ekarpen txiki bat egiteko aukera, aurrera begiratzeko mezu positibo bat bilatzea izan dira hiritarrek espreski erabili dituzten kontzeptuak foro hauetan parte hartzearen arrazoiak azaltzeko eta foro hauen lehen pausuak ulertzeko.

*Zerbait berria bilatzeko, zerbait berria sortzeko. Jakinmina (h1)*

*Herritar bat naiz, auzokide bat, gai horiekiko kezka duena (h5)*

*Ekarpen txiki bat egiteko (h8)*

*Egin beharrean geundela memoria hori (h9)*

*Oso pertsona aktiboa naiz, aktibista, konprometitua,... eta sentsazioa dut gaur egun ibilbide bat dugula egiteko (h10)*







Biktima izatearen baldintza edo ezaugarri hori aipatu dute biktimek mahai eta foroetan parte hartzeko motibazio nagusi bezala. Biktima izatearen kondizioa, horrek ekarritako sufrimendua eta bizikidetzaren aldeko apustu argia dira guztiek azaltzen dituzten arrazoiak.

*Gure etxen beti izan gea bizikidetzaren aldekoak eta gorrotorik ez (b1)*

*Indarkeria gaitzestekoak eta bizikidetzari, entzuteari eta enpatiari laguntzekoak (b3)*

*Honetan parte hartzen dut nire aita hil zutelako orain dela 26 urte (b5)*

Motibazio hauek garrantzitsuak izan dira foro hauen lehen urratsak ulertzeko.

Gainera, guztiek argi utzi dute, sentsibilitate desberdinak egotea inportantea den bezala, inork ez duela inoren ordezkari izateko enkargurik edota borondaterik izan.

*Nik ez nuen inor errepresentatzen, bakarrik nere burua (h1)*

*Guk geure burua baino ez dugu ordezkatzeko, ezin genuen ideia politiko edo erlijioso bat ordezkatzeko joan... hemen nago nik neure burua ordezkatzeko dudalako (h5)*

Herritar foro bakoitza desberdina izan da eta berezko prozesuak bizi ditu. Baina badira herritar ibilbide guztiek partekatzen dituzten zenbait ezaugarri: partaidetza borondatezkoa da, ez dute euren herrietako bizikidetzan ekarpen bat egiteko ardurarik, beraz prozesuan sartu eta irtetzeko askatasuna dute, partekatzen dituzten helburuak dira elkarriketa guneari zentzua ematen diotenak, eta modu autonomoan lan egiten dute.

## Dinamizatzailearen aukeraketa:

Foroen eta mahaien hasierako dinamikekin lotura handia izan du dinamizatzailearen aukeraketak. Hasieran oso artikulatua ez bazegoen ere, pixkanaka hiru alternatiba nagusien artean artikulatu da erabaki hau: **Bakeola EDE Fundazioa, Baketik eta Berbari Lekua** (aurretik, Lokarri). Bakoitzaren hautaketarako arrazoiak ezberdinak izan dira eta udal ordezkari askok azpimarratzen dute alderdiekin ere kontsultatu zutela. Aukeraketa honen arrazoiaren artean ere, elkarte bakoitzak izan zezakeen ibilbidea egon da, hasierako konfiantzak eraikitzeke ezinbestekoa izan dena. Orokorrean, prozesu gehienetan dinamizatzailea hautatzeko erabakia kontsentsuz hartu dela baieztatu dezakegu. Era berean, denbora eta legegaldia pasa ahala, hasierako "aurre-etiketak" ere desegin dira pixkanaka, udaletan arduradun politiko ezberdinak igarotzearekin batera..

*Bizpahiru enpresa aztertu genituen eta, tira, botoa eman genuen (p5)*

*Egin genituen elkarrizketak banaka, eta alderdi guztien erabakia izan zen (p9)*

*Nik proposatu nuen Lokarriekin egitea eta bertako gehienok ongi ikusi genuen (p2)*

*Hiruren aurrekontuak aurkeztu ziren, eta guk alderdiari galdetu genion, eta alderdiak Baketik izatea gomendatu zigun (p1)*

*Ba Bakeola zegoen aurreko legegaldian ere eta gustura zeuden... lanarekin eta guk ez genuen eten. Nahi genuen jarraitu lan ildo horretatik (p3)*



Jose Ignacio Iruretagoienaren omenaldia Zarauzko Udalean

## Gipuzkoako Foru Aldundiarekin harremana:

Ordezkaritza politikoen mahaiak eta herritarren foroek modu desberdinean ikusi eta baloratu dute Aldundiarekin izandako harremana. Herritar foroetan parte hartu dutenek ez dute bere presentzia somatu prozesuetan eta Aldundia udalen finantzatzaile bezala identifikatu dute gehienetan.

*Nik ez det sumatu... egin genuen horrelako bilera bat... baina gero, ez da egon jarraipenik edo baloraziorik... nik behintzat ez dut jaso (h6)*

*Ez. Aldundiarena ez (h9)*

*Gurekin ez. Dinamizatzailerekin harremanak izan ditugu, eta, jakina, Aldundiak ahalbidetzen ditu dinamizatzailere horiek. Aldundiarekin izan dudak komunikazio bakarrik elkarrizketa hori izateko jaso nuen posta elektronikoa da (h10)*

*Nik ezetz uste dut ... ez dut ezagutzen, beno, ez dut gogoratzen (b3)*

*Ez. Gure kasuan bakarrik Udaletxea egon zen (b5)*

*Aldundiak sustatu egin du, babestu egin du, diruz lagundu egin du ... lagundu du... udalak ere bai (h7)*

Politikariek, aldiz, Aldundia kontsultak egiteko espazio nagusi bezala identifikatu dute.

*Aldundia beti izan da figura bat kontaktatu duguna, edozer gauzatarako. Bai aurreko zuzendariarekin eta baita lon berarekin. Harreman pertsonala daukagu eta oso gertukoa da (p9)*

*Beti izan dut harremana Aldundiarekin (p1)*

## 3.2.3 Aldagaien analisia: garapena (indarguneak eta ahulguneak)

Prozesuen garapenean garrantzia duten elementuak zerrendatu ditugu metodologiari eskainitako atalean. Oraingoan, talde hauetan parte hartu dutenen balorazioaren sintesi bat aurkeztuko dugu, prozesuek dituzten indargune eta ahulguneetan zentratuz.





## Indarguneak

Bizikidetzak mahai eta foro desberdinetan parte hartu duten pertsonen horrelako prozesuek dituzten indarguneak identifikatu dituzte eta bat datoz hauen aukeraketan: 3 izan dira, nagusiki, identifikaturiko indargune nagusiak:

- erraztatzaile edota dinamizazioaren ardura izan duten pertsonen lana
- foro eta mahaietan parte hartu dutenen jarrera eta aldartea
- eta aniztasunetik abiatuta, adostasunak lortu izana (edo lortzeko egindako ahalegina)

Parte hartzaileen gehiengo handi batek, erraztatzaileen lana ezinbestekotzat jo du: prozesuen hastapenetan, mahaikideen arteko harremanak egiten laguntzeko egokia den giroa sortzeko orduan oinarritzotzat jo dute hauen lana (konfiantza, konfidentzialtasuna eta diskrezioa bermatuz) eta prozesuan zehar, prozesuak eskatzen dituen baldintzak betetzen laguntzeko ere (errespetua, entzutea, aurriritziak alboratzea, tentsioak gainditzeko laguntzea, adostasunak identifikatzen laguntzea, gai zehatz batzuren inguruan lanketak egitea proposatzea...) oso garrantzitsua izan da erraztatzaileen jarduna.

*Indargune nabarmen bat, pasada bat, lagundu du bilatzen beste hizkuntza batzuk... izan da ispilu bat... haria... zaintza... konfiantza giroa sortzeko... laguntza (h1)*

*Oso oso inportantea izan genuen bitartekaria... kriston lana egin zuen... funtsezkoa, soka askatzen eta soka lotzen, bideratzen... estutu gabe... zaindu (h2)*

*Oso lan ona egin du (h4)*

*Indargune bat izan da bideratzaileak izan duen papera... laguntzea, espazioa ematea... eztabaida bideratzea... guztia jaso eta ordenatzea... errelato horretan guztiak ados jartzea (h7)*

*Funtsezkoa bere estiloagatik... eskarmentu handiko pertsona... erreztu, jarraibideak eman... gidaritza lan hori oso argi egin zuen (h8)*

*Funtsezkoa... beak markatzen du gure beharretatik abiatuta... oso ondo betetzen duela bere lana. Errespetu handi batetik... badaki entzuten, ez du mozten (h9)*

*Funtsezkoak dira metodologia bat duten pertsonak direlako ... Talde horiek ezin dute dinamizatzaileak gabe funtzionatu (h10)*

*Oso baliagarriak esatekoak esaten laguntzeko... tenplea, errespetua... izan da oinarria taldea egiteko... oso eroso sentitzen gara (b1)*

*Dinamizatzailearen zeregina guztiz funtsezkoa da ... gidatu egin gaitu ... errespetua ... konfiantza, lasaitasuna (b3)*

*Oso ondo... barrutik atera ziguten guk sentitu eta bizi izan genuena (b5)*

*Egindako danak ez ziren posible izango bitartekaritza lan hori gabe (p4)*

Herritar batzuek, nahiz eta dinamizatzaileen funtzioa ezinbestekotzat hartu eta aurretik esandakoak bermatu, ñabardura desberdinak eta beren artean kontrajarriak ere egin dituzte. Batek, dinamizatzailearen "akuilu" lanak azpimarratu ditu.

*Oso gogaikarria izan zen, asko zirikatatu gintuen (h5)*

Beste batek, aldiz, faltan eman du dinamizatzaileak modu argiago edo zuzenago batean parte hartzea.

*Batzutan igual epelegi bezala... nik ondo ikusi dut... niri egiteko era gustatu zait. Ez du markatzen, baino laguntzen du ... momentu batzuetan eskatuko nion igual beak epeak gehiago markatzea (h6)*

Bakarra izan da gai honi garrantzia eman ez dion herritarra.

*Ez dugu hori hitz egin (h3)*

Politikariek ere ezinbestekotzat jo dute erraztatzaile edo dinamizatzaileen lana. Batek, gainera, hauen artean dauden desberdintasunak ere azpimarratu ditu mahaiek egindako lana ere baldintzatu dezaketela esanez.

*Oso garrantzitsua da bitartekaria nor den. Nik hainbat bitartekari izan ditut, eta asko nabaritzen da. Alde handia dago batzuen eta besteen artean (p1)*

Parte hartzaileen jarrera edota aldartea pertsonala izan da elkarrizketatuek prozesu hauetan identifikatzen duten beste indargune bat. Jarrera edo aldartea deskribatzeko eta baloratzeko orduan, parte hartzaileak bat datoz elementu nagusien identifikazioan: guztion gogoak, konpromesua, errespetua, "besteak"/"diferenteak" entzuteko prestutasuna, aurriritziak baztertzeko gaitasuna eta bestearengana gerturatzeko ahalegina izan dira guztiek aipatutako elementuak. Eta hauek, bai herritarrek eta baita politikariek ere identifikatu eta aukeratu dituzte.

*Inplikaturako taldea (h10)*

*Indargunea gu geu garela... ahalegina, errespetua, entzutea (h9)*

*Ginenon konpromisoa, zintzotasuna, honestitatea, ahalegina (h2)*

*Hitz egitea, elkar errespetatzea, entzutea (h5)*

*Guretzat lorpen bat izandu da gure arteko komunikazioa... deskubritu izan dugu beste herritar batzuk... biktima mota guztiak nahi ditugula ezagutu (h6)*

*Guztiak gure espazioa izatea, konfiantza, errespetua... ahalengintzea besteekiko aurriritziak kentzea (h7)*





*Errespetua, empatia, sinpatia, konfidantza (h8)*

*Guztiok egiten dugu konpromiso bat aurrera egiteko, bestela hau ezinezkoa izango zen, ez zen posible izango (p9)*

*Beste errealitateak ezagutzeko lehenengo eskutik... bakoitzaren egia entzutea (b1)*

*Lagundu du sufrimendua gertutik jasan duten pertsona horiei argia ematen eta izena eta aurpegia jartzen ... hurbiltzen, gure iritzia ematen... zure herriko jendeak hori entzutea ... aintzatespena (b3)*

*Bera gidatzen zuena biktima izan zen eta aurrera egiteke zegoen alderdi bat zela (p1)*

Elementu nagusi hauez gain, badira mahaikideek azpimarratu dituzten beste batzuk ere bai: taldearen iraunkortasuna eta udal mailan egitea, bi elementu inportante izan dira horrelako prozesuek eskatzen duten konfiantza maila sustatzeko eta bermatzeko.

*Taldea, oro har, mantendu egin da (h10)*

*Bertakoa denez, enpatizatzeko aukera ematen dizu, gehiago enpatizatzeko eta bestearen larruan gehiago jartzeko aukera ematen dizu, eta, agian, gauza jakin batzuk hobeto ulertzera eramaten zaitu (p8).*

*Nik indargune bezala jarriko nuke, prozesuaren indargune nagusia da herritik sortutako zerbait izan dala, eta auspo hori ez du amaierarik (p3)*

Konfiantzazko espazio hori sortzeak erraztu du "defentsarik" gabe edo askatasun osoz hitzegitea eta autokritikari ere espazioa ematea.

*Baldintzarik gabe joan beharra dao... defentsak utzi egin behar dira (b1)*

*Indargunea da edukitzea askatasuna espazio batean esateko sentitzen duzuna, inongo mugarik gabe (p2)*

*Iritsi ginen bakoitzak bere autokritika egitera... biktimen lehentasuna (h8)*

Hau guztia egiteko, izaera indartsu baten beharra ere azpimarratu dute herritar batzuk.

*Jende indartsua (h2)*

Aniztasunetik kontsentsuetara iristea izan da bizikidetzaren foro eta mahaietan parte hartu dutenek identifikatu duten hirugarren indargune nagusia. Guztiek ikusi dute beharrezkoa foroak eta mahaiak anitzak izatea bai adinaren aldetik, bai generoaren aldetik eta baita sentsibilitate aldetik ere. Baina aniztasun hau ere izan daiteke adostasunak lortzerako garaian oztopo edota zailtasun bat. Horregatik, beharrezko ikusten den aniztasun horretatik abiatuta adostasunetara iristea indargune nagusi bezala identifikatu dute eta lorpen handizat hartu dute. Honek, eskuzabaltasuna erakusten duelako; guztiek utzi behar izan dute zerbait alboan.

*Bakoitzak bere errelatoa zeukan, bakoitzak bere bizipenak genituen... Hasieratik garbi geneukan pretensio ezin zuela izan adostea gure errelatoak edo gure diagnostikoak (h8)*

*Denon ahotsal jaso eta errelato monolitiko bat ez egin (h1)*

*Bakoitzak bere ñabardurak ematea (h2)*

*Errelato "poliedrikoa" (h7)*

*Biktima ezberdinak elkartzea eta besteen bizipenak eta testigantzak entzutea, niretzako hori da indargunetako bat, eta gizarteari hori azalera (b5)*

*Bizikidetzako oinarrietako bat da kontsentsuz hartzen direla erabaki guztiak. (p9)*

*Denok identifikatuko gintuen zerbait... akordio etiko bat lortu genuen (h5)*

*Egin dugu "errelato etikoa"... nahi genuen denok ados egotea... gai izan gara (h7)*

*Egiten diren ekimen guztiak, erabateko adostasuna dutela, horregatik gaiak jorrazteko denbora asko behar izaten dugu (p4)*

*Oroimenarekin eta bizikidetzarekin zerikusia zuen guztia han eramaten zen, eta egia da denek errespetatu dutela, baina hura indargune bat da (p1)*

Prozesua berari garrantzia ematea emaitza konkretuen ginetik ere izan da herritar bakarren batek aipatu duen beste indargune bat.

*Prozesua izan dela erdigunean, ez emaitza (h1)*



Legazpiko herritar foroak antolatutako ekitaldia



## Ahulguneak

Baina horrelako prozesuek ere izaten dituzte beraien bidean askatzeko zailtasunak suposatzen dituzten korapiloak. Korapilo horien askatzeak eta hauek identifikatzeko moduak jartzen ditu gehienetan agerian prozesu guztiek izandako ahulguneak. Elkarrizketatu gehienek identifikatu dituzte ahulguneak nahiz eta kontsentsu zabal baten baitan, honek ez dituen prozesuak zalantzan jarri. Are gehiago, elkarrizketatuek hauetatik ateratzeko eta aurrera egiteko gaitasunek prozesu gehienak indartu dituztenaren ideia azpimarratu dute.

Aipatutako ahultasunetako lehenak (eta espazio gehien okupatzen dutenak) nor bere sententzioen kudeaketarekin loturikoak dira. Horrelako espazio batean egoteak asko astintzen ditu parte hartzaileen bizipen eta emozioak eta emozio hauen kudeaketak eragiten ditu, funtsean, prozesua aurrera eramateko zailtasun nagusienak. Emozio hauen kudeaketak pertsonen egoera animiko orokorra baldintza dezake.

*Bilera hauek neretzako beti dira oso tentsoak.[...] Ya egun horretan goizetik dauzkat tripak mugituta bilera dugulako, eta bilera amaitu arte, beno behar det beste egun bat bilera digeritzeko (p9)*

*Eskatzen du esfortzua... emozionalki gaude denbora guztian gure mugak ikutzen ... mina sostengatzea (h1)*

*Ahuleziak ere gu gea... atzetik daramagun karga (h9)*

*Esfortzua eta ahalegina eskatzen du. Batzuetan gogorra ere zan... igual ez dala eguna eta barneak usteko gogorik ez daukazu (b1)*

*Gogorra da, zauria beste behin irekitzea da... gero etxera zoaz zauri hori irekita duzula eta berriro itxi behar duzu (b3)*

*Hasiera gogorra, barruak, tripak... publikoki hitzegitea oso zaila da eta zure herrian gehiago... barrukaldeak asko mugitzen dira... nire aitaren kasua ez da errekonozitu... hor dago arantza bat... sentitzen gara bigarren mailako biktimak (b5)*

Egoera animikoarekiko sortzen diren gorabehera hauek eragina izan dute askotan taldearen jarraikortasunean. Hau oso nabaria izan da, nagusiki, herritarren foroetan non hasierako espektatiben ez betetzeak, prozesuaren luzerak edo bidean sortzen diren beste elementu batzuk baldintzatu egiten duten pertsonen beraien konpromiso eta mantentzea.

*Jendea hasi eta utzi egiten du (h3)*

*Taldea txikitzen joan da... 4 lagun gelditu gea. Foroa irekita dago baina ez degu garbi ikusten nola iritsi (h4)*

*Taldea gutxitzen joan da... Hiru gaude (h6)*

*Jendeak taldea uztea arrazoi desberdinengatik (h7)*

*Pertsona batzuk talde uztea (h8)*

*Pertsona batzuek utzi egin dute (h10)*

*Egon ziren uzteak, nik uste dut alde batera utzita hasieran beste zerbaite espero zutenak, izan zirela horren prozesu luzean ematen direnak (h2)*

Edozein kasutan, parte hartzaile gehienek azaltzen dutenez, konpromiso hau izan da, nagusiki, pazientziak osaturik, azken helmugara iristeko adorea eta indarra eman diena.

*Pazientzia jarraitzeko, iristeko istera (h7)*

*Ez dut uste onkerian erori ginenik... kontentzio gehiegi izan ote genuen (h8)*

*Hastea ez zitzaidan batere zaila egin. Zailena, jarraitzea (p5)*

*Daude momentuak ez direnak erosoak, baina ya bidean bilerak izaten dira tensoak, baina uste dut urtetik urtera hobera goazela (p9)*

Eta jarraikortasunarekin berarekin ere lotuta azaltzen den beste aldagai bat, ahuldade nabarmen gisa azaldu dena: erreleboen prozesua. Mahai politikoetan nagusiki, legegintzaldi aldaketak pertsonen aldaketa bat suposatu du kasu gehienetan. Honek berriro hastea dakar, prozesuan dagoeneko emandako pauso batzuk errepikatu behar izatea eta hau ez da eroso izaten denbora gehiago daramaten pertsonentzako.

*Belaunaldien arteko erreleboa da aurkitzen dudana ahulezia bat. Zerrendak berri eta jende berria sartzen denean, gelditu egiten da, eta memoria historiko bat galtzen da (p1)*

*Azkenean jendea aldatzen geala lau urtez behin eta askotan, gauza hauek, pertsonaren borondatean edo begiradapean gelditzen direla (p3)*

*Baina iristen da momentua iristen zaizula bat eta esaten dizu "ni berria naiz", ez barkatu, berria ez "orain ze naidek, eskuk garbitu ta atzetik pasatako dana ahaztu dezagun ta hasi gaitezen aurrera atzera begiratu gabe? Ni ez nauk ahaztutzen hemengo biktimetaz, hemen jasandakotaz eta. Rekonozituzak". Ez al du balio hasteko errekonozimendu bat ikasitakoaz? (p7)*

Azkenik, jarraikortasunarekin lotura zuzena duen beste aldagai bat, egoera animikoan ere eragin zuzena izan duena, prozesuek iraun duten denbora izan da. Kasu askotan, prozesuari garrantzia ematen bazitzaion ere, bilerek eskatzen zuten dedikazioa luzea iruditu zaie parte hartzaileei, geldotasunaren sententzia ere emanez.





*Luzea, nekagarria (h1)*

*Luzeegia... arrazoiak egon ziren luzeegia izateko baina... ez da horren luzea izan behar (h2)*

*Bai, bai. Geldotasuna. Batzutan Aitziberrek egin behar izaten digu, repaso bat egin genunari buruz, zeren batzutan, geldotasun horrek ekartzen du horrelako neke bat. Eta jo, jendeak ez dauke interesik edo iada gaindituta dauke (p4)*

Beste zailtasun nabari bat, ziurgabetasunaren kudeaketak eman duena izan da. Prozesuaren izaerak bere horretan izan du pausoka eraikitzearen beharra. Honetan, parte hartzaile ezberdinek adierazi dute nola, oso egituratuta dauden espazioen aldean, bakoitzaren eskaera eta logikekin oso argiak, kasu honetan norabidea bakarrik ezagutzeak zaildu egiten zuen aurrera joateko gaitasuna.

*Ez edukitzea garbi zer egiten ari garen (h1)*

*Zein da bidea? ez genekien ondo zertara gentozen (h2)*

*Da gai bat horren delikatuia que en cualquier momento salta todo por los aires (p9)*

Era berean, ziurgabetasunaren kudeaketa nor bere espektatiben betetzearekin ere oso lotuta dago. Nor berak zer nahi duen, eta maila batean zer espero duen bertaratutakoan, horrek ere determinatzen du bidean zehar izango duen jarrera eta azken emaitzekin geratu dakioken zaporea ere.

*Zertarako balio du? Ze lehengo lepotik burua ... nik espero nun ez da izan... baliogarria izan da, beti ikasten dezu, baina azkenean ez zan izan esperotakoa... nik nahi det argitzeko behintzat, rekonozimendu bat eta hori ez da iritsi (h3)*

*Traizionatuko zaituzten, erabiliko zaituzten beldurra (alderdi politikoez ari da) (b3)*

*Zuk askotan ikusten dezu ez dela lortzen zuk nahi dezuna, askotan gutxieneko batzuekin konformatu behar duzu (p9)*

*Udaletxeko mahai politikoa osorik ez egotea... Nahi da iduri bat eman baino azpian ez dago ezer, o sea, dana da itxura (h6)*

Identifikatutako azken ahultasuna taldeen aniztasunaren kudeaketarekin lotuta egon da. Hiritarren espazioetan nagusiki, asko azpimarratu da pertsona guztiek bilatu nahi zituztela ahalik eta dibertsitate handiena islatzen zuten espazioak eta honek perfil eta ideologia ezberdinetako pertsonen presentziarekin lortu beharra zegoela. Honi, adina edo generoa bezalako ezinbesteko aldagaiak batzen badizkiogu, aniztasunaren afera espazio guztiek izandako erronka izan dela ikusiko dugu. Maila batean, hiritarren espazioak ere oso modu politikoan eraikiak izan baitziren, eta garrantzitsua

konsideratzen baitzen sentsibiltate politiko guztien presentzia bertan.

*Hasieran baita aniztasun politikoa ez zela hain handia baina gero jende gehiago sartu zen (h1)*

*Kostatu zitzaigun borobiltzea... espektro ideologiko, politiko eta sozial bat edukitzea... eta belaunaldi diferenteetako jendea egotea... kostatu zitzaigun taldea sendotzea (h2)*

*Ez izatea jende anitza, sentimendu maila ezberdinak ez dira egon (h6)*

*Adin aldetik ez da oso anitza (h9)*

*Ez daukagu kontrastatzeko beste aldeko iritzi bat (h3)*

*Taldea gehiago zabaltzea... gazteagoengana... ez degu lortu gehiago irekitzea (h4)*

*8 bat lagunek osatzen dugu, emakume gutxiago gaude eta gazte asko ez dago ... ahulezi bezala, un poquito homogéneos (h9)*





## 3.2.4 Aldagaien analisia: itxiera eta kanpo sozializazioa

Prozesuen iraupenak desberdinak izan dira. Baditugu, hiru, lau, bost edo zortzi urte iraun dituzten prozesuak. Baina iraupena iraupen, prozesuek amaiera bat izaten dute eta itxiera ere bada prozesuen fase inportante bat eta hastapenetan edota garapenean bezalaxe, gune bakoitzak bilatu du prozesua ixteko bidea eta modua. Udalerri batzuetan, adibidez, herritar foroak itxi egin den bitartean, ordezkari politikoen mahaiak jarraitu du lanean. Beste batzuetan, herritarren foroak ez dira itxi baina ordezkari politikoen mahaiak zenbait etenaldi bizi izan ditu. Ordezkari politikoen mahaiak ezagutu dituzten etendura hauek bilakaera desberdina izan dute: kasu batzuetan eta denbora baten ondoren prozesuak berrabiarazi egin dira eta egoera horiek ibilbideen garapenearen parte bezala ulertu dira eta ez itxiera fase bezala. Aldiz beste kasu batzuetan, etendurak elkarrizketa gunearen itxiera iraunkorra suposatzeaz gain, prozesuaren amaiera ekarri du, ez bait dira bizikidetza lantzeko bestelako moduak aurkitu. Beste kasu batzuetan, berriz, etenaldiak ez du ekarri bizikidetza sustatzeko lanketaren amaiera, ordezkari politikoen bizikidetza sustatzeko bestelako moduak eta ekimenak gorpuztu dituztelako, hau da, hauetan, prozesuak nolabaiteko bilakaera izan duela esan dezakegu, ekimena hartu duten eragileak aldatu direlako. Kasuistika honek, aurreko ataletan aipaturiko elkarrizketa gune desberdinen lanen autonomiaren ideia indartzen du.

Herritar foroen itxierak ez dira egun batetik bestera ematen barne hausnarketa baten ondorioz eta modu adostuan ematen delako. Eta ibilbidea amaitutzat ematen denean fase berri bat abian jartzen da. Desberdintasunak desberdintasun, foro eta mahai guztiek agertzen dute herriko bizikidetza eremuan ekarpen bat egiteko nahia eta nahi horrek, une batean zein bestean, elkarrizketa gunea publiko bilakatzea suposatu du. Badira lanean hasi eta urte batera herri mailan ezagutzera eman direnak, nagusiki talde barruan lorturiko konfiantza eta kohesio mailaren berri emateko eta lanean jarraitzeko bere borondatea adierazteko. Baina badira ere, itxiera fasea iritsi arte modu diskretuan funtzionatu duten mahai eta foroak. Euren lanketa nagusia barne hausnarketa izanik, gizarteari hausnarketa horren ondorioak aurkezteko moduan izan arte publiko egin ez direnak. Beraz, kasu batzuetan itxiera fase hau izan da "gizarteari ekarpen bat" egiteko helburu horri ekiteko unea, eta beste kasu batzuetan jada egindako bestelako ekarpenei gehitzen zaion azken ekarpena izan da. Baina kasu guztietan bi izan dira ibilbidea ixteko erabakia hartzeko gailendu diren arrazoiak: barne hausnarketaren agenda (zergatik gertatu zaigu gertatutakoa, zer gertatu da, zer ikasi dugu, autokritika...) amaitutzat emanda helburu nagusia betetzat ematea batetik, eta lanean jarraitzeko helburu berriak ez adostea, bestetik.

Itxiera faseak, berezko lanketa batzuk eskatzen ditu. Fase honetan nekea eta urduritasuna ohikoak izaten dira. Nekea, prozesuak esfortzua eskatzen duelako (gaiengatik eta aurrera pausoak kontsentsuz eman behar direlako). Urduritasuna, azken adostasunak kudeatu behar direlako eta esperientziaren baliagarritasuna eta fruituak baloratzeko unea delako. Fase honetako lanketa nagusiak hauek dira:

partekatzen dena eta ez dena argitzea eta ondo identifikatzea eta identifikatu ondoren, kontakizun partekatua edo kolektiboa adostea. Orokorrean, azken adostasunak oso aurreratuta zituzten eta jada bizitutako prozesuaren berri herri mailan emandako mahai eta foroak sei hilabeteetan itxi dute prozesua. Aldiz, erabakia azken adostasunak lantzen ari zirela hartu zuten mahai eta foroek eta bizitutako prozesuaren kontaketa sakonean murgildu diren guneek urte bat edo bi urte behar izan dute fase hau ixteko. Eta, noski, Covid-19 egoera garaian lanketa honi ekin dioten elkarrizketa guneek, egoerak eragindako zailtasunak ere pairatu dituzte.

Beraz, diskrezioa bezain inportantea izan da, mahaikideentzako, egindako lanaren sozializazioa. Prozesu hauen kanpo sozializazioa kezka bat izan da bertan parte hartu duten denentzako. Aldagai honen inguruan dilema moduko bat adierazten dute parte hartzaile guztiek: batetik, lana modu diskretu batean, sukaldean, egitearen beharra edota komenentzian bat datoz guztiak. Baina, bestetik, egindako lanketak eta urratsak gizarteratzeko beharra ere sentitu dute, hauek beste herritarrekin partekatze eta, azken finean, egindako lanak herrian bertan eta belaunaldi berriengan eragina izan dezan.

*Hemen dagoen guztia nola sozializatuko da? Nola landuko da beste norbaitentzat? ... Bertigoa (h1)*

*Nola sozializatu... kezka bat ... pertsona batzuk ez zuten publikoki berbalizatu nahi (h2)*

*Ez dakit oso publikoa den (h4)*

*Gure lana publiko ez dugu egin azken momentura arte... aurrera, publikoki egin dugunean, adostasunak finkatuak zeudelako izan da (h7)*

*Gauza batzuk sukaldean eta goxogo lantzea gustoko dut eta iruditzen zait oraindik aurrera hasi behar dugula sozializatzea (p3)*

Foro eta mahai bakoitzak zituen baliabideen baitan eta izaeraren baitan bere esperientzia gizarteratzeko modurik egokiena bilatu du: herritarren aurrean ekitaldi ireki eta parte-hartzaile baten bitartez, prentsaurreko baten bitartez, elkarrizketa guneak kide guztien ahotsak jasotzen dituen dokumental bat eginez edo foroak edota mahaiak egindako ekitaldi guztiak edota urtero landutakoaren kronikak jasotzen dituen webgune bat sortuz.

*Herri aldizkarian ere atera gera (h3)*

*2015eko apirilean, komunikatu moduko bat egin genuen, eta bertako egunkarian, kronikan, zer ginen esan genuen... Web orri bat eta Facebook ireki genituen bakoitzaren ekarpenak zintzilikatzeko... orain oso aktibo dago (h5).*

*Egin denetik atera behar dugu... antzezlan bat egin daiteke, edo eskultura edo dantza bat egin daiteke (h10)*





*Dokumentala aurkeztu genuen (h1)*

Gizarteratzea bera erronka garrantzitsu gisa hartzen dute parte hartzaileek. Prozesu gehienetan zalantza asko suertatu dira gizarteratze hau nolakoa izango zenaren inguruan eta maila batean mahai eta foroei bukaera nola eman behar zitzaienaren inguruan.

*Nola emango diogu bukaera honi? Hor ataskatu ginen pixka bat... baina asmatu genuen dokumentalarekin (h2)*

*Gure taldearen ibilbidea amaitu dela ulertu dugu. O sea, egin behar genuen hori, gizarteari egin nahi genuena, eta honaino iritsi gara. Eta ordun, ba oso modu naturalean, itxi egin dugu (h7)*

*3 urte egon nintzen eta bukatu egin genuen, gure ematekoa iritsi zela iruditu zitzaigun, eta amaiera bat ematea aurkezpen publiko batean... Foro hauek ez dira betikoak baina foro hauetan egindakoa betiko da (h8)*

Kasu batzuetan gizarteratzea bera hasiera bezala ere enfokatu izan da, amaiera izan beharrean. Foro eta mahai bakoitzaren errealitate eta beharrekin oso lotuta dago aspektu zehatz hau.

*Gauzatxo bat bukatzen ari ginenean, beste batzuetan pentsatzen ari ginen, horregatik harritu gintuen hainbeste Donostiakora joan ginenean eta «itxiera ekitaldia» esan zutenean... nola itxiera... gu orain hasi gara... gauza asko egin nahi ditugu... lehenago edo geroago amaiera bat izan behar du... uste dut oraindik asko falta dela horretarako (h5)*

*Hau ez da bukatu, honen helburu nagusia ez errepikatzea da, ordun denok nahi dugu honekin segi... sortu dira lotura batzuk gure artean oso fuerteak (b1)*

Prozesu hauek gizarteratu direnean, positiboki baloratu dute parte hartzaileek. Batzurentzat, prozesua beraren parte izan da esperientzia gizarteratzea. Esan bezala, aurretik kezka, bertigoa edota urduritasuna aipatzen dituzte baina emozioa, ospakizuna eta harrotasuna ere izan dira parte-hartzaileek aukeratu dituzten kontzeptuak une hori definitzeko.

*Ni harro nago prozesuan parte hartzeaz... suerte bat da guretzako horrelako mahai batean parte hartu izana (b1)*

*Udaletxeak egin zuen herri mailan biktima guztiei errekonozimendu bat... talde politiko guztiak ados egon ziren... eta gero egin zen ekitaldi bat non presentatu genuen gure burua... emozionantea izan zen, hunkigarria... izan da lehenengo aldiz instituzio batek errekonozitu duena gure kasua (b5)*

*Dokumentala aurkeztu genuenean ospatu geunuen txanpainakin...*

*konturatu ginen prozesuaren parte zela (h1)*

Politikari batzuk gai hauen inguruan alderdi guztien adostasuna lorpen handi bat bezala ikusten dute eta herritarrek adostasun hauek oso positiboki baloratzen dituztela azpimarratzen dute.

*Egin ditugun ekitaldi guztietan alderdi guztiak daude, herriak hori ikusten du eta gustatu egiten zaio alderdi guztiak batera egotea horrelako ekitaldietan (p9)*

Besteren batek, gai honen inguruan bizi izan den gehiegizko pertsonalizazioa ere aipatu du zaindu beharreko elementu gisa. Nahiz eta pertsona konkritu batzuren bultzada eta lana zalantza ezina izan, fokalizazio honek beharrezko ez diren tentsioak sor ditzakeela ere aipatzen du.

*Hor bazegoen protagonista bat, bereziki komunikabideek ematen zutena eta zan bereziki alkatea, ni nintzana. Azkenean hor oso fokalizatua egon zen eta tentsioak sortzen zituen (p2)*

Ordezkarri politikoaren mahaiak lanean ari ziren udalerrietan, herritarren foroan azken ekitaldiak udalaren babesa jaso ohi du.







## 3.2.5 Aldagaien analisia: mahai eta foroen ondorena

### Eragina

Horrelako prozesuen eragina neurtzea ez da erraza izaten. Egiatagarriak eta ondorioz, neurgarriagoak izan daitezkeen elementuen artean, hiru dira nagusi:

- **Foro eta mahai askotan adostasunez hartu den erabakietako bat izan da udalerrian azken 60 urteetan gertatutako Giza Eskubideen urraketa anitzen inguruko ikerketa bat egitea.** Ikerketa hau kanpoko eragile bati eskatu izan zaio eta helburua da herrian izan diren sufrimendu guztiak txosten batean identifikatuak eta jasoak izatea. Txosten hauen egileak bi eragile izan dira nagusiki: Argituz eta Aranzadi Zientzia Elkartea. Honelako ikerketek tokian tokiko ezagutza zabaltzeko eta errealitatearen lanketa sakonagoa sustatzeko balio izaten dute, baita herritarren inplikazioa eta partehartze zuzena sustatzeko ere. Era berean, herri askotan dokumentu hauek oinarritzat hartu izan dira hurrengo urteetan gauzatu beharreko biktimekiko errekonozimenduen edota lanketaren inguruan oinarri gisa.
- **Biktimen aitortza ekitaldiak:** udal batzuek memoriaren eguna erabili ohi dute biktima guztiei aitortza egiteko edo biktima guztiei zuzenduriko adierazpenak edo ekitaldi sinbolikoak antolatzeko. Batzuetan, ibilbide hau barne lanketa baten ondorioa izaten da eta besteetan berriz, erkidego mailako edo bestelako erakunde publikoek egindako adierazpenei atxikimendua adieraztera mugatzen dira. Kasu batzuetan, aitortza publiko hauek, bizikidetza foro eta mahaiak egindako lanketen ondorioz sustatu dira. Urteurrenak aprobetxatu izan dira ekitaldi hauek egiteko. Biktima zinegotzia izan denean (eta karguan zela hil zutenean) udal barruan aitortza publikoa egitea ere erabaki izan da.
- **Bestelako ekintza publikoak:** bizikidetza mahai eta foroek, indarkeria politikoak eragindako giza eskubideen urraketen inguruan hausnartzeko, ideiak partekatzeko, sensibilizatzeko edo/eta formatzeko balio duten ekimen desberdinak egin dituzte. Hauek, herritarrei zuzenduak izan dira edota eragile zehatz batzuei. Ekintza hauek oso anitzak izan daitezke eta beti dute komunitatean eragitea helburu:
  - ◊ Batzuk, hausnarketa irekitzeko egiten dira: hitzaldiak, zineforumak, antzerkiforumak, ikerketaren berri emateko saio bat, testigantza batzuk azaltzeko saioak, erakusketak, adibidez.
  - ◊ Herritarren inplikazioa eskatzen duten ekimenak ere badira: elkarretaratze bat, lore eskaintza bat, aitortza publiko bat, herritar foroan parte hartzea, adibidez.
  - ◊ Eragile zehatzei zuzenduriko ekimen bereziak ere badira: unitate didaktikoak, hezkuntza programak, adibidez. Hau, haur eta gazteengana iristeko modu eraginkorra izan daiteke eta hortaz, egokitutako ekimenak, programak eta formakuntzak proposatzen dira.

Bizikidetza foro eta mahaiak udalerrietan izan duten eragina baloratzeko orduan, desberdintasunak daude elkarrizketatutako politikari eta herritarren erantzunen artean. Politikariek, orokorrean, antzematen dute prozesu hauen eragina herrietan eta positiboki baloratzen dute nahiz eta eraldaketa handirik edo zehatzik ez identifikatu: elementu komunak desberdintasunen gainetik azpimarratzea, bizikidetzaren gaia “agendan” ipintzea, harremantzeko moduak aldatzea edota gauzak batera egitea prozesu hauen eraginez suertatu edo erraztu direla diote.

*Herrian askoz ere presenteago egotea gaia eta eztabaida. Pentsatzen det behin, mahaiaren plazaratzean, ekarriko dula herrian gehio eragitea (p3)*

*Egia da, urte horien poderioz ere, gure harremantzeko modua era aldatu dala, eta horrek ere balio du. Ideologia diferenteko pertsonak normal hitzegiteko gaitasuna izatea, bueno... Ezagutu ditut nik garai okerragoak. Hori xumea dala ematen du, baina aldaketa handia da (p4)*

*Nik uste dut, jendeak, alderdi ezberdinetako pertsonak gauzak batera egiten ditugunean, jendeak eskertu egiten duela, nik horren zalazarik ez daukat. Azkenean saiakera hori egin izana eta, bueno, gai hauetaz jardun izana, nik uste det herriak ondo hartuko dula (p4)*

*Gure herriari eman diona da hori, gure herriarekiko pertenezia eta identitate amankomun bat eraikitzeke zoru bat (p2)*

Herritarrek, berriz, eragin honen balorazioan, ezkorragoak dira orokorrean: herritarren (gizartearen) interes falta da azpimarratzen duten elementua. Hau da, gehiengo zabal batentzat bizikidetzaren gaia ez dela lehentasuna diote eta ondorioz, egindakoaren inpaktua edo eragina oso murrizta dela baieztatzen dute.

*Nik ez dut ikusi. Interesa falta dago ... jendeak paso egiten du... (politikariei dagokienean) ez dago benetako nahia... postureoa da (h3)*

*Ez dut uste. Uste dut inurriek bezala pixkanaka egindako lana ere izan dela, eta gehiago izan dela ahoz ahoko lana... (h5)*

*Ez ba. Nire ustez oso gutxi (h6)*

*Eskasa. Horrelako gauzak ez dute jendetzarik erakartzen... herrian ez zuen oihartzen handirik eduki (h8)*

Hala eta guztiz ere, ontzat ematen dute ekarpena eta mahai edota foro hauen funtzioa baioan jartzen dute guztiek eta parte hartzea errepikatuko luketela diote.

*Uste det sektore bat ahaztuta dagoela, igual gazteagoak direnak... ez da nagusia hortaz kezkatzen den jendarte sektorea... baina egiten dugun edozer sozialki eragina daukala (h1)*



*Jende askok ez du gogo handiegirik... ezin dezakegu itxoin ezer. Baina bai, pozik gaude izan duen eraginarekin (h2)*

*Asmatzen badugu, izango du eragina... ez da erreza... ez asmatzen dugun herriari ezagutarazteko moduarekin (h9)*

*Espero degu baietz... nik uste ondorio erreala baino gehiago, bai (herritarren) iruditerian, imaginarioan (h7)*

Batzuek, inpaktu edo aldaketa txiki batzuk ere identifikatu dituzte. Adibidez: udalerrri batetako foroak eskakizun bat egin zuen zenbait kaleetan biktima batzuei min egiten zizkieten "pintadak" ezabatzeke; eta halaxe egin zen. Egindako ekimen edo ekitaldi publiko batzuren inpaktua ere azpimarratu dute (memoriaren egunean, herriko biktimen omenaldiak, adibidez).

*Bai... egin ziren eskaerak... presoan irainezko pintada horiek estaltzeko, eta hori guztia... emakumearen inklusioarekin eta emakumeen eskubideekin lotutako pinturak eta muralak egin dituzte, askoz hobeto daudenak... (nire testigantza) eragina izan du jendearengan... zabalkundea izan zuen (b3)*

*Nik uste dut baietz, Inpaktua izan zuen liburuak eta Gogorak egindako ekitaldi hori oso inpaktagarria izan zen... eta politikariengan ere bai... lehen ez ziren ados jartzen eta azkenean orain ados jartzen dira... balorazioa positiboa da (b5)*



17th INTERNACIONAL SYMPOSIUM OF VICTIMOLOGY, Kursaal, Donostia 2022

## Erreplikagarritasuna

Elkarrizketa gune guztiak toki mailan gertatu dira. Parte hartzaile guztiek azpimarratu dute toki mailak duen garrantzia konfiantza eraikitzeke espazio gisa. Toki mailan, arerio ideologikoa bizilaguna da. Toki mailan, arerioarekin bizitzea ezinbesteko ariketa da. Horregatik azpimarratzen da modu orokorrean toki mailaren garrantzia.

Hala ere, diferentziak handiagoak dira toki mailako prozesu hauen erreplikagarritasuna mahai gainean jartzen denean. Batzuentzako, gehienentzako, oso zaila da espazio lokala oinarri izan duten prozesu hauek lurralde edo nazio mailan egitea. Ez dira betetzen prozesu hauek izan beharko lituzketen baldintzak. Konfiantza eraikitzea beste klabe batzuetan gertatzen da eta ez dira ematen gertutasuna eta enpatia sortzeko beharrezko baldintzak

*Ez zait iruditzen estrapolable denik beste maila batera, nik uste beste prozesu batzuk izan behar dutela, eta prozesu horiek beste maila batean egon behar dute (p2)*

*Ez dut horren garbi ikusten (h4)*

*Gutxitik hasi behar da, txikia izan behar da ... auzotartasunetik lan egin behar da (h5)*

*Udaletxean hastea horrelako gauzak inportantea da... herritarrengandik gertu dagoen instituzioa delako... gero islatzeko beste erakunde batzuetara, Diputaziora edo Eusko Jaurlaritzara baino hori zailagoa izango da (b5)*

Beste posizio batzuk posibilitatagoak dira. Toki mailan emandako aukeretatik abiatuz, posible ikusten dute lurralde edo erkidego mailan metodologiak erreplikatzeko aukera ikustea.

*Benetan uste det aktuatu behar dela en lo local. Nik uste dut herri mailan egiten badugu, lortuko dugula Gipuzkoa mailan edo Euskadin bizikidetzaz askoz indartsuagoa izatea. (p9)*

*Nik aukerak ikusten ditut... eskatzen du konfidantza lanketa handia... esportagarria iruditzen zait oinarriak zaintzen baldin baditugu... eta noski, gogo baldin badago... honek eskatzen du kultura politikoa aldatzea (h1)*

*Pentsatzen genuen baietz... maila batean... formato askoze laburrago baten... unibertsitatean izan daiteke ... modelo hau erabili daiteke baina non, nola... beste erreflexio bat da (h2)*

*Posible dala herritar foro bat herrialde mailan sortzea... zailagoa iruditzen zait alderdi politikoen artekoa... etengabeko lehia politikoa daude... Beste gauza bat da Jaurlaritzan dauden bezala edo Nafarroako gobernuan dauden bezala bizikidetzako taldea (h7)*



*Bai, bai, behar da. Hau zabaldu egin behar da. Ez guk zehazki egin genuen bezala, baina hau bultzatzea beste eredu baten bilaketa kolektiboak... alderdi politikoen ereduak ere behar duela errebisio handi bat (h8)*

*Bizitako esperientziak beti balio du etorkizuneko beste proiektu batzuk garatzeko edo beste frogak batzuk egiteko, ez? (p4)*

*Gero, beste kontu bat da, hori nola gauzatu kanpoarekiko, gehienbat oraindik daudelako barne prozesu baten, baina gero nola gorpuztu hori kanpoan islatzeko? (b4)*

Maila horretan, eta erreplikagarritasuna garatze aldera, badira agerian jartzen diren bi elementu. Alde batetik, eta herritarren foroetatik nagusiki, alderdi politikoen maila orokorrean dituzten estrategiak zailtasun bezala identifikatzen dituzte. Ez dago estrategia hauetan horrelako espazioentzako tokirik egungo markoak hala jarraitzen badu.

*Alderdi politikoa daude oso enkorsetatuta gai hauetan... ez daukat konfiantza handirik foro politikoa ezer aterako denik... itxaropen handiagoa daukat herritarren foroetatik (h9)*

*Partidu politikoa... beste joku bat da... kosta egiten zaie defebtsarik gabe hitzegitea... baina biktimen artean errespetuz hitzegitea lortu badegu, haiek nola ez? Hori da ulertu ezina guretzako (b1)*

*Ona da beti zerbait txikixeago batetik hastea ... horrek funtzionatzen badu ... zabaldu egin daiteke ... alderdi politikoa beste maila batean daude ... gehiago mugituko dira alderdiaren jarraibide eta filosofiaren arabera (b3)*

Bestetik, gaiak berak dagoeneko gizartearen zati handi batean suposatzen duen nekea ere azpimarratzen da. Kasu batzuetan hiritarren gehiengoak dagoeneko beste fase batean ere badagoela aipatzen da.

*Zaila da. Badago agotamentu bat, badago neke bat gai honekin. Nik dudan sentazioa da ez dugula nahikoa aurreratu eta nekea dagoela (p2)*

Azkenik, erreplikagarritasun hau martxan jartzeko prozesuen koordinazio eta sistematizazioa eskatzen dutenak ere badira. Hau posible izango da metodologia partekatzen bada, eta gaiaren eta helburuen garrantzia ere azpimarratzen dituzte.


*Zaila da, baina ez da ezinezkoa, eta uste dut denborarekin dena iritsiko dela. Errespetatu ditzagun denborak, biktimen atsekabeak errespetatu behar ditugun bezala, arrazoia edozein dela ere. Nire ustez, gehiago da ideologia kontua, baina asko ere denbora kontua izango da. Egingo ez dena da gaizki ixtea; izan ere, gaizki itxi zitekeen ETAk hiltzeari utzi zion egunetik. Ondorioa, denbora eta gogoia. Tira, borondatea (p8)*

“

*Ona litzateke bat-egite bat egiten saiatzea ... herri bakoitzak gurrupila asmatu behar badu ... helburuak, porrotak, arrakastak partekatu behar baditu... tokiko lana da hori, hurbiltasuna, ulermena, pertsonen ezagutza ... tokikotik egin behar da ... beste gauza bat da ikuspegi globala izatea... politikak arazo hori dauka ... oso baldintzatuta dago diskurtsoengatik eta postureoengatik, aurrez oso finkatuta dauden jarrerengatik (h10)*

”





## 4 Irakaspenak eta etorkizunerako erronkak



## Irakaspenak eta etorkizunerako erronkak

Toki mailan gauzatutako prozesu hauek metodologia baten egonkortzea ekarri dutela baieztatu dezakegu, egiteko modu diferenteak daudela erakutsi dute; gatazkatsua izan daitekeen gai bati ekiteko, konfiantza, elkarrizketa, kontsentsua, diskrezioa eta dinamizatzaile baten laguntza oinarri dituen “egiteko modua”.

Mahai eta foro hauen esperientziak ere erakutsi digu, hauek martxan jartzeko baldintza batzuk ematea ezinbestekoa dela:

- **Udaleko alderdi guztien ordezkari-tza mahaietan bermatzea:** Batzorde edo elkarrizketa gune honetan Udal barruko alderdi guztien presentzia izateak, herritarren aurrean, “guztiona” izatea ahalbidetzen du. Udal osoaren ekimena izateak, denen arteko ekimena izatea bermatzen du eta beraz, mezu alderdi guztiek landu eta adostua denez, berezko garrantzia hartzen du.
- **Kideen parte hartze egonkorra.** Parte-hartze egonkor eta iraunkorrek garrantzia berebizikoa du. Partaideen animoan eragin positiboa du eta talde kohesioa elikatzen du. Gainera aurrera egitea errazagoa da, bilera bakoitzean gaiak lantzeaz gain harremanetan eragina duten egoerak ematen direlako eta horiek bizitzeak hurrengo bileretan gertatzen dena ulertzen laguntzen duelako.
- **Entzuteko eta ulertzeko prestutasuna.** Bakoitzaren nahiak adierazteaz gain, bestearen nahiak eta beharrak entzuteko prestutasunak, elkar ezagutza ahalbidetzen du. Hortik aurreiritziak gainditzeko aukera sortzen da, bai eta partekatuta daitekeena aurkitzeko. Asko azpimarratu da “zubigilearen” ideia. Bertan parte hartzen dutenek zubigile izateko zentzua eta asmoa ere izan dezatela.
- **Foro eta Mahaien aniztasuna funtsezkoa da:** gizonek eta emakumeek parte hartzea, genero oreka bermatuz, ezinbesteko baldintza bat da. Era berean, belaunaldi arteko begirada ere izan beharreko baldintza bat da, gazte eta ez horren gazteena, txuri beltzeko zein koloretako matizak izango dituztenena. Azkenik, begiraden aniztasuna izan behar da ideologia eta sentsibilitate politikoei dagokienean..



## Prozesuek lortutako emaitzak

Prozesu gehienek izan dute hasieratik landutakoa gizarteratzeko helburu zehatza. Partaide guztiek, ordezkari politiko zein hiritarrek garbi izan dute kontsentsura bideratutako lanak biderkatu egin behar zuela bere efektua, diskreziotik ezagutzara igarotzen zen momentuan. Hau modu diferenteetan egin da, baina denek izan dute bere eragina toki mailan. Aurretik esan bezala, prozesu ezberdinetako partaideek publiko egitea modu diferentean irudikatu dute: prentsaurrekoa eta adostutako testua, bideo dokumentala, hausnarketan partekatzea... Bakoitzak bere modura, baina helburu zehatz batekin: efektua izan eta ondorioen zabaltzea bilatu.

Honetaz gain, prozesu diferenteek emaitza desberdinak ere izan dituzte, parte hartzaile zein dinamizatzaileek prozesuen ekarpen nagusiztat honakoak azpimarratzen dituzte:

- **Elkarrizketa gunean iragana eta orainari begiratzeko aurkituriko metodologia.** Horietako batzuk mapa mentalak eta denbora lerroak izan dira. Esperientzia eta toki diferenteetan hauen sistematizazio lana egin da.
- **Egoera zehatzei aurre egiteko sorturiko protokoloak.** Espazio ezberdinetan gertatutakoak modu zehatzetan pausoak ematea suposatu du. Prozedura hauek ere sistematizatu egin dira eta gatazkak kudeatzeko tresna eraginkor gisa funtziona dezakete.
- **Biktimen aitortza eta erreparazioa lantzeko sorturiko prozedurak.** Prozesu guztiek egin dituzte gertatutakoaren inguruko kontakizun ezberdinen bat egiteak. Hauetako batzuk aurrera egin dute aitortza publikoak ere planteatuz. Aitortza publikoak egiteko formula bakoitzak bere ibilbidea izan du, baina funtsean, prozesuaren lanketa eta biktimak benetakotzat jotzea ezinbesteko baldintzak izan dira. Biktima ezberdinen errekonozimendua ere mahai gainean jarritako kontua izan da.
- **Adierazpen Instituzionalak.** Barne lanketa batzuei esker, hainbat adierazpen instituzional adostera iritsi dira elkarrizketa gune hauetan. Azken dokumentua adostasunean onartzeak garrantzia dauka baina prozesua eta lorpen horretara iristeko prozesua ere ikasketa eta ekarpena ere badela esan liteke.



## Parte hartzaileentzako irakaspenak

Parte hartzaileek adierazitako ikaspenei dagokienez, hauek maila diferentean koka daitezke. Pertsona batzuentzako, jende anitza ezagutzea eta hauekin hitz egitea izan da prozesu hauetako lorpena.

*Jende ezberdina ezagutu dudala eta elkarrizketak izan ditudala (p2)*

*Nire postura berdin-berdina ez duen jendearekin gai honetaz behintzat hitz egiten ikastea (h4)*

*Nik ikasi detena gainera da hori, eseritearen poderioz gauzak ez dira igual asko aldatuko, baina errealitateari beste begirada batekin begiratzeko posibilitatea badagoela (p4)*

*Prozesu personal bat izan da, non betiko rotondatik, nik beti esaten dudana, atera egin behar zala, ezinezkoa zala horrela jarraitzea. Orduan niri norabide horretan (b4)*

Beste batzuentzako, pauso bat haratago joanda, bere burua berraztertze aukera bat ere izan da, eta "bestearekiko" enpatia landu eta deskubritzeko aukera eman die prozesuak. Bide horretan, lehenago ezagutzen ez zituzten edo ezkutuan izan dituzten elementuak jarri dituzte agerian.

*Entrenamendu brutala... nigan dagoen zapaltzaile hori identifikatzea ebai... integrazio ariketa... besteen minak errokonozituz (h1)*

*Hitz egin behar dala... ulertu dut beste batzuen sufrimendua (h2)*

*Asko ikasi dugu saiatu eta huts egitearen poderioz... gauza asko ezagutu ditut ... hitz egitea, elkar ulertzea, hurbiltasuna, gizatasuna (h5)*

*Merezi duela horrelako gauza bat egitea... bestearen lekuan jartzea. Hori da lehenengo ikasketa... eta ez dela erreza eta jendea ahaztu nahi duela (h6)*

*Entzuten ikastea... eta patxada erakutsi dit... lasaitasun handiagoarekin erantzuteko gaitasuna (h7)*

*Aurriritziak pixkat jun dira... entzutea... oso gustuko ez zitzazkidan gauzak ere entzutea... ahalegin handia egin dut... beste ezer baino lehenago pertsona eta pertsonaren duintasuna dagoela (h9)*

*Taldean lan egitera... denborak kontrolatzera... entzutera... zenbait estereotipo uxatzera... biktimak ulertzera... biktimen kolektiboa mundu guztia ikusten ari garena baino askoz ere handiagoa da (h10)*

*Lasaitasuna... enpatia... burbuila horren oskoletik pixka bat ateratzea... beste era bateko gauzetan parte hartzea... askoz ere pertsona indartsuagoa egitea (b3)*

*Ba begirada guztiz aldatzen zaizula. Oso presente daukat nik ze bizi izandu deten eta... Baina, bai, begirada irekitzen dizu eta gai naiz enpatizatzeo ehuneko ehunean (p3)*

Honetaz gain, enpatiak gainontzekoen sufrimenduen errelatoen gaineko begirada partekatzea ere ekarri du. Zentzu honetan, oso partekatua da errelato diferenteen inguruko hausnarketa eta hauek bakoitzari ekar diezaioketenaren inguruko begirada. Maila batean, bakoitza beretik atera eta gainontzekoengana gerturatzeak kontakizunean ere izandako eragina azpimarratzen da.

*Bakoitzak duela bere sufrimenduaren errelatoa... errespetu handiz jokatu behar dela... gertatua ulertzea justifikatu gabe... autokritika... iragana ez dela ahaztu behar... Edonor izan daitekeela gai bide hau egiteko... denok egin dezakezue (h8)*

*Ez dagoela egia absoluturik... errealitatea anitza dela... gorrotorik gabe hitzegitea aberrasgarria eta erredugarria dela... defentsarik gabe, barrutik hitzegitea ... entzutea hitz egitea bezain inportantea da (b1)*

*Barruak hustea... besteenak entzutea... enpatizatzea... besteak ere sufritu dutela ikustea (b5)*

*Uste dut existitzen den sufrimendu bakarra ez dela zurea, desberdinak ere badirela (p8)*

Azkenik, parte hartzaile askok nekea eta desgaste pertsonala ere adierazi dute prozesuen ondorio gisa. Honek pertsonak zaintzearen ardura eta beharra ere jartzen du mahai gainean, ezinbestean.

*Batzorde hauek baliogarriak diren? Seguru baietz, seguru baietz. Baina desgaste pertsonala asko ere. Desgaste pertsonala asko da (p7)*



## Etorkizuneko erronkak

Etorkizunari begira jarri aurretik, orain arte egindako lanaren balioa azpimarratzea bidezkoa deritzogu. 2011ean ETAk bere ihardueraren etenairagartzearekin batera analisi askotan azpimarratu zen tokiko bizikidetzan lan egitearen beharra eta lehentasuna. Hamar urte igaro diren honetan, eta analisi batzuek oraindik ere indiferentziaren tesia badarabilte ere, argi esan daiteke arlo eta eremu honetan martxan jarritako politikak izan dutela hainbat herri eta pertsonengan eragina eta aurretik esan bezala, "egiteko modu" bat osatzen eta eraikitzen joan da.

Baina egia hori zor, gertakari hauetatik hamar urte pasa direnean, kasu askotan euskal gizartearen beste orrialde batean dirudi. Egun, bizikidetzarekin harremana duten gaiak ez daude dagoeneko titular handietan. Ez dituzte, ezta ere, jendearen eguneroko kezken elkarrizketak betetzen. Etorkizunera begira, hau da, gure iritzi, aurrera begira programa honek daukan erronka nagusienetariko bat. Azken Deusto Barometroak esan bezala, euskal gizartearen kezken lehen hamabosten artean kokatzen ez denak badu artifiziala den eztabaida batean kokatzeko arriskua. Baina era berean, giza eskubideen errespetuak eta honen garrantziak, orrialdea alperrik ez igarotzearen beharra ere jartzen du agerian, kontsentsuak eraikitzen jarraitzekoa, errelato eta begirada ezberdinak jasotzearena, ahots desberdinak biltzen jarraitzekoa. Horretarako ere balio dute politika publikoek. Giza eskubideetan eta kultura demokratikoan oinarritutako politikak, politika publikoen garapenerako hezurdura eta ibilbide-orrria beharko lukete izan, gizartearen eskaera zehatzetatik haratago.

Bigarren erronka erreplikagarritasunarekin eta esparruarekin lotutakoa da. Prozesu hauek toki mailan izan dute beraien garapen eta soslaia. Gainera, Gipuzkoako Lurralde Historikoan gertatu dira denak, Aldundiaren politikaren babespean. Honek etorkizunerako galdera pare bat planteatzen ditu. Lehenengoa, "gipuzkoartasunetik" haratago beste lurralde batzuetan ere toki mailara prozesuak eramangarriak al dira? Bigarrena, toki mailatik haratago, lurralde edo nazio mailan ere egingarriak al dira antzeko prozesuak? Gaur gaurkoz, ez dugu ebidentziarik bi galdera hauei ezezkia emateko. Batetik, ereduak eta metodologiak Gipuzkoan toki mailan funtzionatu duen heinean, beste lurralde historikoetan ere funtziona dezakeelako, sustapen politikoa oinarrian badu behintzat. Bestetik, maila orokorrago batetara igarotzeko saiakerak ere izan ditzake prozesu hauen oinarrietan dauden elementuak eta egiteko moduak. Hauetan ere, borondate eta sustapen politikoak ezinbestekoak direlarik.

Hirugarren erronka belaunaldiartekotasunarena da edo, zehatzago esanda, gazteen presentzia eta inplikazioarena. Prozesu askotan azpimarratu da gazteen presentzia txikia izan dela edo egon direnean ere, asko kostatu izan dela hauen jarraitutasuna mantentzea. Ezinbestekoa deritzogu gazteen presentzia bermatuko duten ekintzak martxan jartzea eta hauek beste belaunaldi batzuetako pertsonekin harremanetan jartzea, memoriaren eta, bereziki, etorkizuneko bizikidetzaren demokratikoaren lantze partekatua egin ahal izateko. Ekimen eta lanketa zehatzak egin beharko lirateke hau lortzeko

Orain arteko ibilbidea aintzat hartuta, 2023tik aurrera zer? Hedapen eta egonkortze faseek definitu badute "Bizikidetzaren Lantzen" programaren ibilbidea, hurrengo legegintzalditik aurrera, bere iraunkortasuna bermatuta, momentua izan daiteke beste pauso bat emateko. Pauso hau, perfil diferenteen sarrerarekin lotua egon liteke baina baita bizikidetzaren arloan orain arte landu gabeko gaiei eustearrekin edota beste ekimen batzuk programaren parte izatera gonbidatzearekin. Guztia, bizikidetzaren demokratiko batean sakontzeko eta kultura demokratikoa sustatu eta barneratzeko. Bizikidetzaren Sustatzen 2013an, Bizikidetzaren Lantzen 2016an, Bizikidetzaren demokratikoan Sakontzen 2023an?





## **5** **Bibliografia** **eta iturriak**






- **Alzate, R., Fernández, I., & Merino, C. (2013).** *Desarrollo de la cultura de la paz y la convivencia en el ámbito municipal: la mediación comunitaria. Política y Sociedad, 50, 179–194.*
- **Argituz. (2012).** *El tiempo es ahora. ¿Es posible una memoria incluyente de las víctimas en el ámbito local? Experiencias y desafíos.* Donostia – San Sebastián.
- **Argituz. (2015).** *Hacia una memoria compartida. Informe sobre violaciones de derechos humanos y hechos violentos acaecidos en Errenteria de 1956 a 2012.* Errenteria.
- **Bakeola EDE Fundazioa, Baketik & Berbari Lekua (2022).** *Bizikidetza prozesuak Gipuzkoako udaletan. (argitaratu gabeko txostena).*
- **Barandiaran, X. (2018).** *El caso Etorkizuna Eraikiz: construyendo el Futuro de Gipuzkoa.* In X. Barandiaran (Ed.), *Gobernanza abierta y colaborativa. El caso Etorkizuna Eraikiz.* (pp. 171–191). Donostia – San Sebastián: Diputación Foral de Gipuzkoa.
- **Berger, P. L., & Luckmann, T. (1967).** *La construcción social de la realidad.* Buenos Aires: Amorrortu.
- **Carmena, M., Landa, J. M., Múgica, R., & Uriarte, J. M. (2013).** *Euskal kasuan gertaturiko giza eskubideen urraketek buruzko oinarrizko txostena (1960–2013).* Vitoria – Gasteiz.
- **Etxeberria, F., Martin Beristain, C., & Pego, L. (2017).** *Euskadin 1960 eta 2014 artean gertatutako tortura eta tratatu txarrak ikertzeko proiektua.* Vitoria – Gasteiz.
- **Etxeberria, X. (2019).** *Propuesta de marco conceptual para la reconciliación: una mirada desde la interculturalidad.* In F. Arrieta & G. Boffey (Eds.), *Hacia la reconciliación* (pp. 73–100). Madrid: Catarata.
- **Eusko Jaurlaritza – Gobierno Vasco. (2006).** *Bakea eta Bizikidetza plana.* Vitoria – Gasteiz.
- **Eusko Jaurlaritza – Gobierno Vasco. (2010).** *Bizikidetza demokratikoa eta indarkeriaren deslegitimazioa 2010–2011.* Vitoria – Gasteiz.
- **Eusko Jaurlaritza – Gobierno Vasco. (2013).** *Bakea eta Bizikidetza Plana 2013–2016.* Vitoria – Gasteiz.
- **Eusko Jaurlaritza – Gobierno Vasco. (2017).** *Bizikidetza eta Giza Eskubideen plana 2017–2020.* Vitoria – Gasteiz.
- **Eusko Jaurlaritza – Gobierno Vasco. (2021).** *Bizikidetza, Giza eskubideen eta Aniztasunaren Plana (Udaberri) 2021–2024.* Vitoria – Gasteiz.
- **Font, J. (2006).** *Ciudadanos, asociaciones y participación en España.* Madrid: CIS.
- **Galtung, J. (1998).** *Tras la violencia 3R: reconstrucción, reconciliación, reconstrucción.* Gernika: Bakeaz / Gernika Gogoratuz.
- **Gipuzkoako Foru Aldundia. (2014).** *Bizikidetza Sustatzeko bidean Gipuzkoan jorratzen ari diren Udal Esperientzien Sistematizazioa.* Donostia – San Sebastián.
- **Gipuzkoako Foru Aldundia. (2017).** *Bizikidetza Lantzen. Bake, bizikidetza eta giza eskubideen udal politikak sustatzeko foru programa.* Donostia – San Sebastián.
- **Gipuzkoako Foru Aldundia. (2019).** *Bizikidetza Lantzen. Hausnarketa prozesuaren emaitzak.* Donostia – San Sebastián.
- **Innerarity, D. (2020).** *Pandemocracia.* Barcelona: Galaxia Gutenberg.
- **Lederach, J. P. (1998).** *Construyendo la paz. Reconciliación sostenible en sociedades divididas.* Gernika: Gernika Gogoratuz – Bakeaz.
- **Lopez Romo, R. (2014).** *Informe Foronda: los contextos históricos del terrorismo en el País Vasco y la consideración social de sus víctimas, 1968–2020.* Vitoria – Gasteiz.
- **Martin Beristain, C., & Páez Rovira, D. (2000).** *Violencia, apoyo a las víctimas y reconstrucción social.* Madrid: Fundamentos.
- **Mínguez-alcaide, X. (2014).** *La Paz en el País Vasco. Peace in The Basque Country. An Interpretation from Social Meanings.* *Revista de Paz y Conflictos, 7, 53–77.*
- **Saez de la Fuente, I. (2017).** *Misivas del terror. Análisis ético-político de la extorsión y de la violencia de ETA contra el mundo empresarial.* Madrid: Marcial Pons.
- **Saez de la Fuente, I., & Bilbao, G. (2018).** *La problemática de la asunción ética de la perspectiva de las víctimas.* In G. Varona (Ed.), *Victimología: en busca de un enfoque integrador para repensar la intervención con víctimas* (pp. 51–73). Madrid: Aranzadi.
- **Uriarte, J. M. (2011).** *La reconciliación.* Bilbao: SalTerrae.



**BIZIKIDETZA**



**LANTZEN**

**10 urteko**  
esperientzien  
sistematizazioa



**Giza Eskubideetako eta Kultura Demokratikoko Zuzendaritza**  
**[www.gipuzkoa.eus/eu/web/gizaeskubideak](http://www.gipuzkoa.eus/eu/web/gizaeskubideak)**